


# NEGUA BALTZA BAÑA...

1 Otzez dardaraka  
eskaratz baztefean,  
su-gairik bagarik  
zer yanik berez,  
txiro gaxoaren  
bitzta, lafia,  
ekaitz aldietan  
negu gogofez.

2 Neguak danontzat  
betozko astuna,  
agertzen dabela  
dakusgu danok,  
baña txiroentzat  
zelako samiña  
zelako baltza dan  
¿nok azaldu? ¿nok?

3 Ama gaxoaren  
biotza samiñez,  
semeentzako  
ogirik ez da;  
atsekabe onen  
samintasun<sup>o</sup> latza  
azaldu leikenik  
¿iñor ete da?



Eusko - mendiyetako pitxiyak. — Basetxe eredu bat

4 «¡Ama, gose naz ni!  
jogi apurtxo bat!»  
entzun aŕen saŕi  
zer emonik ez,  
eta negaŕ malkoz  
erantzuteagaz,  
lasteŕ asten dira  
danak negaŕez . . . .

5 Ta *gizonak* dagoz  
zer yan ugari ta  
aukera gustiaz,

dirala bizi,  
txiro gaxoaren  
negaŕak entzun da  
euroen ondotik  
igesi beti.

6 Eŕukirik bako  
biotz gogof oŕeik,  
beti daoŕ itxita  
txiroentzat,  
euren ondasunak  
kutxaren baŕuan

ugari - ugari  
dana eurentzat.

7 Au ikusiagaz  
negua bai baltza  
dala-ta, be, neure  
biotzak diño:  
«Ez da negu baltzik  
ta samiñagorik  
aberatz zikoitzen  
biotza baño».....

GABIREL.

# ZER EDO ZER

## BATU TA EKIN...



MASASPIGARREN urtean sartu da JAUNGOIKO-ZALE eta bere asmo gora-gariak al dabenez zabaldu ta laguntzen deutesen neuriz aufera egiteko gertu dago. Urteak berez ez dira ezer, edo obeto esateko zerbait ba'dira, kalterako ala onerako. Alpefarentzat be igaroten dira, baña onura barik; eta lan egin dabeneztat onuraz beterik. Soloen antzera landuten dabeneri onura emoten dautso. Al dabena egin dabeneztat, naizta gitxi izan, urteak ondo igaroak izaten dira, al dabena baño geyago inñori be ez yako eskatzen eta.

### Eta Yaungoiko Zale'k

al dabena egin dabela esan geinke. Zarata-zaleak ez gara, naiz ta gaur ori barik zabalkunde gitxi egiten dala yakin; azia erainten dabeneri lez, zarata egitea be ez dagokigu; zarataren lana zirisuzko edo etxapliguen antzekoa izaten da-ta; une baten argi ta zarata asko, eta gero... ezer ez...

Gaur amasaspi urte, kristiñau ikasbi-dea-ta, euskaldunei euskeraz irakatsi bea' yakola esaten ebanari zeafetara safi-egitan begiratzen yakon... gaur Eleizaz batean sentzunak eskatzen dabena dala, ain barik ibili gura ez daben edonok diño, eta aurka yarten danari, asmo zuzenez ez dabilenari lez begiratzen yako. Eleiza Amak bafiz bere betiko irakatsiak argiro gomutarazten dituz. Oraintsu Lituania'z egin daben itunbanean XXI atalean auxe diño: «Gotzānak arduratuko dira, kristiñau bakoitzari Eleizaren arauz, gogo-irakatsiak, bere amaren izkuntzan emoteko». Beraz, guk beti esan doguna: Euskaldunei euskeraz...

Egi au orduan be egi  
ez ete zan ba? \* \*

Egia beti da egi, eguzkia beti eguzki dan antzera, baña norbera eskutatzen ba'da, ala eguzkia lañopean estaltzen ba'da, gureztat bere onurak ain ugariak ez dira izango, ez bere aldetik bardña ez dalako,



erua eragozpena gure aldetik dagolako baño. Safitan bakoitzari bere elez eta euskaldunai euskeraz zeruko bidea irakatsi bear yakola esaten gendunean, Eleizak agintzen ebalako eta sentzunak eskatzen ebalako onuratsua izango ba'zan, gizon zintsoak ziranak, ori ezin geinke ukatuta, aurka egiten ikusteaz bein baño sañiagotan geure artean egiten gendun: Baña Yauna, ori zelan izan leiteke? Ain argi dagon auzian okef ete gagoz ba? Emendik urte batsuk bafu ofek zintso diranok, gure asmoak txalotu egingo dituela ziur dakigu, eta orain zegaitik ez? Egiak ziñesteko, sagañen antzera, umatu beafa ete dauko ba?... Baña gero ikusirik inguruko aixeak onetan gizonak baño efu geyago eukala, eta beti ikusten danak eta norberentzat ondo datofenak gizonaren aburuetan eragipen andia eukala, nai gendun bizkortasunaz ezipazan be, al gendun alegin gustiaz, bide zuzeneko argia zabalitzen alegindu giñan, gure aldetik iñori miñik emoteko asmo barik. Eta ekiñaz, Yaunari eskefak, gaur ez da gogo zintsodunik asmo goitar oneik ontzat emoten ez dituanik.

Besteren lanak okef ala zuzenak epaitzen zaleak batsuk izan oi dira, baña onetan lagundu ez dabentak epaikaritzza egiteko eskubiderik ez dauko. Lan era batera edo bestera egiten dabentak, besteen lanatzaz zerbait esateari ez dautsogu txarfo ereisten; baña ezer egin ez, eta besteen epaikari sartzea baño obe izaten da ixilik egotea.

### Asmo batekoak batu egin bear gara ❀ ❀

Asko asmo bardiñekoak izan afen, bakoitza bere aldetik ba'dabil, lan egingo da, baña lan au zatika egindakoa, ez ain

onuratsua, neketsuago, uñiago eta gitago iraungo dabena izango da.

Añobi batetik bakoitzak ari batsuk ara eta bakoitzak bere erara lan egiten dau, bear ba'da lan edefak agertuko dir baña norbaitek buru eginda, gustiak btera yoten ezipadabe, etxerik ez da egingo, eta lanok bear ba'da txukun izan afen, bananduta alpefik galduko ara. Baña lana ondo berezita, bakoitza bere arloari ekiten ba'dautso, gustiok buru batera zuzendurik, orduan lan onatsa, askoz onuratsu eta iraunkoñag egingo dogu.

Alkartasunak poztu egingo gaitu, alkadoretu, indafak ugaritu, eta batez geulanak betikotu.

Biotzez bada, maite dogunok  
Yaungoikoa ta Euskera,  
Ekin dayogun bitsuon aldez,  
gogoz... gustiok batera...

### Batasunaren onura

Azaldu beafik ez dago, egunoro gaur gustietan ikusten doguna da-ta. Baña g onetzaz toki onetan Krisostomo deunare itz edefok ipiñi gura ditut: «Biotz batas na ta alkartasuna baño gauza onuratsugorik ez da, olan bakoitzak askok bes balio dau-ta. Bi ala amañ alkañtuta ba'd goz, bakoitza ez da bakar amarkoiztut koa baño, eta amañetan bat aurkituko d zu, eta baten bakañik amar. Etsai bat b dabe, azpiratuta geldituko da, ez bat aurka doyana lez, amañen aurka doyana lez baño. Bere kaltez ago bat ez da ya kiko, amar ago baño. Norbait bear izan nean aurkitzen dala? Bear izanean ez geldituko, beste bederatziñen ugaritasuna lagunduko dautsoe-ta, eta beañezan dagoan atala txikiena dalako, atalik a dienaren ugaritasunagaz beteta geldituko



## GUTZAZ ERUKITU ZAITE, JAUNA

da. Bakoitzak ogei esku ta ogei begi ditu eta ogei oiñ; bere eskuz bakañik ez dau lan egiten, besteen esku, begi ta oiñakaz be bai. Amar gogo ditu; berak bakañik bere ardura ez dau, besteak be beragaz arduratzen dira. Eta eun ba'lira, bardin gertatuko litzake ta orduan inda'ra ugartu be bai». (Homil in Yoan, 78'na, Ogara Abak erd. t. III 593 ing.)

### Batzeko ointxe erefi

ona ❀ ❀ ❀ ❀ ❀

Aspaldi, gure elearen alde zerbait gogoz egiteko asmo bizia agertzen da, eta au ezaugafi ontzat daukogu, banantzetik eriotza sortzen dan antzera, batasunetik

bizia dator-eta. Geure bañuan daukagu baña banatzearen susta'fa, bakoitzak nor b'arak gura daben lez batutze ori egin gura izaten dau, eta eguzkitan dagonak, gustiak eguzkitan batu bear gareala esaten daben legez, kerizpetan dagonak, bera dagon tokian batzea gura izaten dau; baña au gora-bera, geure bañuan daukogu batasunerako gauzarik eta lokañirik bea'ekoena; Yaungoiko ta euskeraganako maitasun zintso ta bakaña. Bakoitzak bere izakera galdu barik alka'rtu gaitezcan, batera lan egiteko... Baña ez batu bakañik, lanari

### Ekin bea' dautsogu.

*Ekin*, itz labu'ra da; beronek adirazten

dabena gauzarik luzeena. Onen etsai  
amoñatua geure berezko alperkeria da-ta,  
oñen aurka gogor egin bear. Etsairik txar-  
enak etxeakoak izaten dira-ta, geure al-  
perkeria, kalterik geyen egiten dauskuna  
dala esan geinke. *Ekin* dayogun ba, gar-  
aitza gustiak edo beintzat geyenak eki-  
teari zor izaten yakoz-ta. Etsairik bildur-  
garriena aspertu barik ekiten dautsona da;

langilerik onena be bai. Azkartasunak  
berak baño onura geyago ekañiko dausku,  
eta auxe geure gogoan beti euki bear do-  
guna...

Biotz-biotzez maite ba'doguz  
Yaungoikoa ta Euskera,  
Batu gaitez an bitsuon aldez,  
*Ekin*... gustiok batera...

**GAMA**

# Katoliko izparrak

## Mexiko 'tar katolikoan kemena. ✱ ✱ ✱

Lengo zenbakian aitatu gendun lez, Mexiko'n katolikotafen kaltezko basatikeriak ez dira amaitu. Eta Aita Santuak esan eban lez, efi *zibilizatzakoen* ixiltasun lotsagañiak ba' dirau. Ixiltasunezko ari loza azpian lez ainbeste efabakoen nekeak eskutauta gelditzen dira. Aita Santuaren gurariak betetzeko ba, al doguzan bafi guztiak emoten aleginduko gara, egizko katoliko izaten ikasi daigun eta ainbeste neke igaro bear daben anayentzat goi-eskañ ugaria eta etsayentzat euren gaiztakeria ezagutzeko Yaunaren argia eskatzeko.

Bertan orain arte eskutauta egon al izan dan Gotzain batek idatzi dabenez, katolikotar zintso areik otoi eta lastasunean sutsu yafaitzen dabe, eta iralan Kristo-Efegere'n yairako gertatzeko aste beteko laztasunak egin gura izan dituez.

«Ikastoletako umeak eurak be,—diño gotzain onek — barau egin dabe, edo beizat yanaria gatz barik egin, eta efiak bere aldez era gustiko laztasunak egin ditu. Kristo-Efegere'n yaya be, eraspén andiaz ospatu da. Diñoenez egun onetan Guadalupe'ko Andra Maria'ren Eleizea 500.000 lagunek ikertu dabe, argiro erakutsirik, agintari-ek guzufa diñoela gure aberian kistaf-gogoa il dala diñoenean.

Inguruko erkietan ziñopa (martiritzeak) eta yasafaldiak yafaitzen dabe. Agintarien gudariak zori-ixafeko efi au nekaltzen baño beste zereginiñik ez dabela esan leike.

Efi askori sua emon dautse, eleizak apurtu ditue, eta deun irudiak enparantzatan eresi soñu artean efe dituez: efi askotako biztanleak afapau dituez, toki baten bilduta eukiteko, agintarien kaltezkoai laguntasunik emon ez daiñoen.

Ziurtzat daukadan bidez auxe yakin dot:

Agilar Rodrigo aba, Union de Tula, Jaliskontxaunburu izan dana, Ejutla'n il dabela. Berak Kristo'n aldez bere odola pozik ixuriko dabela esan dautse, baña gudari boferuak, poz ori ez dautsiela emongo adirazi dautsoe, eskegita ilko dabela-ta. Eta alantxe egin be; baña bere gorputza ondiño eskegita egoala, zan bat ufatu yakon eta bertatik odol ugari galduaz, berak nai izan eban lez Kristoren alde odola ixurita il zan. Uratan bertan betiko Guftzale deretxoen lekaimeer. Ama Nagosia il dabe eta beste lekaime batsul gudariak afapau dituez.» Auxe diño Gotzain goragañi onek. Urangoan Y. L.; zerbait geyagapiñiko dogu.

## Terese Neumann ✱

Konnorsreuth, Babiera'ko gazte onen gertaeratzaz izparingi ta aldizkingiak auzez itz egin dabe. Eta era gustietara. Neskatila au, elbari ta itsuturik egoan eta aldirik geyena gogarteetan igaroten eban. 1924'ko Gabon egunez itsutasuna bapatean yoan eta gorputza ibilteko eran osatu yakon. Afezkero ezer yan barik bizi da; egunoro Gure Yauna aftu ta ur tanta batsuka bizi da; yateko gogorik ez daukola erantzute dau, eta alan da be beti pisu bat dauko; 85 kilinguru. 1926'ko Bariku Gurenez esku, oin, buru ta bulafean zauriak agertu yakozan, eta afezkerbariku guztietan zauriok baristatzen yakon. Oñazerik gogoñenak igaroten ditu eta saminiñ negar egiten dabenean, odolezko negañ malkak ixuriten ditu. Zauriok eguen afatsaldetik baturku eguerdirarte irauten dabe, eta larunbata gozean bere senera etorten da. Gauza afigarik ikusirik, Praga'ko Hynek osagile yakintsuak idatzi bat idatzi dau, gertaera oniek goiko indar barik ezin azaldu leikezala egiziatzeko. Osagi au oraintsurarte zinstegabea izan da eta gertaerok ikusita katoliko eginda.



Gertaera afigariok dirala-ta, ikusguren *kofradikoak* beti ugari izaten diralako, egun izentautetan toki gustietatik bidezti asko eltzen dira. Euron artean, ogeigafen gizaldiko «ufe-ixakurak» deitzea merezi daben zineen ugazabak be eldu dira, zetako esan beafik be ez da: basefitaf zintsoai *miloyak* eskintzeko, ango gertaerakaz zine-mintza egiten lagatzeafen. Baña Faulhaber kardenalak esan daben lez, ufe eskintza oneik txaftzat artuta, ezetsiaz erantzun dautse, Orixe da zintso yokatzea!

Onango gauzak gertatzen diranean zer e in beaf dogun? Eleizeak argiro irakasten dausku onango gayetan ertz bietatik, ziñeskeri eta ziñesgogorkeriitk, iges egiteko. Eleizak egizkoa dala agertzeko mirari bafien beafik ez dauko; Goizpafkian (Ebanjelioan) azaltzen diranak nainko ditu, eta geroztik egindakoak aintzat aftu afen, gertaera bateri *alatz* (milagro) itzaz deitu baño len, ardura andiz aztertzen dau. Eleiza zuf ibili eta beaf dan arteraño ixilik egoten da. Auxe dala-ta alemandaf gotzañak, Konnerseuth'era ikertzeak egitea debekau egin dabe, ikusgurakeriari egoak mostuteko.

### Txinan anaidi bafi bat.

Txiña'n anaidi edo Gopatx bafi bat sortu da. Gopatx au txiñaf gogoaz bat eginda egongo da, eta txiñar izakereak dituan beafizanari erantzungo dautso Gopatx bafi onek izentzat «Yaunaren lkasleak» aftu dau. Anaidi onen asmoa ziñestea txiñafen artean zabaltzea izango da. Bazkun onetakoak txiñar elefria ondo ikasten aleginduko dira, ez apaingafitzat, beronen bidez txiñar yakitunen artean ziñesteko egiak egokiroago zabaltzeko baño. Bazkun onetan saftu nai dabenak, pilosopi ta teolojia Pekin'go ikastetxean edo beste ikastetxeen baten ikasiko dabe. Esan beafik ez da bazkun edo gopatx au oso onuratsua izango dala.

### Aita Santua ta lateriak

Begiz gustiok yoten dogun egia da, Aita Santuak egunerik egunera, izal andiagoa dabela laterietan, ziñesterik ez dabenetan be bai. Bera-gaz artu-emonak euki nai izateak auxe egizituen dau. Artu-emonok bafiz ugariuez doazala ufen-go zenbaki onetan ikusi ginke. 1914'n guda aufetik 8 laterik eukiezan euren ordelariak Bafikano'n, gaur 28 dira. Aita Santuak laterietan urte atan ziuuan ordelariak 16 izan ziran, gaur 32'ra eltzen dira.

Izan be oraintsu idazle ospetsu batek esan eban lez: «gofoto gusiiak gora-bera, baztertze gustiok gora-bera, gizadiaren edestian, XX'n gizaldiari «Aita Santuaren eguna» deitu al izango yako». Egiz idatzi eban Rossiland luterotafak: «Lufean dan gizonik alisuena Aita Santua da. 320.000.000 gizonek apalik men-egiten dautsoe».

### Yapondafak bide onera

Brasil'go S. Pablo deritxon laterian, Gontzal deunaren eleizan 120 yapondafek bateoa batera artu dabe. Aita bitxiak uriko biztanle andiki ta ospatsuenetarikoak izan dira. Gido de Toro yosulaun abak, beste abade ta lekaide batsuk lagun zituala, ugutza deuna aftzeko gertau dituez. Eurak dira ba, gogoz lan egiten dabenak, S. Pablo'ko laterian bizi diran 60.000 yapondafen artean.

### Ingalandako katolikoak

Catholic Directory'k Ingalanda'n katolikoer zenbatza argitaldu dau. 1911'tik 1926'rakoa da kañ. 1911'n urtetik asi ziran zenbatza berenberin eroaten. Sei urtean Ingalanda ta Gales'era katoliko biurtu diranak 158.679 izan dira. Katolikoak gustiz 2.143.305 zenbatzen dituz, iges baño 87.445 geyago.

### Boltxebitaren zibilizazi

ñoa ❀ ❀ ❀ ❀

Ango itxulazkunde ostean softutako Tchek txinel-gudarosteak bere amafgafen urtea ospatu dau, eta euren lenengo iru urtetako *abilidadea* bafi emon be bai. Iru urtean eriotzaz epaitu zituzanak onexek izan dira:

Irakasleak, 3 775; Osagileak, 8.800; lkastunak 555.250; abadeak, 1.245; Gudariak, 260 000; Lagileak 192.350 eta 815.000 lugin. Ori iru urtean Añezkero beste ainbeste egin izango dabe, o gitxienez. Eta ori aldeztu eginda, eta lotsabar zibilizautzat dagozan efitetan. Ba, Yaungoiko gandik aldendu ezkero efiak ofetaraxe yotuz dabe. Yesu-Kristo'k irakatsi eban lez gizon anayarentzat anai biurtu beafean, otso biurtz da. Eta gizona otso biurtzen danean baño bati bildufagiagorik ezin asmau be egin leike

# PARKAMENATZAZ

## 11

**L**ENGO zenbakian Parkamena zer zan eta zer ez zan, al bait argien azaltzen alegindu ondoren, gai -osogaritzat parkamenen edesti, irabazteko bete bear diran baldintzaz eta abar zerbait esango dogu.

### Parkamen osoak eta oso ez diranak: ♣

Parkamenaren bidez, parkatzen dana auxe da: Parkatufako oben astunagaitik zoř dan *oben-nekea* eta oben ariñakaitik zoř dana. Parkamen *osoa* irabazten danean zořa oso-osoa ordaintzen da. Au irabaztea ez da ain eřeza izaten, biotza oben txikietatik aldunduta euki bear da-ta, bařa osoa irabazi ez ařen, bere atal bat irabazi leike, bakoitzak biotzean daben gertasunen neuriz. Bařa osoa irabazi ta norbaitek bereala ilteko zoria

ba'leuko, zuzen zerura yoango litzake.

Nekazka edo parkamena osoa ez dan-ean, zořaren zati bat bakařik ordain-tzen da, zořa gitxiagotu egiten dau.

### Bařa zenbat zoř par- katzen da? ♣ ♣ ♣

Gaur Eleiziareno ituraz osoak ez dir-an parkamenak era onetan emoten dira: 100 egun, ala urte beteko parkamenak emoten dira, au edo bestea egiten dabe-nentzat. Itz oneikaz zer adirazten dau? Irabazten dituanak 100 egun edo urte bete gitxiago garbitokian egingo dabela? Sařitan auxe batzuk uste izan leikie, bařa olan ez da. Lenengo gizaldietan Eleiza'n *agiriko* oben-neke edo peniten-tziak ezařtea oi izaten zan, batez be oben astunenak ziranean. Euren zořa ordaintzeko laztasun gogořak egin bear

izaten ziran ta aldi luzean, urteetan be bai.

Ba oin, 100 egun naiz urte beteko parkamenak irabazten diranean, orduan 100 egun edo urte betean agiriko oben-nekeagaz parkatuko zan zoña parkatzen da. Eta oin itandu leike. Baña ze zoñ da 100 egun ala urte beteko agiriko laztasunakaz parkatzen zana? Orixe ez dakigu. Ori Yaungoikoak bakañik daki. Neuria ez dakigu, baña bai, gogo sutuz ipiñitako baldintzak betetan dituenak, geyago irabaziko dabela.

### Nortzuk eta zelan irabazi leikiezan ❀ ❀

Nekazka edo parkamenak irabazteko gai izateko, bateatuta egon bear da, doibazkatu edo exkomuniño barik, agindutako gauza egitean, beintzak azkenengoa egitean, Yaunaren aizkidetasunean, eta emolearen menpeko izan bear da. Eleiz Legediak auxe diño 925'n atalean. Eta gai danak egiz irabaziko badau, zerbait asmo euki bear dau, baita izentautako gauzak emotean, izentautako aldi eta eraz bete bear ditu. (ibid.)

Parkamen osoa, len esan danez, osoa irabazi ezin dabenak bere atal bat irabazi leike, bere gaitasunaren neuriz. (926 at.) Emote orduan ezer aitatu ezik, Gotzaniak emondako parkamenak, bere menpekoak goterkitik kanpoan diranean be irabazi leikiez, baita erbestetik datozanak be. goterkian dagozan artean. (927)

Parkamen osoa, berein-beregi besterik aitatzen ez danean, egunean bein baño ezin leike irabazi, naiz ta izentautako gauzea sañitan egin (928)

Osoa ez dana, berein - beregi ezetz

esaten ezpada, izentautakoa egin ezkeroko egun baruan sañitan irabazi leike. (ib, Edozein parkamen irabazteko autortza eskatzen danean, naiko da izentautako eguna baño zortzi egun baruan egitea, yaunartza, aureko egunean, eta biak izentautako egunetik zortzi egun baruan (931).

Gitxienez ilean biritan autortzen diran kristiñauak, bidezko eragozpenen bat euki ezik, ala egunero, yaunaren aizkidetasunean eta asmo zuzenez, yaunartzen dabenak, naiz ta egun bat edo bestean, aste baruan itxi, parkamen gustiak irabazi leikiez, bañiro oñetarako izentauta egon leiteken autortza egin barik, yubileo edo antzeko parkamenen bat izan ezik. (931 § 3).

Legez bete bear dan gauza eginda (esaterako igandeko Mesa entzunda) ezin leike parkamena irabazi, emotean argiro irabazi leikela esaten ezpada, baña penitentziz ezañitako egite bateri parkamena ezañita ba'dago, penitentzi edo oben-nekea egiñaz, parkamena be irabazi leike (esaterako gure Yaunari ikertzea eginda).

Aita Santuaren asmoetarako otoy eskatzen danean, gogozko otoy ez da naikoa, agozkoa egin bear dau izge edo mutua ez danak, izgeak buruz eginda irabazi leike. Parkamen osoa *oi diran baldintza edo kondiziñoakaz* emoten danean, autortza, yaunartza eta Aita Deunaren aldez otoi egin bear dala adirazten dau. Onanixe aitu bear da igaro dan Irañan Aita Deunak Agurñiza gure Yaunaren aurean esateagaitik, emon daben parkamena.

Izentautako baldintzak, ez yakiñez ala eziñez be, bete barik lagatzen ba'dira, parkamenak ez dira irabazten.

## Norentzat irabazi lei- kezan. ❁ ❁ ❁ ❁

Eleiz legediak 930'n atalean diño, norberentzat izan ezik, beste bizientzat iñork be ezin leikezala parkamenak irabazi. Yakiña, Aita Santuak onetarako eskubidea bai-dauko, baña bere zio az-tunak izango ditu ez erabilteko. Garbitokiko gogo gaxoentzat, Aita Santuak emondako parkamen gustiak emon leikez, emotean ezetz esaten ezpada.

Eta gai lior au, parkamenen edestietzaz zerbait esanaz amaitu daigun.

## Parkamenen edesti laburá. ❁ ❁ ❁ ❁

Parkamena edo nekazka, eleizan era batera edo bestera beti izanda. Azalez baña era batera ez da ezagutu. Onetan iru aldi berezi leikez, yakitunak diñoenez.

Lenengo aldian, Eleizaren II'n gizalditik IV'n gizaldirarte, *agiriko oben-nekeen aringarri* lez agertzen da. Batzuetan Eleizak ezarítako legezko oben-nekea, parkatu egiten zan, siñesteen aldez nekeak igaroten zituezan *ziñopa edo martiriak eskatzen ebelako*, baita *gogo bi zitza* sutsua egiten ebenai begiratuta be, baita *ilizer egozanai* albait lasterén zeruan sartzeko oben - nekearen zati bat parkatzen yaken.

Bigarén aldian, VII'n gizalditik IX'arte, parkamenak emoten ziran, legez egin bear zan oben-nekea, egintza érezagoakaitik *aldatuaz*. Oben-neke gogorén orde, Eleiza ikeritze eta ibildeunak - eta ezaríaz.

Irugarén aldian, XI'n gizaldia ezkerotik oingo eran parkamenak emoteko oitura zabalduten asi zan. Au da oben-neke zerbait ala gustia parkatzea, Eleizako buru ziranak izentautako egite onen bat egiten ebenentzat. Au batez be, *Albitar siñausleen* aurka egiteko eta *Lur Deunetara* aldezten yoateak ugaritzeko. Geroziak parkamenok ugarituez yoan dira, eta Eleiza Amak bere ondasuntegiak esku zabalez kistarén artean zabaltzen ditu, batez be 1300'n ezkerotik nozika nozera Yubileo'ko parkamena irabazteko ainbeste éreztasun emonaz.

Guk biotz ona, gure Ama Eleizari agertu bear dautsogu, parkamenen onurak gogalduaz, kistarén artean egite onak ugaritzeko aukerakoak dira-ta, eta geure onerako emoten dauskuzan ezkerro, eta batez be ain érez eta ugari irabazteko eran, albait geyen irabazten alegindu gaitezana, Ama Eleizaren seme zintso eta geure obenen zoñak ordaintzeko arduratsu agertzen garealarik.

Eta kristiñau epelen iribaeritxo negaríentzat auxe izan leiteke erantzunik ederena.



# KATOLIKO IZPARAK

## Mexiko'ko yasarpena.

Huajuapán (Leon) go gotzain Luis Altamiro Bulnes atrapau ta Mexiko urira espetxeratzeko eroan eben. Bere menpeko kistař zintsoak azka tasuna lortzeko otoitzak egiten asi ziran, eta euron artean Olazar Yulene irakasleak kurutze batsuk erosi zituan, bere eskolako umetxoai, egin zitezuan eskarien gomutaz, emoteko. Iñok oartu ez zeinkean bitarte baten gustiai lepotik zintzilik ipiñi ta ez gau ta ez egunez kentzeko esan eutsen, berak be txikitatik alantxe eroyalata. Orduan kurutze andi ago bat atara ta esan eutsien: —Oin otoi bat egin daigun geure Gotzaina, Mexiko'n lotuta dagoana, azkatu dagien.

Onetan egozala, birao ikaragafi bat entzun zan, Bereala ikastolako atea apurtuta yausi zan. Umeak ez ekien zer egin eta irakasle zintsoaren inguruan bildu ziran, bere soñekoai eutsiela. Amabi gudari, euren buruagaz, sartu ziran, eta indafez ume gustiei kurutzeak kendu, eta piño baten ipiñi ta umiai gañetik igaroteko agindu eutsien. Baña batek be ez eutsen oñakaz ukutu. Orduan asafez eta amofuz, indafez zapaldu eragiteko asmoa artu eben. Au ikusirik anderaño ta irakasle zintsoak, oratuta eukien eskuetatik indafez azkatuta, kurutze ta gudarien artean yafirik esan eutsien: «Zapaldu nagizue, zigortu nagizue, nire Yaun eta Eřege dan Kurutzaldua baño len». Esan ebaneko su-izkiñua (pistolea), gertautu eukon gudari-buruak tiroka erail eban.

Une batzuk geroago ikastolan esan ikusten Olazar gazte bikañaren gorpua, kurutzea besartean ebala, odolez beterik baño.

Baita Pro Juarez aba yosulauna, bere anai Unberto ta beste lagun bigaz, Obrego'n ilteko asmoa eukienak zirala ta, ezer egiztau barik *pustileu* dituez. Aziñaren 13'n Obrego'n erail gura izan eben norbaitzuk; orain yakin da nortsuk izan ziran. Il baño lenago aita Pro Juarez'ek une batsuk eskatu ta, belauñiko yafi zan yaunari bizia eskintzeko, ontzi txiki bat atara ta bertan eukan Oteuna artu eban, kurutzeari mun-egin, bere iltzaleak onetsi ta gudari aũfean besoak zabalik gelditu, zeruko atea idigiko eutsien tjroak artze-

ko. Zartada andia bere eriotziak egin eban, eta obiraltzean 20 000 lagun baño geyago bildu ziran. Gero yakin da Obregon il gura ebenak CROM deritxon bazkunakoak izan zirala. Baña eřubakoak il ařen ez dausie asko ardura, ta auřera dagie.

Orain arte aitzaki bategaitik edo bestegaitik, baña egiz Eleizaren amofuz erail dituezan abadeak bakařik 145'tik gora dira.

## Eleizen Batasuna ta Aita Santua. ❀ ❀ ❀

Txindi onaren ondoan ona ez dana sortzen dan lez, Egizko Eleizaren ondoan, eta beragandik alden duta, protestante zismatiko Eleizak aurkitzen dira. Tamal andia da, Kristo'ren yafaitzale dirala uste dabenok, egizko yafaitzale Eřomatar Eleizagaz alkařtu ez egitea. Egizko agintza eta utseziña dan zinestea bertan bakařik aurkitzen dira ta.

Baña ofetarako bide bat bakařa dago, Eřomatar Eleizaren magalpera gustiak etortea, alden duteaz egin eben okera autortzen dabelarik.

Eleizak onetan gogo bizia agertu dau, baña auzi onetan zuzenez artu leiken bide bakařari yafaituaz.

Protestante ta zismatikoak be batasunaren bear izana ta guraria agertzen dabe, eurak bakařik luzaroen ezin bizi dirala oartu dabelako, euren bañuan banatzeko sustařak gero ta eřo geyago bazter guztietara zabaltzen dituala igafita dagoz ta.

Ořetarako batzařak, autu-aldiak, eta alegin andiak egiten diardue, eta Egizko Eleizari, Eřomatařari, deitu be egin deusie; baña Aita Santua'k argiro erantzun dausie gai onetzaz len be bai, baña batez be ora'ntsu *Mortalium animas* itzakaz asten dan idazki edeřean. «Tamalez—diño—alegiñak egin dira egizko erlejiñoa guzufeřkoakaz alkařtzeko, eta onan gustiak onak dirala siñestu eragiteko».

Eta Gotzaini agintzen dausie gai onetzaz eřiai irakatsi argiak emoteko. Protestanteak-eta, zineste arazoari gařantzi andirik emon barik, mai-

tasun batean alkaftzeko guraria agertzen dabe. Eta Aita Santuak diñotse: «Ezin leike kistař al kaftzerik izan, bakoitzari berak nai dabena si ñesteko azkatasuna laga'tzen la'yako... Maitasuna zabaltzea gauza ona da, baña zñestean sustařa euki beař dau, eta egizko zñestean sus tařa ez dauken mai'asuna, guzufeřzkoa izango li tzaķe». Eta here biotzean batasun au daroyan XI'n Pio'k zio gustieri erantzunaz dei samuř bat egiten dautse egizko Ele'za bakařagaz alkartu daitezcan.

### **Katolikoak eta Egito'ko Eřegea.** ❀ ❀ ❀

Egito'ko eřege Fouad'ek bere menpeko katolikoak oso begi onez ikusten ditu. Berau iker-tzen Delta'ko Gotzain dan Girard yauna yoan da, ta pozik abetaldu eban. Oraintsu berak Aita Santuari egin eutson ikertzeatzaz itz egin eutson eřegeķ, biotzean yosita daukazala adiraziaz, bai egin eutsen ařera, baita XI'n Pio'ren biotz zabal-tasuna. «Nik – esan eban—Aita Santuari adirazi neutson, nire menpeko katolikoak azkatasun osoa daukiela eta eukiko dabela, nire laterian». Eta bertan dagozan Gopatz edo ordenatzaz esan eban:«Nik ezagutzen dot nire eřiaren ona nai da-bela, eta eřiaren onerako lan egiten dabela». Oraintsu Kistař – Ikasbide – Anayen ikastolak ikertu zituan, eta zorion sutsuak emon eutsiezan, umeai emoten dautsien ikasbide eta aziera ona-gaz pozuta.

Onango agintariakaz Egito'ko katolikotarařok lan gogoz eta onuraz egiteko dagoz.

### **Lourdes'ko osatze mira-ritsuak.** ❀ ❀ ❀ ❀

Oraintsu Lourdes'en gertatu diran osatze mi-raritsusak aztartzeko osagiķe batzar bat egin da bertan. Luis Noguera Molins osagiķe jakintsuak onexek aurkeztu zituan: Luisa Mikó Balenzitařa *pott* deritxon bizkar azuřeķo gexoduna; Maria Rosa de la Cruz, Valadolid'tařa bulařetikoaz: Monteagudo Juan, Orense'koa, *pott* gexoduna: Manuela Bueno, Mataro'koa, biizienduna; Ruiz Rosalia, Cartagena'koa *pott* eta kolitis gexodu-na; Sofia Salón, Taragona'koa, bulařetikoduna; Garzia Ildefonsa, Valenzitařa, begietako zuri-zor-na edo fistuladuna; Martínez Bartolomé, Albaze-tetařa eta Aurelio Masaguer, Caldas de Mont-buy'koa, biok itsuak. Oneķg ustiok osoro euren gexoak osatutea lortu dabe Lourdes'en, Ama Mi-arritsuaren bidez.

Kataluņako izpařingi bateķ, izpařok eķaři ditu-anak, diñon lez, Lanfora, eta antzeko osagiķe ta izpařingilariak, onangoķe batzařetara yoan beař leukie, antxe yakitunen artean euren argitasun-ak zabaltzen, izpařingian irakurle gizajoai lelo-keriak sakatzen aztia galtzen ibili baņo len.

### **Protestante baf bide on-era.** ❀ ❀ ❀ ❀

Ogeta amar urtean metodista, protestante «pastore» izan dan, Edwar C. Wallace, katoliko egin da.

Ipar Amerika'ko Oklahoma laterian, bere emazteaz batean, bateo deuna artu dau. Ořeta-rako bidea bakan xamařa izan da. Orain urte bi Dr. Edwar Carr'ek izpařingi eta katoliko aldeķo lan batzuk bialdu eutsozan. Gogoz irakuri ta «argi bi'la» katolikotarař eleizķizunet ara yoaten asi zan, eta ikasi ta ikusiaz, Eleiz katolikotarař egizko bakařa zala, osoan biurtu da. «Protestan-teen arteķo eztabaida amaibakoakaz iguinduta nengoan. Bi'latu gura neban bake ta batasuna ka-tolikotarař Eleizan aurķitu dot». Berak esan dabe-nez, metodistak itunduta dagoz, Eleiz katoliko-tařen izatea aztertzen lanik ez artzeko, eta bestetik katolikotarařak bere ustez ez dabela eu-ren artean beař dan zabalkundea egiten, bestela asko biurtuko litzakezala.

Auxe dala-ta bera alegin gustiaz asi da izpařin-gietan Eleiz-Katolikoatzaz idazten, bere anaya bideķatuak bide zuzeneratzeko.

### **Ameriketari irafitako idaztirik zařena.** ❀ ❀

Ameriketari irafitako lenengo idazti edo libu-rua, Klimako'tar Yon deunaren *Scala Spiritua-lis* Juan de Estrado abak erderaldia izan zan. Idazti onen iyeki bat be ez da ezagutzen eta, Ipar Amerikako Katoliko Edesti Bazkunak, bigařen idaztia beřargitaltzea erabagi dau. Eta idazti au *Doctrina Cristiana* Tenoch, Mexiko'n argitaldua da. Berau Zumařaga'tař Yon abak, Mexiko'ko lenengo Gongotzain izan zanak, eta baita lenen-go irarkola edo inprenta ara eroan eban, Duran-go'ko seme argi, zintzo ta zuzenzaleak atara ta irari eban idaztia da.

Poztu egiten gara, atzerian geure endakideen lanak aintzat arřten dituezala ikusiaz, emengo oztasunak samintzen gaituan legez.

# EKIN...



IN ilabete dala Yaungoiko-Zale' ren asmoetzaz zerbait idaztean esan gendunaz, Kristiñau Ikasbidea ta, bakoitzari bere izkuntzaz eta euskaldunei euskeraz irakastea, Eleizak agintzen ebana, eta sentzunak eskatzen ebana zala, eta ain barik ibili gura ez dabenak, auxe autortzen dabela, eta aurka yarten danari, asmo zuzenez ez dabilenari lez begiratuten yakola.

Alan da be, batsuntzat eurai gogoko ez yaken egia, yateko garatz xamar egiten yake, ta diran lez agertzen dira.

Taragona'ko gongoterki edo artzobispauko Gotzain agur'garriak bertan bete bear diran arau batsuk bañiro emon dituez, eta auxe dala beste barik *A. B. C.* egunorokoari ukondoa sartzea otu yako, osorik atara ezin leiken tokian. Auzi onetan, kistiñau legeatan, bere izena bañi aurrerago ez doa edo-ta, asmo gaiztoen bat eskutatzen dau.

## Gotzain agur'garriak agindu dabena.

Ara Kataluña'ko gotzañak gai onetzaz agindu dabena, beste gauza batzuen artean: «Yaungoikoaren itza Kataluña'n orain arte egin dan legez, bertako izkuntzan geyenez egingo da; eta 1xaunburu (pa'oko) ala arduradunaren ustez, berarizko baldintzak eskatzen daben eleiz eta eretietan, erdereza erabili'ko da».

Ikastetxeetan Kristiñau ikasbidea irakasteatzaz 1921'n emon eben erabagia bariztau dabe. Ikastetxe batsuetan, ingalanderaz eta prantzeraz errezago irakasteko, izkuntz oneitan Kristiñau Ikasbidea eta lenengo otoitzak irakasten asi ziran, eureu yayotzako izkuntzan irakasteko arduratu barik, eta Gotzañak oitura au debekatzen dabe «zearo agindu ikastetxeetan españarai, Kristiñau Ikasbidea eta berariz sendian oitzen diran otoitzak

erderaz ala katalaneraz irakastea, guraso ala ikasleen arduradunen gurariz, sendien geyen oitzen daben izkuntza arautzat artuta». Auxe ber-berau, 1921'n agindu eben; eta orduan erabagi onetzaz Ruiz Amado aba yosulaun eta idazle ospetsuak, Madrid'eko egunoko baten gauza eder askoren artean auxe esan eban: «Argi dago aitu bear dala, espāñar euskaldunei euskeraz otoitz egiten irakatsi bear yakela». Onetzaz Taragona erkiko Gotzainak ez diñoe ezer, izkuntz onetako eririk an ez dagolako.

Eta ondo oartu bear dogu otoitz egitean erabili bear dan izkutzaren arautzat, sendian geyen oitzen dana dala. Alan ba, biztanleak nastauta dagozan erietan (esaterako Bartzelona ta Bilbao'n) erde-rea agindutako izkuntza dan ikastoletan be, katalandar eta euskaldun umeai euren yayotzako izkuntzan otoitzak egiten itxi bear yake, izkuntzau sendian erabilen dabena ba'da. Irakaskintza arauen kalte-zko egizko obena da (diñoguna irakaskintza arauz bakarrik esan gura dogu) Jaungoikoagazko artu emonetan, zer edo zergaitik «amataña» deitzen yakona ez dan izkuntzaz otoitz eragitea» (1) Auxe diño idazle argi onek.

### Agindu au zuzen ez ete dago? ✘ ✘

Onetan Eleiza'ren gurari eta aginduari bakarrik begiratu bear yake. Eta Eleiza Amaren agindu argi ta garbia, bere gurari sutsua, bakoitzari bere ikuntzan zeruko bidea irakastea ez ete da? Yesu-Kristo'ren ikasbidez dakiguna, Beldu edo Apostoluai emondako ele - emaitzaz

(1) Idazki au, 1921'ko Urriña'ko Euskal Esna-lean.

adirazten dauskuna; Trento'ko Batzar exkerotik Eleizak gai onetzaz emondak aginduak argi ez ete dagoz? Orintsu beste batsuen artean Benedito XV'nak *Maximum Illud* eta oin daukagun Aita agurgari XI'n Pio'k *Rerum Ecclesiae*, deritxo idazkian 1926'an argitaldu ebanean et abar, bakoitzari bere elez gogo-gayetaki irakaskintza emon bear yakola ez ete dabe agintzen? Zer egin dabe ba, Gotzain agurgariok Eleizaren gurari agertu baño? Oretarako eskubide t barkuna daukienak, goiko eskubidez eurak ez ete dira? Eta au onan dalarik zer dagokioe kristiñau zintsoei, buru makurtzea eta agindua betetzea baño besterik? (1)

Euron antzera, Eleizaren gurariak betetako agindu bardiñak emon zituzetan oin urte batsuk Madrid eta Iruña'ko eta Gure Gotzain agurgariak, ikastetxeetan bakoitzaren yayotetiko elez otoitz eta eleizkizunak eta abar egiteko agindu ebanean. Agindu eder eta txalogariak baña oneratsua izango litzakezanak. Yaungoikoaren bakarrik ondo eta zearo beteko ba'lira. Ikastetxeak orduan abean laguntzalerik onenak izango litzakez, eta tamalez autortu bear dogu bañ daukiela Kristiñau Ikasbidea erakusteko araso aztunean laguntasun beaña, batez be erri andietan. Au ba, argi dago zuzena dana. Eta gañera,

### Gauzeak berak eskatzen dabena da.

Irakaskintza arazoetan, bakoitzari lengo gauzak beintzat bere izkuntzan irakastea sentzunak eskatzen dabena da.

(1) La Iglesia y el Euskera idastian ikusi litzakez.



Baña alan egin ez da be, gogoentzat-eta kalterik etori ezik, ainbeste ardura ez daukana da, gogo bizitzaren ondoan.

Gogo gayetan Eleizak zerutar egia irakasteko berak bakarrik dauko bearikun eta eskubidea. Eta beste edonok egiten dabenean, bere aginduz eta izenez egiten dabe, naiz ta guraso ta irakasleak izan. Gogo (arimako) irakaskintza ta bizitzari dagokion gustia, izan leiteken barukoen, biozkoen eta samurenak dira; Yaungoikoagaz gogoak daukazan artu-emonak baño baruko, samur eta maminekoagorik ez dago-ta. Beraz esan bearik ez da, bakoitzarentzat biozkoen, samuren eta biotzean sakonen sustraituta dauken izketan irakatsi bear dirala. Eta amaren altsoan, bakoitzak laztan artean ikasi daben izkuntza baño samur, ezitsu ta biotzean sakonago sartzen danik ete da? Beraz, bakoitzari bere izkuntzan gauza oneik irakastea baño bidezkoagorik zer? Orixe dala bariz, nor bide zuzenez akatzik ipiñi leikenik? Zeren izenean? Irakaskintzaren izenean ez. Gogo onuraren izenean, gitxiago. Zuzentasunaren izenean; argi dago besterantza dala. Orduan zer dala gustiai onura eta inori kalterik egiten ez dautson aginduen aurka yari..? Nik ez dot uste, onetan inok ezer irabasten dabenik, gogo etsayak baño. Axeri bai konbeni yako Kristiñau ikasbide azia gogoen azalean gelditzea, ari gañera yausitako Goizpartiko azia lez, sustafik ezaz igertu daiten.

### Eta onez gañera.

Lateriak berak onegaz onura baño ez dau artzen. Kristiñau Ikasbidea biotzean barurago sartu, ta menpeko zintsoagoak izango dira. Naspilzaleak-eta, Kristiñau Ikasbidea ikasi ez dabenen artean ere-

zago aurkitzen dira; berez lez softzen dira euren artean, eta beti oartzen da kristiñau zintsoak, menpeko zintsoenak izaten dirala.

Orixe dala-ta, Kailaluña'n erderaz Kristiñau Ikasbidea ikasten dan ezkeron—iñon Toñas eta Bagez, Gotzain yakintsuak— «jenteak ez daki ala gustiz txarto daki, eta orexegaitik gure luñaldea argitu daben gizon egiz Jaungoikozale gustiak, Kristiñau Ikasbidea katalaneraz irakatsi bear zala sutsu aldeztu dabe» (Tradicio Catala 46'n ing.).

Eta alantxe egin eban Vilatmijana Gongotzañak, Klaret agurgariak, Pugmari, Solsona'ko gotzañak, Morgades Gili Bartzelona'koak, eta Toñas eta Bages berberak 1902'n agintariei idazki eder bat, auxe aldeztu, zuzenduaz. (1)

### Eta amaitzeko. ✚

Morgades yaun agurgariak 1900'ko Eñegenetan idazki bat argitaldu eban, Kristiñau Ikasbidea bertako izkuntzan irakatsi bear zala agintzen. Eta beste barrik zalaparta andia sortu zan. Aldundian itz egin eben era gustitara eta alderdi gustitako diputauak. Eta Gotzain gorañak ain zuzen egoalako, idazti baten bere aginduen kaltez eta alde esan ziran gauza gustiak bildu zituan, nor zuzen egoan irakurleak ikusi zeikean. Idazti au irañi be egin zan, baña argitalzeko egoala bapatez il zalako, bere ondorengo senideak, eztaibada bildurez, eskutauedo apurtu eben irarkaldia. Alanda be iyekien bat gordeta dago idaztitegi baten (Espasa 36. 1070). Gauza ya-

(1) Euron itzak 1917'ko Lotaziña 1 ta 15'ko Jaungoiko Zale'n ikusi leikez.

kingariak idazti onetan aurkituko ziran.

Baña, aurka itz egiten ekin eutsienari onena auxe erantzutea izango zan: «Zapatari, ekiyok *eure* lanari».

Auxe esango geunskio A. B. C.'ri be; bide batez adiraziaz, kristiñau arasoetan

A. B. C.'an dagoan artean, ixilik egotea egokien izango *yakola*...

**G A M A**

OARÁ: Auñerauko zenbakirako zan idazk  
au, baña ezin oartu izan gendun. *Artez*k.

### “Aita Santuaren eguna”

Otsāla' ren 6'n. aukeratu eta 12'n, XI'n Pio Doipuru agurgafiak burestuna artu ebala, sei urte bete dira.

Egun au katolikotā gustiontzat pozgafi ta gomutagafia izan bear leukela esan beafik ez da, baña alan da be, igaro diran urteetan bear dan berotasunaz ospatzen ez gendualako, igafi barik lez igaroten zala, tamalez ikusten gendun. Aurten besteetan baño ospe geyago emon yako. eta urterik urtera andikiroago ospatzea nai genduke.

Izan be, edozer gauza dala, onen «eguna» aren «eguna» edozer eta edozeñen «eguna» ospatzen ikusteaz lotsagafia ez ete da, katolikotafok gure Aita'ren eguna ospatzeko ain epelak izatea? Eta bere nausitasunari dagokionez andikiro ospatzea, Yesu-Kristo'ren ordezkoaren eguna dalarik, geuri ez ete dagokigu?

Bere egunean, bere seme zintso gustiak, poz tutea, bere aldez eleizkizunak egin, ikastoletan goraldtu, berari eta laguntzeko ukar edo limosna biltzea baño gauza egokiagorik zer?

Aita Santua, Yesu Kristo'ren Ordezko dalako maitetu egin bear dogu, maitasun barik bere irakatsi goitafak, bear dan gogoz entzun, eta bere agindu onurakofak, bear dan menpetasun eta maitasunaz, beteko ba'doguz.

Eta gaur ofexen bear izan andia dagola zori-txafez geyegitan agertzen da.

Beraz «Aita Santuaren eguna» aldizkingi, egunoroko, ikastetxe, bazkun eta katolikotar gustiak, pozez, gogoz, sutsu ta seme-maitasunez ospatu bear genduke.

Geure deya ezertarako gai ba'litz, auxe izango litzake: «Katoliko'taf zintso gustiak alkartu gaitez, Yesu - Kristo' ren Ordezkoaren egunean, geure seme maitasuna agertu ta bere as-

moak aufera eroateko gertu gagozala zin egiteko».

### Egun au Eroma'n, Madrid'en, Paris eta Londres'en eta.

Eroma'n, Kapila Sixtina'n Mesa nausia abestu eben, Lokateli kardenala emolea izanik. Bertan ziran, kardenalez gañera, laterien ordelari gustiak eta baita Suezia'ko bakalduna be, eta efomatar eta atzeritar andiki asko.

Madrid'en, asmo onegaz eleizkizun edefa egin zan, eta bertan ziran Efegezen ordeko eta iru ministro be. beste askoren artean. Tedeschini yaun agurgafi eta Aita. Santuaren ordelariak yaupa emon eban, eta antxe zan Espāña'ko Gotzañen buru dan Toledo'ko Segura kardenal agurgafia be.

Lisboa'n be, XI'n Pio'ren eguna andikiro ospatu eben, Karmona Erkaldefiko lendakari eta ministroak bertan zirala. Egin zan batzafean itzaldi edefak egin zituezan, Abel Andrade, Konde ta beste batzuk, Aita Santuaren goralbe-nez.

Paris'en goizean *Te Deum* abestu eben eta afatsaldean Aita Santuaren Ordeleriaren etxean bertako agintari ta andikiak ugari bildu ziran, Aita Santuaren eguna ospatzeko.

Londres'en Bourne kardenal agurgafiaren deyez, Aita Santuaren aldezko katolikotar bazkunak andikiro lenengoz ospatu dau. Bourne kardenalak itzaldi eder bat egin eban, XV'n Benedikto ta XI'n Pio'k bakearen alde egin dituen alegiñak goralduaz.

Polonitafak egun onetan azken ez dira gelditu. Bertako izpafingiak Aita Santu onen goralben andiak egin dituez eta Varsobia'n eta uri andi gustietan yaupa, eleizkizun, itzaldi eta yayakaz



Mutiloa'tar Nikanor Aba agur-  
gaña Deun-Erosle (Santísimo Re-  
tor) anaidikoa, Hieropolis'ko Go-  
tzain izendun autetsi dabena eta  
Barbastro'ko Banakari beldukaña.  
(Administrador Apostólico)

Mutiloa Aba, Iruñan'n (Panplo-  
na) jayo zan 1874'ko urtian. 23 ur-  
tegaz sartu zan Ligorio'tar Deun  
Alpontsa Mirena'k irasitako anai-  
dijan, eta 1901'an jaupari egin zan.  
Navas del Rey'ko lekaidekijen (no-  
vicio'en) irakasle izan da, ikastie-  
tako buru Astorga'n, eta 1916'tik,  
España'ko Anaidiko Lekaiderpuru  
edo Provincial.

egun au ospatu dabe. Varsobia'ko akademian,  
Aita Santuaren goralbenez egin ziran itzaldiak  
radio bidez zabaldu ziran. Ederto!

### Aita Santua ta kardenalak

Kardenal edo yanskordunak, legez 70 dira.  
Orain diranak 66 dira. Gauza bakana; 33 itali-  
tafak eta 33 beste laterietakoak. Batikano'n lan  
egiten dabena 31 dira; oneitatik 26 italitafak  
eta 6 erbestetafak. Kardenalen artean gaztiena  
Seredi yaun agurgaña gabonetan autua eta Un-  
garia'ko gotzain buru dana, 44 urte ditu. Zařena  
bařiz Banuteli yaun ospetsua, 91 urteduna Orain  
sei urte XI'n. Pio Doipurutzarako aukeratu  
eben. Ařezkero 24 kardenal il dira. Pio XI'ak  
egin dituan kardenal bařiz 27. Beraz 39 dira be-  
re ařetiko Aita Santuek aututakoak.

### Pio XI'n lanak. ☞ ☞

Urte gutxitan onek beste lan egin dabenez ez  
da eřez edestian be aurkitzen. Beste edozeñek

ez lango gaitasuna ta osasuna dau lanerako;  
baña zerbait oldosten dabena, bere asmo, ado-  
re ta lanakaz ařituta itxiteko beste lan egiten  
dau. Beste gustiak alde batera itxita, onexek ba-  
kafik aitatuko ditugu. Sei urte onetan 12 gon-  
goterki iragi ditu; 48 goterki edo obispadu; 8  
*Nuñius* izendun gotzaintza; 25 Bikariato Apos-  
toliko edo beldukařak; 37 Prefectura Ap; 8 Ba-  
nakaritzza beldukař edo Administratio Apostoli-  
ca; 5 Ordelari Ap. eta Mixiño bal.

Onangorik eleiz edestian ez dala ezagutu esan  
geinke. Ori bařiz bere ařekoia be ez zala atze-  
ra gelditu. Guda galgafiaren eragospenak gora-  
bera, ara Benedikto XV'ak iragi zituan eleiz erki  
bařiak: Saspı urtean; 8 gongoterki edo Artzo-  
bispadu; 25 goterki; 49 prelatura *Nuñius*; 30 Bi-  
kariato Ap; 9 Prefectura Ap; ta Ordelaritzza 2.

### Pio XI'na ikertu dabene eři buru edo Agintariak.

Bere gain Aita Santutzako zama astuna artu



daben ezkerotik, laterietako buru oneixek ikertu dabe:

1922'ko Epala'ren 28'n, Belgika'ko bakaldun Alberto l'k, bere emazte Efeegin eta seme nau-siagaz. 1922'ko Garagañila'ren 11'n Arjentina'ko Lendakari Albear yaunak. 1923'ko Oñila'ren 9'n, Ingalanda'ko Jorke V'n eta bere emazte Efe-ginak. 1923'ko Azila'ren 19'n, España'ko Efege XIII'n Alpontso'k bere emazte Efeegin eta agin-tariakaz. 1924'ko Bagila'ren 21'n, Ras Tafari Ma-komen Etiopia'ko Agintariak. 1925'ko urte Deu-nez, Kosgrabe Irlanda'ko Lendakariak; 1927'ko Otsala'ren 21'an, Suezia'ko V'n Gustabo Bakal-dunak. 1927'ko Dagoniñila'ren 7'n, Fuad Egito'ko Efegeak; 1927'ko Irañla'ren 27'n, Liberia'ko Er-kaldefi lenda-ariak, eta 1928'ko Urtarñila'ren 12'n, Afghanistan'go Efege ta bere emazteak.

Afitzeko gauza ez da, ainbeste latefi -buru, gudaroste andiak euren menpean dituenak, as-ko katoliko ez diranak, Aita Santua, egia ta maitasuna bere izkilutzat dituana, ikertzen yoa-tea? Nondik sortzen ete da, azaleko indaf barik, efi buruok, beregantzeko dauken *indaña*, len ai-tatu dogun egi ta ontasunetik izan ezik?

### XV'n. Benedikto'ren aintzaz ❖ ❖ ❖ ❖

Aita Santu goragafi onen aintzaz omutagai bat egiteko asmoa aftu dabe. Beronen gorpua dagon tokia, X'n Pio aintzagañiaren ilobi ondoan dago. Batikano'ko Eleiz azpian. An daukan ilobia oso txiroa da. Afizko ilobi bat, ezefa-ko erti lan barik; bertan sartzean idazkun au ikusten dala; *Corpus Benedicti XV*. Oin gauza edefagoa egin gura dautsie eta asmo au berak egin zituan kardenalena da. Euron artean XI'n Pio dago. 1921'n Tacci da Laurenti yaun agur-gariakaz Ratti yauna (gaurko Aita Santua) autu eban.

Diñoenez, izentatzean euron goralbena egin ebanean, Benedikto XV'ak agurtu zituan, eta baita adirazi be, bere ondorengo euretariko bat izango zala. Eta alantxe gertatu zan.

Erti lan bikaña izango da eta egilea Kanonika eritlari ospetsua.

### IX'n Pio'agurgariaren gomutaz ❖ ❖ ❖ ❖

Otsalaren 7'n 50 urte bete dira, Aita Santu goragafi au, ainbeste poz bere bizitzan eta bai-ta ainbeste samin irunisi eban IX'n Pio il zala. Ama Maria Sortzetik Gabia zala ziñesteko egi-tzat iragafi eban, baita Aita Santua, ziñeste ta oitura irakatzietan, utseziña dala be. Bere aldian baita inok luñean euki ba'dau, legez eukan latefi -aginpidea, Aita Santuari indafez ostu eutsoen 1870'ko egun negargarietan. Afezkero Aita San-tuak Batikanotik ez dau urten, bertan espetxe-tuta lez aurkitzen da. Bere bizitza poz eta samin artean igaro eban. gurutze astuna beti iribañez eroanda. Bere eriotzan ilobian 2.000 lira baño geyago ez eralgiteko agindu eban. Bere eriotza-ren gomutaz, obrataruta dagon Efoña'ko eleizan eleizkizun edcfak egin dira.

Bere aldiko gitxi bizi dira; baña bai batsuk. Banuteñi yanzkordun edo kardenal agurgafia, orain 91 urtedun, bere eriotza ikusi ebana; Zou-ghi idazkari berezi izan zana; baita Rinaldo Yachini, zalpurdizain edo kotxerua. Aita Santu onek bere azkenengo yoa-etoñia Efoña'ko ka-leetatik egin ebanean berau izan kotxeru. Au 1870'ko Irañla'ren 8'an izan zan

Gaurko katoliko izparok Aita Santuetzaz, uste barik, bete doguz eta enparauak ufengorako itxiten doguz J. I.

**M'laf G.**

# KRISTIÑAU ELEIZEN BATASUNA DALA-TA

---

Gai onetzaz aspaldi egunorokoetan eta asko itz egin da, eta ez beti egokiro. Guri, beste irakatsietan lez, Eleiza Ama' ren irakatsiak gogoan eukitea dagokigu. *Eta Aita Santuaren guraria irakatsiok zabalitzea da-ta, al bait zeatz eta laburen edesti apur bat, eta ondoren Eleizeak irakasten dauskuna azalduko dogu.*

## Yesu-Kisto'ren eleiza.

Yesu-Kisto Gure Yauna, gu be'erosi eta guri zeruko bidea irakasteko lu'reratu ta Gizon egin zan. Eta bere irakatsiak zaindu eta aginduak betetako Aita Santu ta Gotzañen menpean bere ya'raitza'len bazkuna sortu eban. Bazkun oneri Yesu-Kristo'ren Eleizea deritxo.

Bazkun onetako «ardi ta bildotsen» Buru, Er'oma'ko Aita Santua, Yesu-Kristo'ren Ordezkoa da. Egizko Yesu-Kristo'ren ya'raitza'le izateko, Bere izenean emoten dituan irakatsiak ziñestu, eta Bere agindupean bizi bear da. Eleiza'k irakasten dabena ziñestuten ez dabena,

ziñausle, *ereje* egiten da, eta bere agintaritzatik aldentzen dana, *zismatiko*. Eta onetarikoak, ortu onean bedar txar antzera, beti izan dira, eta Paul deunak diñoan lez, beti izango dira. (I ad Kor. XI - 19).

A'rokerian, ezyakinean eta gaiztakerian dauke euren susta'ra eta ori, zoritxa'ez, ugaria dalako ziñaute edo *erejiak* ugari izan dira. Agustin deunak bere al-dian larogeta zo'rtzi motakoak zenbatzen zituan. Baña zugatzetik aldendutako adaren antzera, berez igartuta gelditu izan oi dira. IX'n gizaldirarterañoakoak beintzat asko ez eben irauni.

## Batasun apurtza'leak.

Banantze ga'rantzitsuena IX'n gizaldikoa izan zan. *Potius* eritxon bat, andinaikeriz Konstantinopoli'ko Gongotzaintzara eldu zan. Sorkaldeko Eleiza Er'omata'ren menpetik atarateko lanean asi zan. Lan galga'ri oneri Mikel Zerulario'k

yañaitu eutson, eta onek be andinaikeriz, Aita Santuaren menpean egon gura ez ebalako, 1054'n urtean, gerkatar eleiza Eróma'ko egizkotik aldendu eban. Tamal andiko banantze au zuzentzeko alegin andiak egin ziran, Lyongo Eleiz batzar ospetsuan (1272'n) eta batez be Plorentzi'ko Batzar gomutagarían (1439'n). Batzar onetan batasuna egiteko itundu be egin ziran, eta alantxe erabagi eben, baña gogozkoa baño itzezkoa geyago izan zalako, Gerkatar eleiza deritxona 1453'n, Gennadios buru ebala bañiro aldendu zan, eta alan dirau. Gerkatar eleiza banatua deritxon onetan Turkia, Grezia, Austria ta Rusia sartu ziran. Baña eurak Eróma'tik aldendu ziran baño zio andiagaz, 1589'n, Mosku'ko gongotzain edo patriarka eritxona, Konstantinopoli'koagandik aldendu zan, eta ara or zatiaren zati bat. .

1700'garén urtean, Kepa Andia eritxon éregek patriarkatza kendu ta «Sancta Synodus» eritxon bazkunaren menpean ipiñi eben ta, Bazkun au Éregea menpean egoalako, ara Rusia'ko Éregea eleizako buru egin da. Olantxe iraun dau 1917'ko itzulaskunderarte, eta añezkero, soñeko zaren antzera, gústiz zatituta dabil, eta eleiza onen atal bat «*Eleiza bizien*» izenaz boltxebitaré ginda. Toki onean sartu da.

### Protestanteak. ✨

Ziñeste batasuna apurtu dabenen artean protestanteak dira geyen zabaldu ziranak. Ziñau utse onek sustarék zabal bota zituan. Lutero Alemania'n 1517'n Aita Santuaren kaltez yaiki zan, eta alegin gustiak egin zituan aibeste urtean, egizko Eleizatik bere eritarék alhenduteko. Oretarako edozeñeri otu leikiona egin eban; ziñeste utsagaz zerura yoañ

leitekela irakatsi, eta yakiña... aizkideak ugari euki bear. Zwinglio'k Suiza'n eta Kalbino'k Jinebra'n óren antzera egin eben. Gero lenangotan Protestanteen aurka idatzi eban Ingalanda'ko VIII'n Enrique'k, bere nasaikeriak Aita Santuak ontzat emon ez eutsozalako, bere menpeko lateña egizko eleizatik aldendu eban. Au 1534'n gertatu zan eta añezkero, ango eleizak agintarien moñoitzan bizi dirala esan geinke.

### Banakuntzaren ondorenak. ✨ ✨ ✨

Egitik alhenduteak ondoren onik ezin leike ekañi ta, Erómataré egizko Eleiza bakañetik aldendu diranak, igali negargaríak batu dituez. Aitagandik alhendutako seme galduaren antzera, etxetik eroan ebezan ondasunak iraun eben artean, euren buruaren yaube zirala uste eben; baña gero eurenz iraupenik ez eukiela oarturik, ugazaba gogoraren moñoitzan sartu ziran: bakoitza bere lateñiko érege ta buruen azpian. Rusia'koak Tsar'en eta orain boltxebitarén moñoi ginda dakusguz, Alemandarék oraintzurarte Kaiser'en azpian eta Ingalandarék be bardin. Ori bañiz, moñoyaren menpean ugazaba yartea baño tentelkeri andiagoa da. Órez gañera zer ziñestu ez dakiela dakusguz, beti aldatzen — eta Bossuet'ek esaten eutsien lez, egia ez da aldatzen — euren artean sortzen diran gai onetzazko auziak erabagi zuzenez, altasunez eta egiz nok erabagi ez daukielako. Gero bakoitzak nai dabén eran, ziñesteko egiak aztartzeko emoten dautsien azkatasunaz, buru añia aburu sortu dira, eta izen baten azpian zenbat mota edo klaseta ko protestanteak diran, Yaungoikoak bakañik daki. Lengo udan Lausana'n egin eben batzaréan 90

erlejiño kistañen izenean 500 ordelari bildu ziran. Eta oraintsu protestante «artzain» batek idatzi dau, berak Kalifornia'ra ostera baten, uri txiki baten 62 talde edo protestante klase aurkitu zituala. ¡Perotxikoak mendian baño ugariago!

Ziñestean eta agintzan batasuna galdu ezkerro, besterik ezin itxaron leike. Aitzen da ba, euren artean batasun-gurea ain bizi egotea; bakañik gauza ez dana berez lagun bila yoaten da ta.

### Profestanteen batasun-lanak. ✂ ✂

Bizi beañak bultzatuta, eta euren arteko zakabanatzeaz ixututa, Kristiñau eleiza gustien batasuna edo beintzat alkartasuna lortu gurarik gogoñ diardue. Eta oingo guraria ez da, 1857'gañen urtean orotarako bazkun bat sortu eben. Geroztik orotarako bazkunak eta batzañak ugari izan dituez. Gañantzitsuenak bakañik aitatuko doguz. 1925'n Stokolmo'n «Eleizen alkartasuna» egiteko bildu ziran. 1927'n, Lausana'n egin eben «batasuna» lortuteko batzañik ospetsuena. Amabost urte berau gertatzen igaro dituez, eta 50 lateri inguruetatik 90 erlejiñoen 500 ordelari bildu ziran. Baña beti lez... yo ta uts... Bakoitzak eurak irakatsi daben lez «aztertzeke azkatasuna» badauko, batasunak bere sustañak non emoteke?... Añautza ustelakaz tortiñla on bat egitea baño gauza gaitzagoa dala non ez dakus?

Orez gañera, iges be zismatikoak eta, eleizkizun andiak batasun ori lortzeke egin dituez eta onetan «ezkatzen», katolikoak lagun dautse Eñoma, Konstantinopoli, Kalzedonia'n egin dako eleizkizunekaz. Euren aldetik zismatikoak Belebrad'en gai onetzaz boskañen batzaña egin eben, 350 ordelari bilduta.

### Aita Santua ta Eleizen batasuna. ✂ ✂

Eñomatar Eleizak, egizko bakañak, beregandik ordu txarean aldentutako seme gaxoei, beti erukiz begiratu izan dautse, eta euren okeña autortu ta biurtzen diranak bere altsoan artzeke, beti gertu dago. Auxe izan da Aita Santuen gurari bizia, eta batasun au batez be XV'n Benedikto ta XI'n Pio gure Eñoma'ko Aitak biotzean dauken gurari bizienetarikoa da. Bere ikaste sakonez gañera, Aita Santu egin aurretik, Rùsia aldera egin zituan osterak arlo au obeto ezagutzeko bide izan yakozan. Bere aldian, eta beintzat bere lakemenez «Malinas'ko autuak» izan ziran, alkar ezagutu ta biotzak uferatzeko Merzier ospetsuak esaten eban lez. Sorkalde-Ikastola Eñoma'n Herbigny gotzain ospetsua buru ebala, eta alde gitxian ainbeste lan egin dabena, Aita onen asmoz irasi zan. Baita bere aginduz eleiz batasun auzi au adiraltzeke, Beneditañen talde batek gogoz lanean diardu. Oraintsu asmo ore-gaz eta andikiro «Mariaren Sorkalde astea» izenez yai ospetsuak Txaptal yauna Paris'ko atzeritañen gotzañak ospatu dau. Baita Urtañila'ren 18'tik 25'ra, Eleizen batasun - alde zortzi eguneko otoitzak egiteko oitura edeña zismatiko, protestante ta katolikoan artean zabaldu da; Pio X'k eta Benedikto XV'ak onetsitako oitura edeñ au Eleiza gustira zabaltzeke, 700 Kardenal, Gongotzain eta Gotzañek Aita Santuari eskatu dautse. Beraz batasun guraria argi dagon gauza da.

Alan da gusti be, Aita Santuak, batasuneko batzañetara dei egin dautsienean, ordelaririk ez dau bialdu, eta tartean sartzea katolikoai galerazo dautse. Era-



bagi onegaz batez protestanteak ařituta gelditu dira. Eta Aita Santuak, zio gustiei erantzunaz,

### Egizko batasun bakařa ✂ ✂ ✂ ✂ ✂

azaltzeko, *Mortalium animos* itzakaz asten dan idazki orokora idatzi dau. Katolikotarařak batzar oreik ezin leiz onetsi, erlejiřo gustiak onak dirala ziřnestea, ořaritzat dabelako. Eta au oker andia da. Yesu-Kristo gurariz «gustiok bat» eta beti maitatu «bear» gareala-ta katolikotarař asko atzipetu dituez. Onetzaz gogoan euki bear dana auxe da. Yaungoikok Berak nai daberen, guk gurtuteko, eskubidea dauko. Eta onetzaz itz egin dabela edestiz egiztu leike. Beraz berak esan dabena ziřnestu ta agindu dabena betetako bearařkuna daukogu. Ori irakas-teko Eleiza bakařa sortu eban gure maitasunez Gizon egin zan Yesu-Kristo'k. Eleiza, aldi eta toki gustietarako da, beraz, bere Buru danaz beti iraungo dau. Eleiza, au agirikoa da. Bere aurka iřoz be gaiztokia garailari ez da izango. Eta ondiřo «artalde ta artzain bakařa»ren aspian bere yařaitzaleak bildu barik ba' legoz Kristo'ren agintza ez zan beteko. Artalde ta Artzain bakařa, Erõma Eleiza ta bere Burua dira. Beraz, Berak beste eskubide ba'leuke lez, bestek ezin leikioe batasunera deitu. O.i ziřnestea bantzea izango litzake eta auxe dala-ta batzar ore tara katolikorik ezin leiteke yogan. Ez da maitasunaren izenean be, ziřnestea sustartzat ez daukan maitasuna guzurařzkoa izango litzake-ta. «Kistar alkartzerik ezin leiteke, bakoitzari berak nai dabena ziřnesteko azkatasuna lagatzen ba'yako. Eta auxe dagie batasun

zaleok. Maitasuna zabaltzea gauza onada, bařa ziřnestean sustara euki bear dau eta egizko ziřnestean sustara ez dauken maitasuna, guzurařzkoa izango litzake». Eta zelan izan leike egizko ziřnesterik gauza garařtzietsuenatzaz, mesa deuna eukaristia eta sakramentuatzař batsuk bai eta beste batsuk ez esaten dabenen artean? Batasuna egizko ziřneste eta agintza bakařagaz bakařik egin leike. Eta ori Erõma'tar Eleizak bakařik daukalako, batasun bakařa, Eleiza onen irakatsien menpean eta beronen agindupean bakařik aurkitu leikie.

Betoz ba, Gustien Aita'gana bere menpean yarteko, eta maitekiro eta besoak zabalik artuko ditu, egindako oker gustiok biotzez parkatuta. Egi oneik Aita Santuan banan eta sakonkiro azaltzen ditu bere idazki ederean. Tokirik ez daukulako aitatu bařo ez ditugu egin, gai onetzaz zer oldostu bear dogun yakiteko.

### Beraz ✂ ✂ ✂ ✂

Goizparkiko seme galduen antzera Aita'gandik aldendu ziranak, euren mořoitza gogoretik urten gura ba'dabe, bere antzera, euren obena autortu eta damatasunez Kristo'ren ordeřko bakařagana yo bear dabe, eta orduan bai *Te Deum* pozgarařena abestu al izango dogula protestante zismatikoko *Seme galduak*, baira Aita'ren etxera biurtu diralako.

Bitartean otoi egin daigun biotzez, bigekatutako gure anayak Egizko Eleiza bakařara Erõma'tar Eleiza katolikora albait lastereñ biurtu daitezana... ludi gustia artalde bat Artzain baten menpean zeruko bidez ibili daiten...

# KATOLIKO IZPARAK

## Mexiko'ko yasarpena dala-ta.

Mexiko'ko agintariak ango katolikotafakaz egiten dituzean basatikeriak ikusirik, XX'n gizal-dian bizi gareanik be ezin leike esan. Katoliki-koentzat ez da legerik. ez zuzentasunik, ez da gi-za-legerik be. Euren etxeetan mesa bat entzutea naiko da, nererik gogofenak eta eriotza bera ezarteko.

Baña gaurko gizabide edo zibilizaziñoa guzur andia dala ezagutzeko, basatikeri ofeik ikusi, yakin eta ixilik egon, eta zuzendu al izan eta, ezerez egitea da. Latefiak eta katolikotzat dago-zanak be ixilik; izparfingiak. edozein gazbako iz-par zabaltzeko gertu dagozanak, ixilik; radioa, ez dakit nok beste bateri ukabilkada edeña emon dautsola zabaltzeko gertu, ta Mexiko'ko katoli-kotaren aurkako gogorkerietzaz ixilik ..

Eta Aita Santuak berak ixiltasun onen aurka argi ta sendaro itz egin dabenean be. eta giza-bidearen izenean aurka agertu danean be.. izi-lik... Orixe da gaurko xibilizaziñoa.

Ezagutu da bai, izparfingi andiak, eta, oin urte datsuk Henry Ford, ospetxuak idazti baten egiz-tu eban lez, yudañen eskuetan dagozala. Bestela ixiltasun ori ezin leike ulertu. Gaur, maitasun, gizabide, eta alkartasun *itzak* agotan gegyegi erabilien dira; eta katolikotafen aldez olangorik itzez eta *egitez* be inon ez dira agertzeu.

Ixiltasun lotsagafi ofen aurka bañiro be Aita bere Santua yaiki da, eta idazkariaren bidez, MichaeWilliams ipar amerikar izparfingi«The Com-monwealth»n azterkariari, berari egin dautson likertzean, idazki bat emon dautso, ango izparfingi-asko al dabela-ta, Mexiko'ko yasarpn lo-isagaria ainbat lastefen amaitu daiten lan gogoz egin dayela eskatzeko.

Eta Aita Santuaren itzakaz katolikotafak es-matzen asi dira eta gustuak batera, gelditu barik, ekin bear dautsogun arloa da. Gustiok anayak gara zer; ¿dala-ta geure anayen miñak ikusirik ez mindu, eta al doguna euren aldez ez egin?

Beljika'n katolikotafak euren asafea yasarpn onegaitik agertu dabe, oraintsu egin dabn ba-tzar baten. Kolonia'n ango katoliko zintsoak berberau egin dabe Budapest'en egunokaz, ber-tako Gotzainburua lendakari zala, batzar eder edeña egin dabe, Ginebra'ko Latefi bazkunari,

onetan alegindu daitela eskatzeko, euren agin-tariei eskatuaz.

Suiza'ko gotzainak gai onetzaz idazki eder bat argitaldu dabe, Mexiko'ko basatikeriak dirala-ta euren asafea agertzeko. Alegindu gaitzean ba gustiok al doguna, eta besterik ezin ba'dogu be, otoi egiten, auxe da beaferkoena ta. Eta ofetara-ko bear izan andia dagola agertzeko, eta ango etsayen amofuaren ezaugafitzat, ara oraintsu egin dabn basatikeria: 1920'n Guanajuato men-dian mexikotaf katolikoak Yesus'en Biotzaren irudi eder bat iragi eben. Onetsi eben egunean 50 000 kistaf baño geyago bildu ziran. Ba, Otsa-laren 6'n, dinamitaz irudi eder au apurtueben. Iz-par lotsagafi onek biotza samñez eta asafez irakiten ipinten dasku, baño Kisto'ren ikasle lez auxe esate a dagokigu: Azketsi egiezu-e Yauna; zer egiten dabn ez dakie-ta.,

## Ziñeste Zabalkundea.

Ainbeste onura egiten dabn bazkun onek 1926-1927'ko urtean ziñeste zabalkunderako ba-tu danen bañi emon dau. Urte ofetan batu dana 41.471.874 lira izan da. Oin trukea dagon mañan 2 073.593 *dolar* urteten dau.

Munduko alde bakoitsak emon dabena auxe da: Europa'k, 16 541.274 lira; Asia'k, 519.109; Apirka'k, 221.768; Amerika'k, 25.941.566; Ozea-nia'k, 448.155.

Latefietatik geyen emon dabn onexek izan dira:

Later Batz edo Estados Unidos.	20 629.181
Prantzia .....	4.350 778
Italia .....	3.003.367
Olanda.....	1.907.638
Kanada.....	1.494 102
Irlanda .....	1.259.179
España.....	1 191 691
Argentina.....	1.117.769
Alemania-Babiera.....	1 871.789
Ingalanda .....	802 132
Beljika .....	708.455

Dakusgunez ipar Amerikak beste gustiak ba-tera baño geyago emon dau. Yaunari eskefak, ziñeste zabalkunderako diru batze au goruntz doa; baño ondiño lan asko egin bear dogu, geu-re izenak eskatzen daskun mañaraño igoteko,

munduan diran zīnesgeen arteko 450 misioai egoki utsin eta sustařak zabaltzeko, asko izan ařen, naiko ez da-fa. Utsune ori betetzea geure eskuetan dago. Ikusi ta ikasi bear dogu, katolikotar gustiontzat zīneste zabalkundearen alde, al dogun neufiz lan egiteko bear-kuna, geure iza-tetik sortzen yakula. Ekin ba...

### Ingalandar Katolikoak aufera.    ◊    ◊    ◊

Protestanteen eleizak, bařuko banakundea da-la-ta, gaizki dabiz, eta ibiřiko be bai, banakun-izearen sustařa euren bařuan daroelako. Auxe dala, dirudienez gero ta geyago katoliko egingo dira, zintso egi biřa dabiltzanak asko dira euren artean be-ta.

Bitartean katolikoak gogor diardue lanean. 1927'n 34 eleiza bari idigi dituez eta 21 ikastola amaitu. Baita beste 20 eleiza eta 14 ikastola egi-ten diardue.

Katoliko bazkunak batez be «Catholic Trusct Society» eta «Catholic Evidence Guidl»ak eten barik lanean diardue.

Azkenengo onek lengo urtean 11.000 itzaldi, geyenak agirian, eraldu ditu. Bazkun onetan len-goaz gañetik 89 lagun izlari ikaslanak egiten asi dira, gero zabalkundeari ekiteko.

### Polonitar Eskintz = Eleiza.

Polonitar agintariak 1791'n Latefi legea emon ebenean, Yaungoiko-Arduraren aintzaz, eřitar danak eleiza bat iragitea erabagi eben. Lenengo ařia 1792'n ipiři ta bertako gotzain-buruak one-tsi eban, efege eta andikiak bertan zirala. Ge-roz, inguruko latefiak indartsuagoak zirala-ta, Polonia 'n banakuntza, zatitzea etofi zan, eta eleiza-lanok ondatuta gelditu ziran. Orain bere buruaren yabetasuna guda ondoren lortu dabe-lako, Lemg'en erabagi dau katolikotar latefi onek Yaungoikoari eskintzaz dautsen zor au or-daintzea. Hlond kardenalaren gorlabenez egin diran yai ondoren, Lemg'enkoakaz kardenal biak batu dira ainbat alditan, geldi egon diran lanoi ekiteko. Polonitafak albai lasteren eskintza eder au bete gura dabe. Ederto egiņa!

### Kolonbia Yesus Biotza goraltzen.    ◊    ◊

Kolonbia latefi orain 25'urte bere agintari zin-soak Yesus Biotzari opaldu eutsoen. Ařezkero bake-bakean bizi izan diralako, eskar onez eta

andikiro 25'n urte au ospatu gura izan ta Auxe dala ta Aita Santuak bertako Lendak-zintso Mikel Abadia Mendez'eri idazki pozge-zuzendu dautso, bera ta bere agintari lages-zorion sutsuenak opa dautsiezala azalitzeko, te onen gomutaz. Agintariak yai au euren artu dabe, eta egun au Latefi-yai egiņaaz gaid-legea emon be, aspaldi eskintzaz iragiten ta duen Yesus'en Biotzaren eleiza albai laster amaitu daiten řindia emoteko. Eleizkizun, ta deun eta itzaldi edefak egin dituez, eta Lendak-riak Eskintza Eleizan, orain 25'urte Yesus Biotzari egin yakon eři-opalbena bařiztu dau

### Agintarientzat ikasbi ona.    ◊    ◊    ◊

Yaunari eskeřak, Amerikar agintariak ka-nafukoak danak ez dira. Bolibia'ko Lendakari-beintzat ikasbide edeřa emoten dau. Legegin-tako batzařak asi diranean, bide zuzenean be-menpeko eřia auřera eroateko, Eleizearen guntza eskatu dau eta bere itzaldi edeřa itz-na-logafi oneikaz amaitu eban: «Ni osoan Yaungo-koaren esku arduratsuetan yarten naz, eta Yaungoikoari eskatzen dautsot, neure agintzari amaitu daidanean, neure abeřiarentzat omu-rtua izan nazela esan daikedala».

Orixen da zuzen yokatzea, Eleizaren laguntza barik, eta bere agintzapean yafi barik oituz eta eřiak zuzentzeko amesa eukitea, amesa be-řio ez da-ta ..

### Idazle katolikoan batza

Alkartasuna ezer egingo ba'da, beařeko au-řta, Austria'ko idazle katolikoak bazkun batza-alkartu dira, egiaren alde zagoitsuago lan egi-tereko. Bazkun onetan orain arte 850 idazle kat-oliko sartu dira. Euren asmoak oso edeřak dira. Lenengoz katoliko egiaren alde itzaldiak erald-itutuez. Itzaldi agirikoaz gañera, toki batetik bes-tera eroan al izateko idaztegi onak eralduteko izango da, kistar antzerkiak idatzi, zabalkund-erako idazti onak egin eta abar.

Esan beařik ez da 'asmo bikaņa, řalogafi eta yafaigafi dala. Gure begiko egiten yak- bateg be, *Yaungoiko-Zale* bazkunaren asmo- be al daben giņoan ofexek diralako; baņa be-*netan* eta *gustiok* lan egiten noz asiko ete ga- ra?...

# KATOLIKO IZPARAK

## IX'n Pio zoriondun iragar- tea dala-ta.    ◉    ◉

Aita Santu goragafi onen eriotzatik 50<sup>gn</sup>. ur-  
tea dala-ta, berau zoriondunen artean izentatze-  
ko egin ziran lanai bafiro ekingo dautsela diru-  
di.

Lenengo lanak egin zituan Kassi yaun agur-  
gafia il zan ezkerotik geldi egon dira, eta orain-  
tsu idazti baten argitaldu dira. Gauza yakingaf-  
iak dakaz.

Diñoenez, IX'n Pio`k iragarle-emaitza euki  
eban. Bein baño safiagotan bere ondorengo  
Aita Santua, Pecci kardenala izango zala iragafi  
eban, eta alantxe izan zan, XIII'n Leon izentzat  
artuta. 1863'n, oraintsu amaitu dan guda ikara-  
gafia iragafi eban, kaisaldefi eta bakaldefien  
ondatzeaz amaituko zala esanaz. Eta alantxe  
gertatu da.

Kassi yaunak mirari lez dakarzan batsuk one-  
kek dira Bein bere eleizatxoan eleizkizun baten  
zegoala, IX'n Pio`k Andra Maria'ren aurfean ixio-  
tuta egoan ezko lodi edo zirio bat bereala ama-  
tatzeko agindu eban. Alantxe egin eben eta zi-  
rria aztertuta, sutauts edo polboraz beteta egoa-  
la ikusi eben,

Beste hein iraduzko arazo batetzaz Aita San-  
tuagaz itz egin bear ebala-ta, emakume andiki  
bat Batikano'ra eldu zan; IX'n Pio`k, au iragafi  
eutsonean erantzun eutsen: «Nik ildakoakaz  
itzik ez dot egiten». Gelazaña zer adirazo gura  
ete eban buru austen. emakumea itxaroten egoan  
gelara biurtu zan, eta lufean ilda aurkitu eban.  
Idoro eutsiezan izkiñuetatik igafi eben emaku-  
mea Aita Santua erailteko asmoagaz etofi zala.

Beste egun baten ume izize edo mutu bat be

re onespena artzen eroan eben. Aita Santuak  
onetsi eban eta gurasoei adirazi be bai mutikoa  
osatuko zala. Gelatik urten ebeneko mutikoa  
itz egiten asi zan. Eta onen antzeko beste yazo  
kun asko be ba'dira-ta, Aita Santu agurgafi au  
goraltzeko lanak auffera yafaituko dabela dirudi.

## Egin = bide edera.    ◉

Aita Santuak España'ko Katolikotar Egin bi-  
dearen zuzendari Segura Saenz kardenal agur-  
gafia autu dau. Toledo'ko Gongotzaintza bere  
gain artu daben ezkerotik, lanean gogor diardu.  
Burutsu, zintso ta eten bako langilea dalako,  
bere lan, onuratsua izango dala esan beafik ez  
dago.

Bera ikertu eban batzorde bateri esan eutson-  
ez, gai onetzaz agindu bafirik beintzat emoteko  
asmorik ez dau, baña bai bete lendik emonda  
dagozanak. Bere asmoa auxe da: «Egin, egin  
eta eragin». Eginbide edera siñez, beti be bai,  
baña batez be ainbeste zeregin dagon aldi o-  
tan.

## Mexiko'ko yasarpena da- la = ta.    ◉    ◉    ◉

Yaunari eskefak, gure anai mexikotafen, al-  
dez. lan egiteko Aita Santuaren deyari erantzun-  
az, katolikotafok alkartzen asi gara. Gustiok  
alkartu ezker, ango lotsagafikeriok galeraso  
edo beintzat gitxiagotzea lortuko geunkela -ta  
nago. Banaka egiten diran lanari yaramon gitxi  
egiten yake-ta, orain arte egin diran lanak batera  
egitea, biderik onena dala argi dago. Ori ezagu-  
turik lengo zenbakian aiatatu genduzenez gañera.





EIBAR: Orbea<sup>7</sup>yaunak ointsu Urkuzu'n iragi dauan eleiza txukuna.  
(Foto Ojanguren, Eibar).

oraintsu Beljika'ko aldundian Rutten Domeka' tar aba goragafiak itzaldi bikaña egin dau, ango agintarietara loizagafikeriok galerazteko zerbait egiteko eskatzen.

Alemania'ko katolikoak be, Reixstg' en euren asafe bizia agertu dabe, eta gizon zuzen gustietara egiten dautse, ango bidebagekerien aurka yaikiteko.

Prantzia'ko Aberi-bazkunak 1.100.000 bazkiden izenean oraintsu egin daben urteroko batzafean, ango basatikerien aurka asafe bizia agertu dabe, baita Aita Santuari idazki bat bialdu dautse bere samintasunean lagundu eta otoi eta egitez lagunduko dautsoela adirazteko Baita beste laterietako bazkunai onetarako dei sutu bat egitea erabagi dabe.

### Radio edo iratizkiña dala-ta.    ❊    ❊    ❊

Gai onetzaz safitan esan dogu katolikoak be-soak idunduta ezin egon geinkezala. Auferapen andla da, eta aufepenak onak ala kaltegañiak izango diran yakiteko noren eskuetan yausten diran ikusi bear. Txafen eskuetan kalte asko

egin leike eta onen eskuetan izugafizko onnrak ekari leikez. Izpafingiekaz gertatzen dana emen be. Auxe dala-ta, ziñeste ta egia zabaltzen diarduenak abegi onez begiratu dautse, eta onein artean geyen lan egin dabena, ezpai barik, gure aizkide Lande aba yosulaun ospetsua da. Oraintsu gai onetzaz *Etudes* aldizkingian idazkai edefak argitaldu ditu, Yaungoikoaren itza biar dan itzal eta benetasuna galdu bafik zabaltzeko iratizkiña aukerakoa dala

Au egiztuteko etsayak daukiezan asmoak ikusi daiguzan. Oraintsu Prantzian «oldozpen azkatasun zaleak» egin daben batzafean erabagi au artu dabe: «Radioatzaz laster emongo dan -legean, erlejiñoari dagokiozan itzaldiak galera so daitezala eskatzea». Ori nonbait azkatasunaren izenean izango da... ¡Areak bai ezagutzen dabe. gitariko askok baño obeto, ziñesteentzat radioak ekari leikezan onurak!

Auxe dala ta, toki askotan emen safi aiatatu dogun lez, katolikoak gai onetzaz gogor diardue. Eta Prantzian batez be. len aiatatu dogun Lande aba bikañak itzaldi goragafienetarikoak gariziman igandero egiten ditu, Radio-Paris'en egurdiko amabietan. Eta idazti bidez lan gogotsu egin be bai bere asmo txalogafiak zabaltzeko,

Eta onetan igas argialdu eben idazti edef bat bakarik aitatuko dogu. «Le Christ dans la Banlieue» Aita Santuak berak irakufi ta txalotu dabena, berau dala-ta ogei eleiza bafi Paris'ko langile artean iragitea lortu dau-ta. Geure zorian agurik sutsuena artu bei aba langile ta euskaltzale zintsoak!

Kanada'n be Denber'ko gotzain agurgafien baipeaz Walhs abak radio-bidez lan edefa egiten diardu. Oraintsu ifatizkin-bidez ikastoletan kristiñau ikasbidea irakasten asi da. Ikastoleta-ko neska-mutikoai astean bein itz egiten dautse, euren gurasoai dei egiñaz, euren semeak gai onetzaz egiten daben auferapenen bafi emoteko.

Baita otsalaren 6'n, Tassi Milan'go kardenal agurgafiak abade ikastetxe bafi baten lenengo aña onestean egin daben itzaldi eder bat, Aita Santuac Batikano'tik urten barik entzun al izan dau, ifatizkin edo radioari eskefak.

Eta gaurkoz, edeskitxo onegaz amaitu daigun: Baudrillart Gotzain agurgafiak, Paris'go Andra Mariaren eleizan igandero Garizuman egiten diuan itzaldiak entzuteko, prantzitar efi txiki batekoak *aparatu* bat erosi eben.

Dakizun lez, esan eban eriko alkateak, bost eta erdiak inguruan itzaldia entzuteko yoango nayatzu.

—Bost eta erdietan. . berandutxo izango da, erantzun eutsen eritar batek, bostetan egiñean itzaldia asten da-ta.

—Asi bai baña... onañio eldu orduko...

### **Yesus Langilearen yaya.**

Lengo urteko garagafilean 5 000 langile italiatar Aita Santua'gana bidezkundez yoan ziranean XI'n Pio agurgafiak esan eutsen, Yesus Langilearen aintzaz esateko Mesa, araso ofetarako dagon Batzordeak, aztertzen ziarduala.

Yai au eskatzeko lenengo lanak Stxutx Suiza'ko. Yesus Langilearen bazkunako buru dan abadeak egin ziuuan.

100 gotzain eta kardenalek izenbetuta eskari ori egin eban. Aita Santuak abegi ona egin eutsen eta baita. beste askoren izenak biltzeko poztu eban. Aita Santuaren abegi onagaz poztuta,

Stxutx yaua gogoz alegindu da, eta igaro dan bagilean 33 kardenal eta 560 Gotzañek izenbetuta eskari berbera e in eutsen. Eskari eder ori ementxe osorik ipiñi gura geunke baña tokirik ezagaitik lagatzen dogu. Friburgo'n egindako batzar baten langile kristiñauak auxe berau eskatzea erabagi eben, baita Kanada'ko 50 000 langilek be. Berberau egin dabe Belgikar langileak, ile batsuk dirala, Lieja'n egin eben batzar gomutagarfian. Onei prantzitar langile katolikoak batu yakez.

Uste danez ba, aletin gustiok Eleizak, Yesus Langilearen yaya ipiñiaz sarituko ditu. Yai begiko au, gaurko langile galbide inguratutakoei egoki baño egokiago izango yakela edonok dakus.

### **Belbila (automobila) Bati- kanoa'n.**

Batikano'ko banakaritzak bertako zaldi-korta'k itxi ta zalpudi ta zaldiak saltzea erabagi dau Auferantzean Batikano'ko yoan-etofi gustiak belbilez egingo dira.

Belbila lenengo Batikano 'n sartu zala 15 urte baño geyago dira. X'n Pio'n aldiñan zan. Atzefiar etxe batek belbil gustiz zuri bat, bezuzaz Aita Santuari eskiñi eutsen. X'n Pio begira egoala lenengo yoan-etofia Batikano baratza zear egin ebanean, bizkor urten eta berealako baten lengo tokira biurtu zan. Orduan X'n Pio'k iribafe itun antzekoaz bere ingurukoai esan eutsen: Ai! zuok len daukadazan obariak uritu egiten daustazuez.

Bere ondorengo XV'n Benedito'k belbila oso gixitan erabili eban. XI'n Pio'k ostera belbila bakarik oitu dau.

Lenengoa bera Gotzain izan zan Milan'go andera batsuk bezuzaz emon eutsen. Lau yarlekukoa zan, baña oitura aurka egiña zan, angoo oitura Aita Santua atze aldean bakarik yoatea da ta. Au yakin ebanean Milan'dafak onetarako egoki zan belbil edefa eskiñi eutsen.

Auferapena, egokia danean, yafaigafi da ta, aldi bafiak gauza bafiak dakaz.

# YAUNGOIKO-ZALEREN KRISTIÑAU IKASBIDE EGUNA

**Y**AUNGOIKO - ZALE bazkunar-n  
asmoa Kristiñau-Ikasbidea eus-  
kaldunen artean zabalizea da  
-ta, orétan ekin ezik, bizitzeko ziorik be  
ez leuke eukiko. Eta bere bizitzaren sus-  
taña or ba'dago, yakiña da bere bizia  
ugariago, sendoago eta onuratsuago  
izango dala, Kristiñau-Ikasbidea zabal-  
tzeko egiten dituan alegiñen neuriz.

## Kristiñau-Ikasbide Eguna. ❧ ❧ ❧

Alan ba, Bazkun au zerbait kaskondu  
zaneko, aldizkingi, idazti eta ofi onak  
eta egutegiaz gañera, urtero, bakoitze-  
an yaupalerki eda artziprestazgo baten  
Kristiñau-Ikasbide batzaldiak egitea era-  
bahi eban. Batzaldiok onuratsuak eta  
askok uste dabén baño onuratsuagoak  
dirala yakiteko, euren izateari begiratzea  
naiko ezpaltiz, Zornotzan asita, Zeanuri,  
Abadiño, Markiña ta Ondañoako artzi-

prestazgoko abade ta eleiztarai itandutea  
baño ez dago. Kristiñau-Ikasbide egu-  
na, gustien biotzetan eta batez be umeen  
biotz samuretan gelditzen da.

## Bide egokia. ❧ ❧

Yayok egitea, bakoitzak berenez bete  
bear dabén eginbeaña gogotsuago bete-  
tzeko bide egokia dala, argi dago. Yai  
onetarako egiten diran gertaketaz eurak  
irakasten dautse, andi txikiei, Kristiñau  
-Ikasbidea gauza gañantzitsu ta beare-  
koa dala. Abade, guraso ta irakasleak  
euren zeregiña betetako alkartuago egi-  
ten dira, eta umeak gogoz eta alkarén  
leyan ikastera alegin gustiak egiten di-  
tue. Eta onetan gogoan euki bear dabe-  
na auxe da: Kristiñau-Ikasbidea ikasi  
bear da, *ikasi bear dalako*, Yaunaren  
agindua orixe da - ta, eta pozkaritzat  
emoten diran sariak, orixe... *pozkarí*  
usaña bakañik euki bear dabe. Olanxe  
egunok egoki ta onuratsuak izango dira.



Eta bizikleta ta ostikolari batzaldiak bes-  
tean zaratatsuak izan ez aŕen, arek baño  
sustrai sakonagoak botaten dituala, gau-  
zan edertasun eta onua zaratatik neur-  
ez daben edonok dakiena da.

### Iñoz baño beaŕekoa- goa. ♣ ♣ ♣ ♣

Kristiñau - ikasbidea zabaltzeko iñoz  
baño beaŕ izan geyago dagola ikusteko,  
mundurik erdiak umekerietan aŕeta an-  
diagoa ipinten dabela oartzea naiko da.  
Gizon asko ume biurtuta ikusten ditugu,  
yolasetan euren gogo gustia dabela, eta  
oŕelakoai entzunda, ontzat dagozanen  
artean saŕiegitan entzuten da Kristiñau  
-Ikasbidea umeen gauza dala, eta ez dira  
konturatzen, euren azaleko kristiñau iza-  
teak, umeak baño Kristiñau - Ikasbide  
gitxiago yakitean, daukala sustaŕa.

Ez yakiña beti da kaltegaŕi, baña ba-  
tez be gaurko egunean gertatzen dan  
lez, etsayak guzua zabaltzeko alegin  
gustiak egiten dituanean.

Edozein zeregiñetan ez yakitetik oker-  
ik geyenak sortzen diran lex, kristiñau  
bizitzan be, ez yakitetik oker geyenak  
sortzen dira.

X'n Pio Aita Santu agurgariak esan  
eban lez, txafik geyenen iturri dan gaur-  
ko gogo-argaltasunak eta yausitasunak,  
Kristiñau-Ikasbidea ez yakitean sustaŕak  
daukoz.

Gaur, beaŕ ez dana eta saŕitan kalte-  
gaŕi dana yakiteko alegin andiak egiten  
dira, eta beaŕ dana ikasteko astirik ez...  
Eta gogo txaez naiz astirik ezagaitik  
izan, ikasten ez dabenak ezin yakin,  
eta yakin ezik, kristiñau arasoetan *lelo*  
izan beaŕ, eta bizitzan auxe baño gauza  
katlegariagorik ez da.

### Lenengo eginbeaŕa.

Saŕitan gai onetzaz, eta toki onetan  
aitatu dituguz Eleiza Ama deunak Kris-  
tiñau - Ikasbidea ikastea eta irakastea  
eginbeaŕik astunen eta lenenak dirala,  
argiro erakusten daben itz gomutagaŕi-  
ak. Gaur baŕiro aitatzeko asmorik eta  
tokikirik ez daukagu. Eta argi dagon  
gauza da. Landara batek sustrayak on-  
do botatea beaŕekoa da, senduto, mar-  
duldu eta igalitsua izango ba'da. Kris-  
tiñauak be, Kristiñau-Ikasbidean sustrai-  
rik emoten ezpadau, landararen antzera  
bere Kristiñau bizitza argala, motela ta  
gatzbakoa izango da. Eta onango lan-  
darai eguzkiak berak be, on egibearen,  
kalte egiten dautse, bere onuraz sendatu  
beaŕean, tximurtu egiten dira-ta.

Batera ta bestera aldatuaŕen, sustrai  
txikiak dituana beti erkin. Eta itzaldiak  
entzun eta edeŕak izan aŕen, argitu beaŕ-  
ean, Kristiñan-Ikasbiderik ez dakielako,  
lausotu baño ez dituez egiten.

Gaur baŕiz olangoak ugari dakusguz.  
Gau iluneau argi barik doazan automo-  
bilen antzeko kristiñau asko ikusten ditu-  
gu. Euren iluna ezagututa, argi bila da-  
biltzanak, baña asi beaŕ dan lekutik,  
Kristiñau-ikasbidetik asi beaŕean, andi-  
kiro egindako itzaldien bila ibiltzen ya-  
tzuz eta umeen antzera itzaldietan esa-  
kera ta ospeari geyago begiratzen dau-  
tse. Eta gertau beaŕ dana gertatzen da:  
Itzaldietatik aŕituta urten, txalotu, baña...  
lengo lepotik burua...

### Auxe dala-ta. ♣

Kristiñau-Ikasbidea zabaltzeko egiten  
dituguzan alegiñean laguntzeko bazkide  
gustiak, ardurarik andiena agertu beaŕ  
leukie. Batzuk otoitz eginda, beste ba-  
tsuk abadeai Kristiñau-Ikasbidea irakas-



ten lagunduta, eta baita sariketan-eta eralgi bear dan dirutzarako zertxobait emonda; batu barik ezin leike zabaldu-ta. Bakoitzak aldabentxoia egin ezkeru, neke asko barik lan edera egingo litzake.

### Amaitzeko. ♣ ♣


Lengo zenbakian ikusiko zendunez, aurten Lekeitio ta inguruetakoa umeen azterketaz egingo da yai ori. Gauza edera izango dala esan bearik ez da, bertako abadeak Kristiñau-Ikasbidea irakasten gogotsuenetarikoak dirala bai'dakigu-ta.

la ba, Lekeitio ta inguruko neska-mutikoak! Ekin gogoz, eta ondo ikasi; eta ementxe aitaturko dodazan *baltzen* ikasbideari yafaitu!

Aurtengo Epala-Yoñala'ko *Illuminare* aldizkingi ederean Frazle Abak diño, be-  
ra Beljika'ren menpean dagon Kongo'n  
mixiolari dala, aurkeztu yakozala bein,  
gazte taldea Kristiñau-Ikasbidea ikaste-  
teko gogo biziaz. Alditxoan ikasten go-  
goz ekinda, talde bat aurkeztu ei yakon  
esaten; itandu niri nai dozun guztia,  
Kristiñau Ikasbidea, Edesti Deuna, Otoi  
liburua, asieratik azkeneraño; eta uts  
bat egiten ba'dot, 100 arain, 20 orein  
-auntz (antilope) zor dautzudaz... Arek  
bai mutilak, *baltzak* izan aren...

Guk utsik egitearen arañik ez dautsu-  
egu eskatuko, naiz ta Lekeitio'n ugari  
izan, baña bai saritxoan bat emon utsik  
ein barik Kristiñau - Ikasbidea esaten  
dabenari!... la ba!....

**GIAIMIA**



(Foto Ojanguren, Eibar).

**Eibar:** Txaurburu jauna Eritegiko balkoitik Aita Santuaren

# KATOLIKO IZPARAK

## Sydney' ko Eukaristi batzaŕa.

Dataŕen Iraĕan, Sydney (Australia'n) egingo dan Eukaristi Batzaŕa, dirudienez, edefenetariko izango da.

Bertako agintariak asmo oneri abegi edefena egin dautsoe, Daniel Levi Aldundiko buru danak batzordeari bialdu dautson idazki eder baten agertzen dabenez.

Egingo dan Batzaŕa begi-begiko egiten yakola, eta munduko 332 miloi katoliko, ta batez be Australia'n diran 1.200 000 katolikoentzat, yazokun au gogo bizitzarako esangura andikoa dala adirazi ondoren diño: «Gizartean gogo-bizitza berpizteko egiten dan gustiari ardurarik andienaz begirutzen dautsoi; ni ba, gizona ogiaz bakafik ez dala bizi sendoro ziñesten dabenen artekoa naz». Eta ziñeskeri ta lurkeria zoritzafez ain indartsu diran aldi onetan, euren uria Batzar au egiteko aukeratzean goraldtu egiten dabela autortuaz, onantxe amaitzen dau: «Eukaristi Batzar onek, Australia' tafoi irakatsiko dausku, abefia aundi ta azke, gogo-bizitzagaz bakafik izango dala».

Ikastetxe Nagosiko burua danak eta Alderman Mostyn uriko endore (alkateak) bardin erantzun dautse, egin yaken deyari.

Baita aŕitzeko gauzea da, metodisten buru danak, eta Yudaŕen *rabinoak*, asmo eder ori gogoz ixalotu dabela ikustea. Batzar ofetara egingo diran bidezkundek ointxegandik gerta tzen diardue. Ain urin egiten dalako, Europa'ik asko ezin yoan al izango da, baña lateŕi gustietako katolikoak euren ordelariak bialtzeko asmo

tan dagoz. Pilipiñetatik eta Ipar Amerika'lik talde andiak yoango dira. Piladelfia'ik, Dougherty kardenala, 250 bideztagaz, berarizko ontzi baten yoateko da. Bardin Kalifornia, Newyork eta beste uri andietatik bidezkunde edefak yoango dira. ¡Dirudienez ba, Batzar ori edefenetariko izango dala esan geinke.

## Mexiko'ko yasarpena —Gizatxarkeri baltza.

Ango ankerkeri lotsagaŕiak aiatatu dituguzanean, bein baño geyagotan aŕituta lez esan dauste: ¿baña ofeik egiak dira? Ori itanduten dabeneri, ze izpaŕfingi irakurten dabene itandu beaŕfik ez dago, ortxe agertzen da, katolikotar buru egiten dabene askok irakurten dituezan izpaŕfingiak, eskuetan artu be ez leukiezala egin beaŕ. Eta au lotsagaŕia ez ete da? ¿Ortxe izpaŕfingi txafak eta erdiz - erdizkoak egiten dabene kalte izugaŕia argiro ez ete da ikusten?.. Egiak ete diran? Ez dira izango ba ¡Oba litzake guzafak ba'lira! Bertatik bialdutako idazki mordo eskutu artean daukodaz, angoro izenbako gaitzakerien bafiri emoten dabeneak, baña gaurkoz gizatxarkeri baltz baten bafiri bakafik emongo dogu, Ipar Amerika'ko aldizkingi batetik laburtuta *Sal Teŕae'k* dakafena.

Mikel Avila yaunak Hearst izpaŕfingi ospetsuen buru dan Ipar Amerika'tafari, Mexiko'ko agintariak toki txafean ipinten zituezan agiri batusuk saldu etuzoan. Agiri ofeitan azaltzen ziran Mexiko'ko agintariak Nikaragua'n yankitafen aurka ebiltzanai emoten eutsezan diru mordoak, baita lau aldun edo senadore yankitafai emon



(Foto Ojanguren, E bar).

**Eibar:** Merzede'ko eruki aizteen urezko estei gomutaz eta omenez egin zan ibildeuna.

dakoak. Mexiko'ko agintarien alde lan egiteko Hearst yaunak agiriok argitaldu zituan eta jayakiña! izugafiko zalaparta sortu zan.

Ipar Amerika'n Mexiko 'ko ordelari dagona Arturo M. Elias Kañes da. Eta onek gustia ukatu eban

Orduan Hearst'ek agiri arein argazkiak(efetratuak) argitaldu zituan. Alan da be, Mexiko'ko Ordeleriak, guzuezkoak zirala-ta, uko bañiro be. Egia yakiteko batzorde bat autu zan. Eta egiztu be bai, Heflin senadoreak, Kañes'en alde lan egiteko protestanteakandik dirua artzen eba-la, baita be, Arturo M. E. Kañes'ek, katolikotaf-en aurka eta, boltxebiari eta Kañes alde egiteko, Jose Kelly ta Robert Haberman'i ilero 600 dolar emoten eutsiezala. Ordeleri edo konsuak le nengotan ukatu eban afen, Johnson, Kalifornia'ko aldunak estututa, autortu eban, egia zala berak 600 dolafoke emoten zituana.

Batzordeak egia yakiteko Mikel Avila'ri deitu eutsonean, argiro esan eban, berak saldutako agiriak, Mexiko'ko agintarien otseñen eskueta-tik artu zituala, baita zin-egin eban, *berari be 10.000 dolar eskiñi utsoezala, Mexiko 'ko*

*Gotzaien izen ona baltzitudearen. Mexiko'ko konsulak berak, Arturo Elias Kañes'ek, eskintza ori eta beste batzuk egin eustazan, zin-eginda esaten baneban, agiri gustiak Paskual Diaz S. I. Tabasko 'ko Gotzain agurgariak izundu edo falsifikau zituala.*

Avilak olakorik ez eba-la egingo erantzun eutson, Gotzain agurgariak agirien bañirik ez ekiela ziur egoalako.

¡Ale baltza da gero ori! Ba, olango aleak emoten dituan zugatza, ¿zelangoa izango ete da?

Ori egiten dabenak!...

### Egazkarien zaindari. ☉

Paris'ko izpafingi *La Croix*'ek diño, pantzetar egazkarien zaindari, Karlos Karnus, abade, egazkari eta ziñopa (martiri) dan zorionduna aukeratu bear leukiela.

Karnus abadea, 1849'n Pejrinhac de Aveyron' en yayo zan. Rodez'ko ikastetxean *pisika* irakatsi eban. 1784'n, aũfeko urtean Montgolfier anayak egin ebena, berak be egin eban. Ikastetxe ondotiik *globo* baten urten eta 480 neurkin igon



eban; Rodez gañean ibili zan, eta 55 minuto gogyan egonda, zelai batera yatsi zan. Ordurako ez zan gitxi gero! gustiak arituta geldituteak adirazten dausku asarkuntza andia euki ebala.

Itzulaskunde aldian, ezaban bere zinesteen aurka eskatzen eutsoen zin edo yuramenturik egin, eta, Paris'en espetxeratu eben, eta 1792 urtean il eben. Ointxe urte bi «Irañako 191 ziño-pa» edo martiriaren artean zorionduen lefoan ipiñi eben.

### Koliseo'ko Gurutz-bidea.

Leonardo Porto Maurizio deunaren aldietatik datoñen oiturari yarañtuaz, ainbeste kristiñauen odolez ezkotutako Koliseo'an bertan Bariku Gurenez Gurutz-bidea egin da. Gizostez izugarria bildu zan eta geldi aldi bakoitzean itzalditxo sutsuak, Karmignani prantzizkotar ospetsuak egin zituan.

Yakiña da 50 urte inguruan gurutza kenduta egon dala, eta iges barien-bari ipiñi ebela. Laitium'go aretx edefaz egiña da. Milan'dar katolikoak, Gurutz-bidea egin al izateko, beste amalau gurutze lengoen antzekoak ipiñi gura izan dituez, eta ofetarako munduko alde gustietatik zuzatzikedeñenak ekafi dituez. Egun batsuk dirala Tosikardenalak onetsi zituan eta euren aufferan, Bariku Gurenez, Gurutz-bide edefa egin da.

### Mixiño Erakusketa Barzelona'n.

Batikano'n Urte Deuna zala-ta egin zan Erakusketa ospetsuak argiro agerizten eban, Eleizak gizabideen alde zingindako lanak, iñok uste leikezan baño andiangoan izan dirala.

Amaitu zanean, ain lan edefak bilduta eukitea, etsaien tentelkeriei erantzunik onena izango zala-ta, Laterano yauregian Mixiño Bilketa sortzea Aita Santuari otu yakon. Asmo ori. egokienetarikoa izan dala etsayak eurak autortu dabe. eta «Journal des Débats»ek esan daben lez, Eleizak

zinestea ta yakintza, gizadien aldez alkartzeten yakini dau eta daki».

Garaitz aregaz pozturik España'ko Mixiolari Batzafaren buru dan Mujika'tar Mateo, Gazteiz'ko Gotzain agurgafi aututa dagonak. Barzelona'n España gustiko Mixiño Erakusketa egitea erabagi eban. 1929'n egingo da. Erakusketa au España'ko mixiolariak egin daben lanaren agerki edefa izango da, eta Mixiño buru dan kardenalak esan dabenez, «Erakusketa onek gogoasmoa bakarrik izango dau, eta ez dabela izan bear saleroste usañekoa, ezta ukar edo limosnak. Mixiñoentzat. batzeko be»; ikertzen dabenak bariña, nai ba-dabe ezer emon, nai dabelako izango da, ez eskatzen yakelako.

Ofetarako egingo dan etxeak 4.000 metro laukitu izango ditu, eta amabost gela bereziak izango dira.

Lanak gertatzeko, batzordeak izentauta dagoz, eta lanean diardue. Erakusketa onegaz barte, Mixiño bazkunak batzar edefak egiteko asmotan dagoz. Gauza eder eta onuratsua izango dala agirian dago ba.

### Yantzi eta era onen bazkuna.

Irlanda'n yantzi eta era onen aldeko emakume bazkuna sortu da. Bereala mile bildu dira. Yantzikeran eta, erabakeria zabal dabilela-ta, ofexen aurka bazkun au sortu da, yantzi, ibilkeria eta egokeran eratasuna zabalitzeko. Bakoitza, aufferzik esango yakona beteaz gañera, ain beañeko dan eratasunaren alde lan egiteko beariuten da. Esan beañik ez da Irlanda baño onatxoagoan be, olango bazkun bat ondo baño obeto etofiko litzakela, egunerik-egunera zabalduz doan emakumeen kristiñau sentzunik ezari esi bat ipinte o.

Bazkun oneri Gotzañaik laguntzen dautse, eta Aita Santuak berariz onetsi dau.




# GOIZPAR - EBANJELIOA

## Berbizkunde ondorengo laugarren igandekoa

(JOAN. XVI, 5-14)

*Jesus'ek Gogo Deuna (Espiritu Santua) agintzen dau.*

 **ALDI ARETAN:** Jesus'ek bere ikaslai esan eutsen: Banoa bialdu ninduanagana eta zuetatik inok be ez daust itanduten ¿nora zoaz? Baña itz oneik esan dautzuedazalako, naigabez bete da, zuen biotza. Baña egia diñotzuet: Zuoi ondo datorkizue ni joatea; joango ezpantintz ba, Gogo deuna ez litzakezue etorriko; joan banadi, bañiz, neuk bialduko dot zuekana. Eta bera datoñenean, munduari agirian ipiñiko dautsoz bere pekatua, zuzentasuna ta epai edo juizioa. Pekatua, Nigan ez daualako siñestu, zuzentasuna, Ni Aitagana noa ta geyago ez nozuelako ikusiko. Epaya (juizioa) mundu onetako nagusia epaituta dagoalako. Beste gauza asko daukodaz zuoi esateko; baña oraindik ezin daikezuez ulertu. Baña Egiadun Gogoa (Espiritu Santua) datorkenean, Berak irakatsiko dautzuez egi gustiak; ez dau ba, berenez itz egin-go, baña Berak entzun dauan gustia esan go dautzue ta etorkizuna agertuko dautzue. Berak aintzatuko nau, Nigandik ar-

turikoa zuoi adierazoko dautzue-ta.

## Berbizkunde ondorengo bosgarren igandea

(JOAN. XVI, 23-30)

*Otoitzaren indara*

. Aldi aretan: Jesus'ek esan eutsen bere ikaslai: egi-egiaz dirautzuet: Nire izenean Aitari zerbait eskatu badagiozue, emongo dautzue. Orain arte ez dautsazue ezer eskatu nire izenean; eskatu ta artuko dozue, zuen poza osoa izan dadin. Auñerago ipuñen bidez itz-egin dautzuet; baña eldu da garaya ta orain ez dautzuet ipuñez itz-egingo; baña argiro azalduko dautzuedaz neure Aitaren gauzak. Orduan nire izenean eskatuko dozue ta ez dautzuet esaten neuk neronek Aitari zuen alde eskatuko dautsadanik, Aitak berak maite zaitue-ta, zuek maite nozuelako ta Aitagandik urten nazala siñestu dozuelako. Bai, Aitagandik urten eta luñera etoñi naz; orain bañiro lur au itxi-ta, Aitagana noa. Bere ikaslak esan eutsoen: Oñ, orain argiro itz-egiten dozu, ez len lez ipuñetan: orain ezagutzen dogu gustia dakizula ta inok ezer itandu bearik ez daukazula; beraugaitik siñesten dogu Jaungoikoagandik urten zareala.

orain mixiolari bi edo iruk egin bear dabena batek egazkiñaz al izango dau.

## Automobilen oneskundera

### Eřoma'n. ☉ ☉ ☉

Eřoma'tar Prantzetke deunari, bere eřuki egintzak ain ospetsu egin ebenari, Eřoma'ar'ak eraspen andia dautsoe. Bere bizitz edeslariak aingeru zaintza'lea beti begi a'fean ikusten ebala diñoe. Auxe dala-ta, eřomatar bilbeltzain edo *txope'arak* euren zaindarizat dauke.

Eřalaren 9'n bere yaya ospatzen da, eta egun ořetan bere izeneko eleiz a'fean ikustekoa izaten ei da, bibel edo automob'ilez yosita egoten dala-ko. Gustiak antxe biltzen dira, egun ořetan emon oi dan onespena artzeko. Lateri, gudari, aldun eta andikienak ugar' egoten dira.

Oingo egunetan ain bea'fekoa daben onespena artzen ainbeste ikustea ezaug'afi edefa da. Eta baita yafa'gar'ia be.

## Mexiko'ko anke'keriak

### dirala-ta. ☉ ☉ ☉

Ango katolikotafakaz egin eta egiten dituezan gaiztakeriak oraintsurarte itxitasunezko esiaz estalduta egon dira, baña azkenean be, Aita Santuaren deyar' erantzunaz, gero ta argi geyago zabaltzen asi dira katolikotaf izpa'ringiak eta ez diran batsuk be bai. Bertako idazki baten irakufi dogunez, igaro daben oñazerik gogofenar'ikoa euren dei eta oñaze sam'inen bar'ia, lagundu leikionen be'lařietara eldu eragin eziña izan da. Yaunari eske'rak ixiltasun-esi ori luf'eratzen asi da, eta agiri be bai, esan diran gustiak egi ga'fatzen atal batsuk bakafik izan dirala. Aldiak baña gauza gustiak argituko ditu eta egia dagokion tokian ipiñi be bai, guzurfaz bizi diranak, diran lez gizadiaren a'fean agertu daitezan.

Lateriak esnatzen asi dira eta Kolonia, Francfort, Magunzia, Akisgran eta Friburgo'n, Eskozia'n, Prantzian, Belgika'n, Suiza'n, Ungari ta Austria'n, Peru ta Kanada'n egin diran batza'arak txaloga'riak izan dira. Munich'en egin zan batza'raean Gonzalez Durango'ko Gongotzain Mexiko'tara izanzan, eta bertan azaldu ziran yazokunak egi utsak zirala esan eban, «bera areto atan egoala egia zan lez».

Eskozia'n egin zan batza'raean entzuletar'iko bat ya'gi ta auxe esan eban: «Ni protestante eta masoi naz, baña Donovan yaunak esan daben

gustia egia dala egiztuten dot. Nik Mexiko maitate dot eta efi onetzaz e'rukirik andiena daukat». Berau urte askotan Mexiko'n bizi izan dana da.

Bertako idazkietatik, amaitzeko, auxe artzen dogu:

Jalisko'n Aita Bera abade za'ra, Mesa esateko soñekoakaz, egoan lez, fusileu eben, eta au agindu eban guda'buruak ilten yoyazala argazki bat atarateko agindu eban.

Lagos'en oraintsu abade bi erail dituez eta euretar'iko bateri besoak apurtu eutsiezan, Mesa geyago ezeikian esan, eta era ořetan zugatz bateri igo eragin gura eutsoen, antxe eskegita eřetako, baña ezin ebala igon ikusirik, bertan erail eben.

Morelos'ko agintariak iraga'ri dau: Katoliko'tar abadeai sakramentur'ik eskatzen dautsona, beste barik, *fusileua* izango dala, baita abadeak euren etxeetan a'ftzen dituenak, zigortuak izango dirala.

Oneik aizkide batek bialdutako idazki batetik artu doguz, eta gustiok egiztau dituz berein-berein ango ba'ri yakiteko asmoz «Dail Express» Ingalanda'ko izpa'ringi protestantiak bialdu dauan izpa'rlariak.

## Guatemala'n bakea. ☉

Berogeta amar urte baño geyago dira Guatemala'ko katolikoak, Mexiko'ko antzera gofiek ikusten bizi izan dirala; Mexiko'ta'fen antzera ikaraga'rifuz yasarp'ena igaro dabe bertako legeak Eleizaren kaltez gogofenar'ikoak izan dirata.

1871'n masoyak agintar'itzara igon eben eta a'ezkero emon dituen legeak katoliko siñestea susta'fetik atarateko emonak dira. 1926'n gobernuaren yasarp'enak katolikotar ziñestea zearo ondatu bear ebala zirudian. Baña Eleizaren etsai amora'tua zan Ore'lena Lendakaria bapa'ten il zan, eta bere ordez agintari-buru Txakon yaun katoliko zintsoa aukeratu dabe. Onek Lendakar'itzara igon dabeneko, gauzak aldatu dira, eta lenen Aita Santuagazko artu-emonak egiteko lanean asi daitela Matos, Paris ta Londres'ko ordelariari agindu dautso. Beraz, katolikoentzat aldi obeak eldu dira.

Ango agintariak Eleizea'ri lege galga'ri bidez egin dautsen gudaren ba'ri, katoliko askoren be'lařietara eldu be ez dira egin, ga'fztoa bere gaiztakeria eskutatzen alegintzen dalako, eta onetar'ikoak agintariak diranean, edonok daki

egjari zabaltzea galerazteko zenbat maratila asmatzen dituen.

Auxe dala-ta, izpar au irakurle askorentzat, baleiteke bari-baria izatea. Alan da be, egia argia da-ta, bere antzera bitarte gitxi bear izaten dau bere izpiak zabaltzeko.

M'iaf G.

---

---

## ERĪETAKO IZPARAK

---

BERMEO'n,

Afaña dakafela egunokaz ugari ta pozak artu ezinda dabiz, batez be afantzaleak. Negute ankeña izan dabe afantzale jasankor oneik, ta euren arpegiak itun egozan negute luzeko afain ufitasuna gaitik, gaur baña afaña ugaritu danean, alai-alai ikusten dira, txinditxu be bai, ta zoriontsu dirala dirudie danak; lengo ituntasunak ba iges egin dautsue ta alaitasuna eura-kandu udabafiagaz batera. Alaitasun au ospatuteko ederto letorkioe antxiñako afantzaleen abesti polit au.

Otsaratxu bat otsaratxu bi

Afaña dator portura beti,  
Bixigu, lebatz, sardiña ta atun,  
Eta beste asko ganetik.

Ludi onetako gauzak aldakor utsak dira-ta gaur zorunez bafe alaitu dagiana biar zoritxafez negafez ikustea ez litzateke afitzekoa izango. Nik ezautzen neban basefitar *pilosopo* batek ondo ekian mundu au aldakoña dana, okefen bat edo berari jazo baekion, esakun auxe eban beti aoan-ta. «Tira gizonak, ez estutu; begiak guztiak ez dira ba egun baten negar egitekoak eta». Basefitar onek ba, egi andia esatebala ta nago: Gernika'n, Bermeo'n, eta abar alai dabizan arte,

MOTRICO'n,

itun be itun dagoz ta batez be Iriondo'tar Iñaki, «Jaungoiko-Zale»en baskidea ta euskeldun zintzoa danen gurasoak, euren seme kutun Iñaki'

ren osasunik eza dala ta. Iñaki euskel idazle zur au ba, Eleizakoak artu:a gexorik txarto egoala izparingiak esan euskuen, baita obarantz einda dagola be, azkenengo izparok baña zoritxafez beste gauzarik diñoskue, obarantzkadatxuagaz arturiko itxaropen gustiak galdu dirala, bafiro oratu deutsola gatzak gogor be gogor eta.

¡Otoi dagiogun ba Yaunari Iñaki'ren osasun alde, ta eskier egon gaitezan, alan biar bada, Yaunak biurtuko dautsola osasuna «Arno Mend-i» adiskideari!

Zoritxafa asten danian negafa ereiten, ez da leku baten bakafik geratuten, ta eldu da...

.YURĒ'ra be,

Iruafizaga'tar Koldobika Aba ereslari entzutsuaren sendira, Madrid'ko uri nagosian uste-ustebako eriotzeak obiratuta gero bere il-baia yayotetxeko ateetatik bafura sartuagaz. Sendikoak ezeze efi guztiak be negar dagitso Iruafizaga Koldobika Aba agurgafiari, negar dagi-tsoela ta biotzez alan be, argi darakusgu ba Jofala'n 24'n bere gogo alde egin ziran ileta edo eleizkarietan izan zan notintzeak.

Bere sendi pozke ta samintsuari lagun gayakoz atsekabeen, batez be geure bafu bafuko adiskide ta bazkide dan bere anaya Gerbasi, Tolosa'ko Maria'ren Biotzeko Lekaide-etxe'ko nausi danari, ta zuri irakurle, otoi bat dasketsegu Iruafizaga'tar Koldobika, Maria'ren Biotzko lekaide zan Aba agurgafiaren gogo alde. (G. B.)

## ERĪOTZEA

Eriotzea gau lapufa lez  
Nundik elduko yabilku,  
Ta noiz gitxien itxarotogun,  
Orduentxe: ¡zazi! yatorku.  
Utsa litzake zafoi bakafik  
Atea yoko baleusku:  
Ikusten danez gazteak dauke  
Zar-zafak beste arisku...  
¡Koldobika'ren eriotzeak  
Ba auxe ber-berau diñosku!...

**Gafbi-nai.**

# KRISTIÑAU- IKASBIDEA DALA-TA

## Kristiñau Ikasbidea ta sentzunak.    ✂    ✂

Gizonak gauzak ezagutzeko, gorpuzteko sentzunak erabiltzen ditu, eta ya-kiña da sentzunak azala baño ez dabelako ikusten, gauzak ezagutzeko zentzunak baño erabili ezik, azalez ikusten dabenetik barura yo ezik, gauza bakoi-tzari azalez agertzen daben gañantzia baño ez leuskio emongo, eta onetan abereen mañan geldituko litzake.

Eta tamalgaria da baña egi argia, gizon asko maña oren inguruan ibiltzen dirala. Eta beste askok sentzunak esaten dautsenai gañantzi geyegi emotearen, adimena sentzunen azpian ipinten dabe, eta adimena, mirabeak aurea artuta etxe-ko andrea bazterean itxiko ba'leuke lez, burua agertzeko lotsatuta lez aurkitzen da. Au be uste dan baño sariagotan ikusi leikena da.

Zer esango geunke tximist-makatz argia sakelean euki ta *posporo* bategaz

iluna argitzea otuko litzakionagaitik? Ba orixe dagi sentzunai bear dan baño gañantzi geyago emoten dautsenak.

Eta egia ezagutzeko auxe bidetzat ar-tzetik oker geyenak sortzen dira. Eta Kristiñau Ikasbideagaz berberau gertatzen da. Ain idaztiño txiki ta apaingari bakoa, azalez, ikusirik, umeentzat lagatzen dabe, eta lotsatu egingo litzakez asko, norbaiten aurean zabaltzen. Eta au lotsagarria ez ete da? Kristiñau Ikasbidea, txikia dala-ta, basteritzen dabena, adimena «eskebetxean» daukala esan geinke.

## Kristiñau Ikasbidea ta afokeria.    ✂    ✂

Aroa, gauza andi, eder, zaratatsuai begira dakusgu beti. Txiki, apalak, eta edertasunik ez dabenak, gauzak ba'dira «ezerezak» eta notin edo personak ba'dira «gixajoak» dira, arokieriak yota da-goanentzat. Eta Kristiñau Ikasbidea be, neuri oregaz neurtzen dabe-ta, gañantzi



andirik ezin emon. Kristiñau Ikasbidea azalez txikia da, baña bere mamiña izan leikenik bikañenatarikoa. Yesus gure Yaunak esan eban lez, zerba-aziaren antzera txikia dirudien arren, egi gustien sustara bere baruan daroana, eta onbide bikañenen igaliak emon leikezan zugatz bakañaren azia da. Baña arokeria guzura, ta guzur gustien sustara da - ta, afoa danak Kristiñau Ikasbidearen edertasunak ezagutzerik ez dau lortzen, Yesus gure Yaunak berak esan eban lez: «Zeruko Aita ta zeru-luren Yaunori, nik aintzaltzen zaitut, gauza oneik afoei estaldu ta apalai agertu dautsozuzalako» (Matth, XI-25).

Auxe dala-ta, apala danak Kristiñau Ikasbidea maite izaten dau, eta afoak dira aintzat artzen ez daben gustiak. Eta afoeria gaurko gaitza dalako, gure Aita gurgari XI'n Pio'k esan eban lez, Kristiñau Ikasbidea ez yakitea «katoliko latzjak itxuzituten dituan orbanik andiena da».

### Kristiñau Ikasbidea ta Deunak. ✠ ✠

Deunak apalak izan diralako, inok baño obeto ezagutu izan dabe Kristiñau Ikasbideak daukan garantzi andia. Gustiak biotzez maite izan dabelako, ain zintzo betetan alegindu ziran, eta bere ikasbideak yaraituta, Kristo'ren yaraitzale zintsoenak izan ziran. Irakastea bariz euren zeregiñik bikañenentzat artu eben. Batsuk aifatuko dituguz.

Agustin deuna Gotzain egin ebenean, lenengoetariko idazlana Kristiñau Ikasbide bat idaztea izan zan.

Boromeo Karlos deunak Kristiñau ikasbidea irakatsi eta baita bere aldi, Milan'go goterkian, Kristiñau Ikasbidea irakasteko 740 ikastola irasi zituan, ore-

tarako 3.000 katekista ta 40.000 ume bilztea lorturik.

Braganza'ko gongotzain ospetsu Bartolome agurgariak, bere gotzaintza itxi ta bizitzako azkenengo zortzi urteak umeai Kristiñau Ikasbidea irakasten emon zituan.

Loyola'tar Inaki deunak, bere Gopatzaren ardura ta gusti be, Erroma'ko umeai Ikasbidea irakasteko astia artzen eban. Berberori egiten eban Xabier'tar Prantzizko gure zaindaria, Goa'n batez be, txiliña artuta umeak Kristiñau Ikasbiderako batzen ibiltzen zanean.

Belarmino zorionduna Kapua'ko Gongotzain eta kardenal zala, bera Kristiñau Ikasbidea umeai irakasten gogoz ibiltzen zan.

Bizente de Paul deunak zartzaroan lugiñen *patois* deritxon izketa ikasi eban, Kristiñau Ikasbidea bear dan onuraz irakasteko.

Sales'tar Prantzizko deuna Kristiñau Ikasbidea umeai irakasten lenengoetarikoa dala edonok daki.

Gerson, yakintsu ospetsua, eta Bossuet, izan dan izlaririk bikañenatarikoak umeai Kristiñau Ikasbidea irakastea gauza anditzat eukien eta euren azkenengo urteak onetan igaro zituezan.

Oneik bai ederto ezagutzen ebezan aureztiak, gero Pio X'k esan zituan iz gomutagari oneik: «Kristiñau Ikasbidea irakastea, egin geinken gauzarik ederena da; itzaldiak egin, aitortzak entzun, eta misiñoiak emon, abade Ikastetxeetan irakatsi eta beste araso batsuk baño ederagoa».

### Kristiñau Ikasbidearen bearizana ✠

Gaur egunean izugaria da. Dotore yantzitako, ta ikastun usañeko asko

ikusten dira, Kristiñau Ikasbiderik ez dabilenak, ez dabelako ikasi, aitzu dabela-ko edo nai ez dabelako, baña batez be arokeriz beteta dagozalako. Oñeik bil-tzen ez da ain eñez, baña orain txiki di-ranai Kristiñau Ikasbideganako maifa-suna biotzetan ereitia ez da zaña be. Axe, alegiña egin bear dala, baña ori barik ez dago ezer, eta alegiñak iñoz gustiz alpeñekoak ez dira izaten.

Bearizanaren neuria ez yakiña da, eta gaur gai onetan ezyakin andia dagolako, iñoz baño alegin andiangoak egin bear ditugu batez be asmo oñegaz *Yaungoiko Zalen* alkartuta gagozan ainbeste ta ain-beste abadek, gustiak aleginduta gauza asko egin geinkezala argi dago-ta. Bes-tela bein Garcia Moreno Ekuador'eko lendakariari aurkeztu yakon lege gizo-nen antzekoak ugarituko yakuz.

Azterketara yoateko oñtura eukan, eta bein Legedian Doktor txapela irabasteko lege gizon bat aurkeztu zan.

Azterketa oso edeña egin eban eta Lendakariak zorionak emon eutsozan baña esan eutson: «Zuk legetan yaki-tuna zareala agertu dozu. Kristiñau Ikas-bidean be yakitun zara? Legeak ondo dakizanak, lenen Yaungoikoarena yakin bear dabela argi dago». Eta au esana: Kristiñau Ikasbideko itaun batzuk egin eutsozan eta ez eban erantzuten yakin Orduan Lendakariak esan eutson: «Gi-zon, egun batzuetan yoan zaitez Pan-tzeskatararen konbentura Kristiñau Ikas-bidea ikasten, ondo ikastea onuratsua izango yatzu-ta».

Amaika olango aurkitu leikez gaur egunean...

GAMA



LAUKARIZ: Egun atan gure-jauna artu eben mutikotxuak

# UDABAÑIARI AGUÑA

*¡Udabaña!...  
Itz pozgaña...  
Pozez beterik  
ipinten dozu  
ludi gustia!  
Lora pitxizko  
itxaropena...  
Negu baltzaren  
alaba artean  
zakust lenena!..*

*Ume samuñen  
iribaña  
dozu mosuan...  
lora gurizko  
yantzi apaña  
soin inguruan...  
Zuk txoritxoan  
ago legunak  
idigi dozuz,*

*euren abesti  
gozoz, lañiak  
poztuten dozuz...*

*Eguzkia be  
zeu ikusteko  
goiztar eiten da,  
ta azpertzeko  
zeuri begira  
egon ondoren,  
tamal-tamalez  
eskutatzen da!..*

*¡Udabaña!..  
Bizitz baña...  
negu latzaren  
itzal azpian  
bizi diranen  
gogoentzako,  
Zoragaña!...*

GABIREL

# KATOLIKO IZPARAK

## Emakumeen kirolak dirala-ta

Italia'ko emakume kirol bazkunak Eřoma'n yai batsuk ospatzeko erabagia artu dau. Aita Santuak bere ordezt'o Pompili kardenalari gai onetzaz idazki eder bat bialdu dautzo bere irakatsi zuzena azaltzeko.

Ondo oldostu ta otoi asko egin ondoren idazki ori idazten dabela diñotso Eřoma'ko Gotzain danez bere tamala uri aretan olango yaya egi-tea otu yakelako, eta ludi gustiko Gotzañen Gotzain eta kistar gustier. Gotzain danez bere nai-gabea agertzeko.

«Eřoma'ko Gotzain lez ezin neike tamal-izan baño, Katolikotasunaren Uri Deun onetan, emakume ta gazteentzako minberatasun eta itzal gitxiago ikusteaz, ziñesgeen Eřoma'n eta ain ondatua egoan Grezia'n bertan izan eutsiena baño be».

Eta Gotzañen Gotzain danez beste ereti ta laterfi batsuetan bere bai-penaz Gotzaña onango yayetzaz agertu eben asaře bizia agertzeko baertuta dagola, bere eretxia aldatu egin dala uste izan ez dayen. Azalez eraldu dabenak akatzak leunten alegindu diran ařen, mamiñez emakumeen asiera kistařagaz alkartu ezin leikez-nak diralako.

Eta dařai: «Eta arimaren lagunkai gustiz urena dan gorputzari, bizkortasuna, edertasun sendoa, osasun eta egizko indar ona dana emoten dautsen gorputz iñarkunak, iñok ezin leike uste izan kristiñau asierak baztertu ala ardura gitxi-gaz artzen dituanik, bear diran toki ta aldietan, sotiltasun eta eratasunaren kalte barik eta ařokeri ta gogorkeria sututeko diran gauzak alden-tzen ba'dira.

Eta emakumeak bere besoak yaso bear ba'di-

tu, beti nai doguna eta eskatzen doguna auxeda: esakariak egin eta on egiteko bakarik yaso daizela».

Irakatsi edeřa ziñez emakume «sentzuna» galdu eta euren izateari ez dagokioezan gizonkerietan tximinoen antzera, gařendu gurarik dabizen gaurko eguneko «gatzbakoentzat»

## Aita Santua ta laterizale-keria

Gaur egunean Latefi edo Estadua sendotu bear dala-ta, toki askotan agintarien alegin gustiak onetaraxe zuzentzen dira. Eta dirudienez beste asmo ta zereginik ez daukiela esan lei. Au Eleizaren etsayen asmoa beti izanda eta gaitz onek Eleizaren aizkidetzat burua egiten dabenen artean sustrayak bota izan ditu. Baña gaur onein artekotzat etsiten diran artean be, gaitz au gustiz zabalduz doa. Eta gauzarik tamalgarriena da. Batez be irakaskintza arasoetan eskubide gustiak eskuratzen alegintzen dira. Ořetarako umeen irakasl intza ta asiera gustia Laterfiak bere eskuetan euki gura dauz, gai onetzaz izate-legez gurasoak eta Eleizak daukiezan eskubideak zapalduta.

Auxe batez be, Italia'n auřera eroateko legeak bertako agintariak emon dituez. Eta Aita Santuak, bere bearkuna ta eskubidea azalduaz, argi ta sendaro lege onein aurka bere asařea agertu dau. Facistak egin dituezan gauza onak ez dituala ukatzen diño, baña, Italia'n Eleizarentzat «uřezko aldia» eldu dala uste dabenak oker dagozala argiro azaltzen dau. Gazteen katoliko bazkunai bizitzen ez lagatzea, eta euren gogo ta gorputzari dagokion asiera gustia eskuratzea Eleiz eta giza-legearen kaltekoa dalako, eskubide osoz gaitzetsi edo kondenatzen





LAUKARIZ: Lenengoz Jauna artu eben neskato-mutikotxuak, euren Jaupari ta Irakasle Jauna'kaz

dau. Bere gai onetzazko itzaldi edera amaitze-ko auxe diño: «Oso negargafiak dira ene seme maite maiteak, esan dautzuzan gauzak, baña askozaz negargafiago da... katolikoak gauza oneik ontzat emon eta txalotutea».

Izan be, ori Eleizak IX'n Pio Aita Santuaren bidez *Syllabus*'ean 39 ta 45'n atalean zearo debekutzen dituan irakatsi galgafiak ontzat emotea izango litzake. Lateña eskubide gustien iturburua dala, eta ikastoletan berak bakarik eskubide gustiak dituala, ontzat emotea katoliko izan gura dabenak ezin leiken gauza da.

«Bere» eskubideak zaindu daizala baña bera banio aufetikoagoak diranen eskubideak «iruntzi» berik, bestela gizartearen eskubideak «zaintze-ko» sortu zan Lateña gizarte ondatzeko izango litzake, eta ofetarako!...

Egiten daben ona txalotu egin bear dogu, ta txarto dagoana gaiztetsi, auxe da Eleizak egiten dabena-ta.

Eta gustia itxuan txalotu baño, obe izango litzake erdeldun esakunak diñona gogoratzea: «Ez egik txalotu ez ta gaiztetsi saspi Gabon igaro arte»...

### Yakitun katoliko baten eungaren urtea

Sasi-yakitun asko aspertu barik ibiltan dira ziñeste ta yakitura ezin leikezala alkartu esaten; eta egia esate «garautiko» ori asmatzeko yakituri andirik ez dala bear sentzunak diñosku. Ziñestea egia dalako, yakintza *egizkoa* ba'da, biok alkarñ aurka ezin egon leitekezala, eguzkiaren izpi txiki ta andia alkarñ etsai ezin izan leitekezala lez, egi garbia da. Baña onetzaz lutzxoago idazteko asmoa daukagu-ta, gaur yakitun katoliko zintso bat bakarik aitatuko dogu.

Berau Charles Telier yakintsu ospetsua da. Beronek yatekoak galdu barik eroateko izozki-

ña asmau eban. Urte askotan asmakizun ofen bila ibili ondoren 1876'n Le *Frigorifique* eritxon ontzian lenengo aldiz Rouen'tik Montebideo ta Buenos Aires'era, izotz-geyan bialdu zituan, se-  
jdi, amabi arito, izko bi ta befogetamar egazti Bialkunau bere Gotzain eta kardenal Bonnecho-  
se'k onestea nai izan eban. Bialdutako yaki gus-  
tiok oso ondo eldu zirala ikustez, amerikafak  
izugarizko afera egin eutsen itxasontziari. Yaki-  
tun onen asmakizun au gustiz onurakoña dala,  
aragi ilak eta arañak galdu barik toki urinetara  
eroateko, gaur edonon ikusi leiken gauza da.

Berak Telier jaunak 1910'n idazti bat bere as-  
makizunaren edestia azaltzeko argitaldu eban  
eta bertan saritan Yaungoikoa'ren izena aitatzen  
dabelako norbaitek egin leikion itaunari erant-  
zunaz beste zio batsuen artean auxe diño: «Bes-  
te aldetik yakintza bideetan barura sartzen izan  
nazanean, Yaungoikoa'ren nagositasuna, eta ar-  
duratasun arifagiaren zabaltasun neurgea, gero  
ta obeto ikusten izan dot». Izan be itsua izan  
bear da ez ikusteko.

Yakintzu ospetsu au txikitatik katoliko zin-  
tsoa, ta beti saritan jaunartzen ebana izan zan.  
1913'n il zan eta 1828'n yayoa izan zalako pran-  
tzetañak bere eungaren urtea aurten ospatzen  
dabe. Orixe da zifñestek lausotuten dituezan  
«gizajoztat» erantzunik onena...

### Mexiko'ko yasarpena.

Efi erukari onetako agintariak euren gaizta-  
keri bidean aufera doaz.

Oraintsu 300 lagun mesa entzuten egozala, gu-  
dari talde bat euren artean sartu ta 95 lagun erail  
zituezan. Orain arte piñon ildako talderik an-  
diena izan da. Gaiztakeri oni kalestañak guda-  
keta usaña emon gura izan dautsoe, baña ez da  
olakorik. Eurak diñoenez, 24 orduan gudaketan  
egon, 95 katoliko il, 40 zauritu ta 47 arapau  
dituez; eta eurak 6 ildako euki dituezala. Zen-  
baki oneik adirazten dabenez gogo gustiz ger-  
tautako erailtzea baño ez da izan.

—Pablo Garcia abadea, ilten egoan bat autort-  
za entzun ebalako beste bari: erail dabe. Il ba-  
ño lenago eskua ebagi. tamiña ta begiak atara  
dautsoez.

—Amadiño, Potosi'ko goterkiko txauburu

izan dan Mendez aba, eta Nieves aba agustin-  
daña tiroka erail dabez.

—Baita egunokas era'il dabe Juan Longinos  
abadea, Atotonilko'ko erian.

—Gogorkeri lotsagarai onein aurka Irlandako  
agintariak euren asafea agertu dabe.

Beste izpar samin bat. Mora del Rio Mexiko'  
ko Gotzain -Buru 1910'a ezkeretik izan dana.  
Ipar -Amerika'n erbestetuta il da. 74 urte euka-  
zan. Texasko Gongotzañak bere aintzaz giz-iru-  
di bat ipinteko asmoa agertu dau Mexiko'ko az-  
kenengo izparak diñoenez Kañes'en ministro ba-  
tek egin daben itzaldian, bakeak egiteko gogo  
lez agertu dau, eta dirudienez benetan, baña  
itzak itz dira-ta, egiteak esango dabe egizkoak  
diran ala ez. Etofiko al da ba ain beafokea dan  
bake ori.

### Izpar pozgaria.

Igesko Yoñala'ren 7'n il zan deun entzuteaz,  
26 urte bakañik zituala, Irutasun Deuneko Aba,  
Eukaristi Deun-deune'ko Domingo eritxona. Be-  
rau Aratia'ko biotzean, Dima'n yayoa izan zan,  
eta bere izena Itufate'tar Domingo. Ba ondino  
urtea baño bere eritzatik ez da igaro-ta, bere  
bizitza italeraz argitaldu dala iragarita ikusi do-  
gu. Bizitz edesti oneek 200 ingozki edo orialde  
ditu eta izen au daroa; «Cenni biografici del Ser-  
vo di Dio P. Domenico de SS. Sacramento». Aba  
Antonino dell Assunta, Def. Gen. Trin, du  
bere egilea. Euskeldun eta euskaltzale onen bi-  
zitza daukaguzan izparetatik atara dogu-  
nez, gauza edefa da. Nok esango eutson be-  
rari, eta zelan uste izan, orain iru urte bere Ef-  
oman ezagutu, eta itz egin gendunean, iru urte  
bafu bere deun ospeko bizitza idatziko zala!...  
Bizitz ori euskeraz albait lastefen argitalduko  
ba'litz a ze poza artuko geunken!

Bere Gopatzeo anayen artean gure ele mai-  
tea biotzean daroenak ainbat ezagutzen dituguz  
eta uste dogu ainbeste on egin leiken bizitz ori  
laster euskeraz argitalduko dabela. Nozbait ge-  
ure artekoak, duin diranak beintzat, goraltzen  
ikasi daigun...

**M'taf G.**

# KRISTIÑAU-IKASBIDEA IKASI, EGIN ETA IRAKATSI

## Gai garantzitsua.



KRISTINAU-IKASBIDEAREN eguna ganean dogu-ta aurko zenbakietan esan dogunari zerbait ezari bear dautsogu.

Gayak garantzitsuak diranean, iñoz bear dan bestean ez dira azaltzen, eta gauza garantzisurik bada, Kristiñau-Ikasbidea da. Berau ondo ikasi ta bere irakatsiak betetea gizonarentzat betiko zoriona irabazteko bearekoa da.

Geyegi ez dogu iñoz be ikasiko; ondoegi iñoz be ez dogu beteko; eta, ondoegi iñoz ikasten ez dana, laregian iñoz be ez da azaltzen. Beraz gai oneri, ekin eta ekin eta... beti ekin bear dautsogu, gogaikari egiteko bildur barik.

Auxe berau egiten da egunoro gexo bateri, osatzeko nai-ta-ezko daben, osakaya artu eragiten dautsogunean. Berari zor dautsogun maitasunak, artu eragin arte ekitera bultzatzen gaitu. Gogoko osasuna, emengo zorion eta betikoa lortuteko bearekoa dan osakai au, beafizana dauken gustiei emoten alegindu bear gara.

Eta nor da gaur egunean onen bearezana ez daukana?

## Kristiñau-ikasbidea eta kistar bizitza.

Maitatzen ez dana, ez da luzaroan, eta batez be neketsua danean, egiten. Eta ezagutzen ez dana ez da maitatzen. Eta beraz kistar bizitzaganako maitasuna zabaldu gura ba'dogu, nai ta ezkoa da kistar bizitzaren ezaguera zabaltzea. Eta edonok daki kristiñau bizitzaren ezaguerarik ezin euki leikela, Kristiñau-Ikasbidea ondo ikasi barik. Beraz kistar bizitza zabaldu gura ba'dogu, geure indar eta alegin gustiaz, bakoitzak bere aldetik, Kristiñau - Ikasbidea zabaltzeko alegin egin bear dogu.

Gaitza kentzeko sustarera yo bear da. Eta X'n Pio agurgarñiak esaten eban lez, gaurko gizarteko gaitzaren sustara Kristiñau-Ikasbidea ez yakitea dalako, Kristiñau-Ikasbide ori irakastea da, lenen egin bear dogun lana.

*Yaungoiko - Zale'ren zeregiña auxe da, batez be Kristiñau-Ikasbide egunak oretarakoxe eraltzen ditu.*

## Zeregiñik bikañena.

Kristiñau - Ikasbidea irakastea, artu geinken zeregiñik lenena, eta bearekoe-na dala bein baño geyagotan Aita San-

tuaren irakatsi argiakaz egiztu dogu toki onetan; eta argi dago, zeruko bidea irakastea, irakaskintza gustien gañetik dagola, irakasten diran goiko egiak beste gustien gañetik dagozalako. Beraz, au baño zeregin on, goragari, onuratsu, ta bikañagorik ez dago.

Erlejiñoko egi sakonak aldeztan alegintzen diranak be, Toñas eta Bagés Gortzain yakintsuak esaten eban lez, Kristiñau-ikasbidea irakasten dabenak baño aintza geyago Jaunari bear bada ez dauise emongo, eta eretxi onetakoa izan bear eban gure anaikide ta Deun goragari Loyola'tar Iñaki edo Eneko deuna, yazokun onek adirazten dabenez: Trento'ko Batzar ospetsura bialdu zituan urtzizilari edo teologo yakintsu, Salmeron eta Lainez aba yosulagundikoai agindu eutsen, Batzar deun aretako itzaldiak egin aurretik, Kristiñau-ikasbidea uriko umeai irakasteko.

Naiko adirazten eban ba, zeregiñ au gustien gañetikotzat eukala.

Yesu-Kristo'ren ikasbidea.    ✨   ✨   ✨

Baña ori naiko ezpalitz, Yesu-Kristo gure Yaunaren ikasbideari begiratu dayogun. Ikasbide onen lenengo Irakaslea Bera izan zan. Bere lur-bizitzako azkenengo iru urte ta geyago Ikasbide ori, eten barik, irakasten igaro zituan. Eta bere inguruan biltzen ziran gustien artean, Beretzat kutunenak umeak izan ziran. Umeak bere ingurura eltzen ziranean, edo amak onesteko ekarten eutsoezanean, Bere ikasleak, gogaikari izan zaitezkeza uste izanik, agiraka egiten eutsen. Baña Yesu-Kristo'k oker egozala adirazten eutsen esanaz: «Itxi umeai Nigana eltzen, zeruko bakaldefia eurena da-ta».

(Matth. XIX, 14) Baita Yerusalen'go yauretxean, umeak: «Gora Dabid'en Semea» oyuka asi ziranean, idazkari ta yaupari buruak, asařetuta esan eutsoen: «Oneik diñoena entzuten dozu?» Yesus'ek erantzun eutsen: «Bai beintzat, ta zer? ez dozue irakuri iñoz iragarki au: Itzik ez dagien eta bular'eko umeen agoz goralden osoena atarako dozu?» (Ib. 15, 16) Yesu-Kristo'k, umeak Bere kutun izan zituan, eurai oben bidea emongo eutsenak gogorkiro zematu zituan, euren aldezko maitasuna, Beretzako lez artuko ebala esan eban; eta eřege egin gure ebenean, iges egin eta gizonen txaloetatik iges egiten ebanak, pozik umeen txaloak artu zituan.

Beraz Bere Biotzarentzat gauza begikoagorik egin ete geinke umeak geure inguruan batu ta maitasunik andienagaz eta eroapenez eurai ain maite zituau Irakatsi goitar'ak euren biotzetan ereitea baño? Ez dot uste.

Azi ona erain daigun.

Biotz gustietan, baña batez be umeen biotzetan azi ona erein daigun. Oldoskun ona, azi ona da. Oldoskun ona ludi gustiak baño aldintsuago da, oldoskun, pentsamentu, onetik maitasun ona sortzen da; eta maitasun onetik egite onak, eta egite onak egizko Yaungoiko maitasunaren ezaugaririk onenak dira.

Gizona oldoskunak eta maitasunak darabile; eta bakoitzak bere maitasun aña bakařik balio dau. Eta maitasun au Yaungoikozkoa danean, gizona gorengo malara yasoten dau. Oldoskun oneik eta maitasun au Kristiñau-ikasbidean bakařik ikasi leikez. Ikastea bakařik ez dala naiko ba'dakigu, baña ikasi barik maitasunik ez dagola be bai. Beraz adimenean eta biotzean Kristiñau-Ikasbidea sartzen



alegindu bear gara, Kristiñau-Ikasbidea irakatsi, eta berau maitatzen be irakatsi bear dogu, burutik biotzera eta biotzetik egitera zuzendu daiten.

### Irakatsi daigun ba!

Idaztiño pitin orek, yakitun gustien idaztiak baño, goragoko eta argitsuago dan yakitura baruan dabelako.

Irakatsi daigun! guzuraren kaltez egin geiken lanik ederena Kristiñau-Ikasbidea biotzetan sustartzea da-ta.

Irakatsi daigun! gizona gogoz eta oituraz bariztatzeko Kristiñau - Ikasbidea bearekoa da-ta.

Irakatsi daigun! idaztiño ori, toki gustietan, aldi gustietan eta gizon yakintsu naiz ez diranentzat bearekoa da-ta.

Irakatsi daigun! Yesu-Kristo ta Bere Eleizaren guraririk biziena orixe da-ta.

Kristiñau-Ikasbidea  
ez dakianak, **ikasi;**  
dakianak **egin** eta,  
edonon **irakatsi;**  
Olantxe yakingo dogu  
gustiok zelan bizi...

Eta... zelan il be bai.

**GAMA**

Auferagoko zenbakian argitaltzeko zan idazki au.

# ¡EDERTO! ETA YAĀRAI!...

Yaungoiko-Zale'n Kristiñau-Ikasbide egunean  
bildu ziran umetxoei

*Lekeitio ta  
inguru eři,  
Yaungoikozale  
zintsoak,  
Yai eder baten  
bildu dituez,  
euren neska-  
mutikoak.*



*Itxas-azalen  
iřibařea,  
dirdiz mosuan  
dabela,  
goiko poztasun  
zoragařiaz  
ase dabe yai  
edeřa.*



*Eleiz abesti  
gozo, goitařak,  
itzaldi sakon,  
samuřak,  
Kistar Ikasti  
itaun-erantzun,  
alkař-izketa  
bizkořak...  
Biotza pil-pil  
ipiņi dausku! . .  
¡Arek erantzun  
pozkořak!...*

*Ikasbidea  
nagosientzat  
itxaropena  
guretzat,  
orixe da ba  
bide bakařa  
euskaldun zintso  
danontzat.*



*Au ikusirik,  
biotz-biotzez,  
irakasle ta  
ikaslak  
zorion-txaloz  
goraltzen ditu  
Yaungoiko-Zale  
-Bazkunak.*



*Ekin olantxe  
ume kutunok,  
Yařai lan eder  
ořeri,  
Ikasi eta  
Egiņaz emon  
aintza gustion  
Yaunari.*

GABIREL

1928'ko Bagila'ren 3'n.

## Aita Santua'ren abadegin- tzako 50'n urtea dala-ta.

Datafen urteko Lotazila'ko 21'n XI'n Pio'k lenengo mesa emon ebalá befogetamar urte betetan dira.

Aita Santua 1857'ko Oñila'ren 31'n yayo zan, beraz ila onen azkenengo egunean 71 urte betetan ditu. 1879'n lenengo Mesa esan eban. Eta lenengo yaupa au Efoma'ko Karlos deunaren eleizan emon ebalako, Milan'go Gongotzain egin ebenean be bere lenengo yaupa antxe bertan esan gura izan eban. Eleiza oneri dautson eraspen au dala-ta. bere abadegintzaren 50'n urtea andikiro ospatzeko sortu dan Batzordeak, lenengo yaupa esan eban oirdi edo altarea atxurdiñez bafistatzea erabagi dau. Ofetan eralgiko dan txindia, ludi gustiko katolikoen artean batzea gura dabe, eta asmo onegaz Gotzain gustiei idazki bat zuzendu dautse.

Idazki ofetan goterki bakoitzak gitxiendik 3000 franco emotea nai dabe. ez da asko be, eta uste izanik askozaz geyago bilduko dala, altara ori bafistautá gelditzen dan enparaua Aita Santuari bere abadegintzako 50'n urtea ospatzeko egingo daben yaupa saritzat emongo yako.

Esan bearik ez da gustiok pozik zertxobait emongo dogula.

## Kardenal Segura yauna- ren lan goragariak. ☉

España'ko Gotzainburu baña langië sutsu ospez eldu zan maña ofetara. Bere lenengo izetan bere asmoa «egitea ta eragitea» izango zala adirazi eban eta baita laster bete be. Garizima'ko itzaldiak berak Toledo'ko Gotzain-eleizan egin zituan, gizoste izugafiab ertara eltzen zalarik. Eta ondoren Yoñala'ko 25'n asi ta Oñila'ren 13'arte, misiñoak Prantzia'ko ego aldean dagozan españafai emoten ibili da. Ardi galduen antzera, euren zineste ta oitura onak galduta, gogo laguntza barik aurkitzen dira 400.000 inguru, eta ofeixen artean zeruko bidea irakasten ibili da. Beragaz 40 mixiolari ta abadetan eroan ditu, eta beste ainbeste lekaime ta emakume, zabalkundea egin ta mixiñoak gertatzeko. Ogetasei uritan mixiñoak emon dituez. Eta kardenal Segura yauna bera egunoro itzaldien bat egiteko mixiñoetara eltzen zan.

Izaldia egin ondoren, urengo egunean goizeko bostetako bera autortokian yafiko zala iragarten eban. gero gure Yauna emoteko. Esan bearik ez da oso lan onuratsua egin dabela, eta maitzeko, Fourviere'ko Andra Mari'ra mile lagun ingurugaz bidezkundea egin eban.

Goraldú daigun Artzain onaren yafaitzale zintzo au!

## Beljika'ko Katolikoak.

Moreau aba yosulaunak euron lanatzaz idaztitxo bat argitaldu dau eta bertakoak dira emen ipinten ditugun zenbakuntza gustiak.

Ango katolikoak ondoen eralduak eta erañenak dirala edonok dakiana da. Buruz eta egitez gustien aufetik doazala esan geinke.

Beljika'ko biztanleak 1920'n 7.465.782 ziran. Oneiatik 100.000 protestanteak, 15.000 beste ukurtzetakoak eta enparauak katolikoak dira,

Abadeak 6.030; lekaideak 9.858, eta lekaimeak (monjak) 44.653

Langië-bazkunak gizon, eta emakumezkoenak, ederto eralduta dagoz. Gasteen alkartasunak mardul irauten dau eta azkenengo udan egin eben batzafean bildu ziranak ikusita, etsayak eurrak be arituta gelditu ziran ainbeste mila gaste bilduta ikusteaz. Neskatien bazkunan 70.000 dagoz. Lugin bazkunak ugari dira. 1.870 parokitan 190.000 lugin alkartuta dagoz.

Egin-eginean be, ointxe Oñila'ren 28'n Lovaina'n urteroko batzar orokofa egingo dabe eta bertan, euren idazkari orokor dan abade yakintsu Luitgaerens yaunan omenez, yai andiak egiteko asmotan dagoz, zeregin latz ofetan 25 urte daroazalako.

Mixiñoen aldez be, Beljika, Alemani ta Prantzia'n urengo dago. Gaur egunean 1.250 mesako edo yaupari diranak, 350 anai, eta 1.150 lekaime dagoz mixiñoetan lanean. Eurai laguntzeko bazkun asko dagoz, eta gai onetzaz zabalkundea egiteko 28 aldizkingi argitaltzen dira.

Egunokaz irakuri dogu Langië gasteen katoliko alkartasunak IV'n Batzar orokofa ospatu dabela Brexelles'en, eta bertan 4.000 batzarkide batu dira, eta ori, wallonen artekoak batu dirala bakafik, flamenkarakaz batera egin ba'eben bafiz, beste ainbeste baño geyago izango ziran. Ez dagoz ba lobeljkar begikoak! .. **M'tar G.**

## Zine onaren aldeko lenengo batzar orokora.

Zinea yudar diruzaleen eskuetan yausi dala-ko, eta agintariak euren lenengo bearkuna, oitura onak zaintzeko ta txafak bastertzeko bearkuna, betetako ardurarik ez dabelako euki, eta kristau eta katoliko askok be, ez ikusi egin, eta jafaibide txafaz saritan indafa emon dautsoelako, gaiztakeriko ikastolarik lotsagafien ta lotsabakoen biurtu da.

Baña, belutxo baño ezpada be, olan ezin yafaitu leikela-ta, gogo zintzodun gizonak esnatzen asi dira. Ordua zan! Eta artu daben indafaz, zikinkerizko oleatu oneri esia ipinteko, zine ona zabaltzea beafekoa dala ikusirik, katolikoak batzar orokor bat egitea erabagi dabe. La Haya'n amar latefitako ordelariak bildu dira igaro dan Yořala'ren 23'tik 25'era, asmo ori auřera eroateko.

Beintzat, latefi gustietako ordelariakaz zine katolikoaren landola batek batzar onetatik urten dau. Alegin gustiaz zine txafari guda egin eta onak zabaltze! orain arte banan egin diran lanak alkartzea, erabagi dabe. Bazkun ofetan gizon zintso ta kementsuak sartu dira-ta, euren lana onuratsua izango dala uste dogu. Baña gustiok lagundu bear dautsoegu, agintari ta gurasoetatik asita, goiko ta beko gustiok.

Aita Santuak berak oraintsu Italia'ko katolikotaf gizonei egin dautsen itzaldian esan dautse, katolikoak zine ta ifatizkin edo radioan afeta ipinten asi dirala, eta lizunkeriaren aurka egin bear dan lana lenengoa dala.

Onetan Prantziako gotzañak asi dira Pařoki-zinea zabaltzea nai dabe, adimen eta biotzetan zine txafak egiten dituan kalteai eutsiteko. Bayona'ko Gotzañak abade ikasleak zinea erabilten ikastea nai dau, Kristiñau Ikasbidea ta Edes-ti deuna ta, irakasteko lagungafi izan dayen.

Rouen'go Gongotzañak, be irudiak dauken indafa ikusirik eta txafak egiten daben kalteari eutsiteko, saldu-erosietarako ta bitartekotzat izan daiten «Goterkiko irudi edo proyeziño landola» ipintea erabagi dau.

Beste biderik ez dago ta, zerbait egiteko ortik asi bearko da.

## Gazteiz'ko goterkia mixiñoen alde.

Beste gauza batzuetan be buru da baña, onetan be aufenen doala esan geinke. Gotzañaren zaintzapean lan gogoz eta onuraz egiten daben Gazteiz'ko, Landola edo sekretariadoari eskefak mixiño aldeko lanak ure goterki onetan indar andia aftu dabe. Zenbaki batsuk bakafik ipiñiko ditugu.

Abadeen Mixiño Bazkunan 1 332 bazkide dagoz. Igesko urtean 75 Mixiño egun ospatu ziran, 453 itzaldi egin ziran eta 40.000 lauerlekotik gora batu zan.

Ziñ-ste Zabalkunde Bazkuna 535 pařokitan ipiñita dago, ta iges 117.970 lauerleko batu ziran. *Kepa Apostolu deunaren Bazkunak* 61.176 lauerleko. Bazkun onen asmoa mixiño erietan bertako abadeak ugaritzea da.

*Aurtzaro deuna* deritxon bazkunak igesko urtean 37 521 lauerleko batu ditu. Oin urte bi baño 6 500 laurleko geyago.

1.922'n Mixiño aldez Goterki Landola au irasi zanetik 1.621.775'75 lauerleko mixiñoetarako batu dira; 300 Mixiño Egun ospatu dira, ta egin diran itzaldiak 1 595.

Ain lan edefa egin dabela ikusirik, «Propaganda Fide»ko lendakariak, Aita Santuaren eta bere izenean, zorionak emon ta txalorik sutsuenaz poztuteko, Gotzain agurgafi ta lan eder onetan alegindu diran gustie idazki edefa zuzendu dautse. Yaungoiko Zale'ren zorion agufik be-roena be artu beye, ta jekin lan onuratsu ta beafeko oferi!

## Izpartxoak.

—Tchao Pilipe, il zan txiñar gotzañaren ordez, Aita Santuak beste txiñar bat izentau dau. Berau Txeng yauna da, Konstantini Doipuru ordelariaren idazkari izan dana.

—Gibbos Baltimore'ko kardenal izen zanaren goralbenez lpař Amerika'ko katolikoak, bere girudi eder bat iragitea erabagi dabe. Ederto, ondo irabazita dauko-ta.



—Mixio lan gustien zaindari, Xabier'tar Pantzezka deunaren antzera. Ume Yesus'en Terese deuna izentau dabe.

—Katoliko mixiñoak Txina'ko guda dala-ta

euki dituezan kalteak 100.000.000 lira ingurura eltzen dira.

—Aita Santua'k, Portugal'eko Eleiz artu-emo-netako itunbena oraintsu bañiztau dabe.

**M.'taf G**



# KATOLIKO IZPARAK

## 1925 'ko Urte Deunaren edestia. ❁ ❁❁ ❁

Ofetarako izentau eben batzordeak, izen one-gaz 1300 ingoski inguru dauzen idaztia Aita Santuari eskiñi dautso.

Idazti onek iru atal ditu: Edestia, zenbakuntza ta Eleizburuaren idazkiak.

Emen zenbakuntzaz zerbait ipiñiko dogu.

Urte Deuna'ko Batzordeari iragarita Eroma'ra bidez-kundez urte atan eldu ziran bideztiak, Europa'tafetan bakarik 582.234 izan ziran.

Europa gustitik, Italia sartu barik 162 bidez-kunde gustiz, 149.000 bidez-tigaz. Italia'tik baka-rik 534 bidez-kunde, 400.000 bidez-tigaz. Europa'tik at eldu ziranak 11.300.

Zenbaki oneitan ez dira sartzen, Eroma'tafak ez da banaka ta talde txikietan Yubileoa irabaz-teko eldu ziran bidezti ugariak.

Urte aretan bidezti geyen Eroma'ra bialdu zituan latefia Alemania izan zan, 42 000 bidez-tigaz. Biga-ren España, 25.000'gaz eta iruga-ren Prantzia 23.000 bidestigaz.

Bidez-kunde ugariena Italitar Gastedi Katoli-koena izan zan, 30 000 bidezti bialdu zituan da; Skrouts katolikoak 8.000; Lonbardia'ko langi-leak 8.000 eta Yugoslabitaren bidez-kundean 4.300.

Batlikano'ko baratzetan iragi zan Mixiño era-kusketa, 750.000 lagunek ikertu eben.

Idazti onek atal bat dakar Aita Santuak Urte atan egin eban lan ikaragarfia azaltzeko. Batez beste, egun bakoitzean talde bi edo iruri itz egin eutsen, eta lau edo bost itzaldi egin zituan egu-nak izan ziran.

Irañan bakarik 88 taldek ikertu eben.

Bere adiñeko batentzat lana da gero!

## Izparingi onen aldez.

Toledo'ko kardenal agurgafi Segura yaunak izparingi onen aldez idazti edera argitaldu dau.

XIII'n Leon Aita Santu agurgafi eta X'n Pio'ren irakatsi edefak aitatuaz, argiro azaltzen dau ezer egingo ba' dogu katolikota'rok, izparingi onen aldez eta txaren kaltez lan gogoz eta go-gor egin bear dogula. Au argi dagon gauza izan

añen askok ez dabe ulertzen edo ez dabe nai, eta orixe dala ta ainbeste epelkeri katolikota'ren artean somatzen da. Eleizaren etsayak eskuar-tean gure kaltez darabiñen izkiñu edo armarik kaltegarrienetarikoa izparingi txafa da. Eta onen aurka izparingi ona bearekoa da.

Gizona eretxiak darabiñe eta eretxiak bakoitzak gogoz irakurten daben izparingienak, geyenez, izaten dira. Gaur ainbeste eretxi oker, eta gauza garantzitsuetan be bai, katolikoaren artean ikusten ba'da, izparingi txafak kezka barik irakurten oitu diralako ez ete da izan? Eta ez da gauzarik lotsagarriena, katoliko batentzat, bere ziñeste eta oitura onai zear'etara baño ezpada be, guda egiten dautson izparingiarri lagundu ta irakurtea?

Au zuzendu egin bear da, lotsagarikeri au geure artetik baztertu eta ofetarako auxe da bide egokiena; Izparingi txafai eta txar antze-koai guda gogor egin eta onai txindiz, zabal-kundez eta irakurtez lagundu. Auxe katoliko gustiok egingo ba'gendu ondiño be, a zelako tximur aldia artuko leuken izparingi txaren sakelak!...

## Eurak diñoenean!... ❁

Safitan aitatu dogu protestanteak euren ar-tean, ziñesteko gai astunenetan be aitu ezinda dabilzala. Au betiko ta euren asieratik dauken gaitz izasko'fa'da, buru asko dituanen oñak nora yo ez dakiela ibiltea berezkoa da-ta. Eta Aita Santu, Kisto'ren Ordezko baka'garandik aldendu ezkerro, dabilzatan lez ibili bear. Aitu eziiñ au oin-tsu garatsago eginda, euren «Otoi idaztia» ospetsua bariztatzea dala ta ez dala. Euren artean talderik onena Eroma'ra begira dago, eta zelan-bait alkartzeko gurari biziaz. Eta burutan aña aburu euren artean ikusten dabelako, urtero as-ko katoliko egiten dira.

Oraintsu Wetminster'en egin daben itzaldi baten auxe argiro aitortu dau Exeter, Oxford'eko irakastetxeko lendakari dan «artzaiñak». Ara bere itzak:

«Ingalanda'n gauza bat gertatzen da, entzu-leontzat oargafia, eta garbiro ta osoan zeuori

esateko beartuta nagola uste dodana, naiz ta Erroma 'tar Eleiz katolikotafen goralbenerako izan. Urtero katoliko egiten diran ingalandañak amabi miñatik gora dira, eta oneitatik geyenak ingalandar eleizatik aldentzen diranak»... ¡Yaun-goikoari eskerak!...

## **Kurutze deuna Iperburuan**

### **(Polo Norte).** ❁ ❁

Ixoztokietara globoz yoañ ziran Nobile ta lagunak Aita Santuari iragañi eutsen Orñila 'ren 24'n, goizeko ordu bat eta erdietan, berak emondako kurutzea Iperburutik igaro ziranean amain emon eta itxi ebela, yatsi ezin ziralako, eta Aita Santuak eskerak emonaz bere poza radioz iragañi eutsen. Poz au gero, *Italia* globoa ekaitz batek ondatuta yausi zala yakin, zanean samñiez nastau zan. Gizon asartuak gaizkatzeko alegin andiak egin dira, eta Yaungoikoak naiko al dau gustiak gaizkatzea (1). Beintzat gauza edefa egin eben, eta lufaren Yaubearen ezaugarñiak, bere ertzetaraño eltzeaz poztu egin bear gara.

### **Sendi zorionekoak.** ❁

Alemaniaiko eri baten, aítak eskintzak egiteko egin dan eleizkizunean, bere emazte ta iru seme-alabak bildu dira, gustiak lekaime edo lekaide, (prañe ta monja). Aita prantzizkotar sartu da, ama beneditar lekaime, semea beneditar, alaba bata beneditar eta bestea lekaime irakasleen artean. Ara sendi zorionekoa!

Ara oin baltzen arteko beste izpar pozgañi bat.

Massi Apirka'ko erkian bertako agintari danak bere *amalau* seme ugutzau, bateau, eragin ditu. Agintari au oso zuzena da eta Lavigerie

(1) Alegin andiak egin eta neke ta arisku askoren ondoren, batzuk aurkitu ta gaizkatu dabez. *Artezak.*

euskaldun kardenal ospetsuak irasi eban gopatz edo ordenako «Aita Zuriak» izentzat daben miñolariak egiten dituen lan ederakaz arituta. bere sendi gustia kristinau egitea nai izan dau. Miñolari oneikaz aizkide baruko da-ta, bere erkian lan asko ta onuratsua egingo dabela esan beañik ez dago.

## **Beneditañen buru euskaldun bat.** ❁ ❁ ❁

Oraintsu Subiako'n egin daben batzañean beneditar abak euren Buru edo Nagositzat, Etxeberñy Maur aba autu dabe. Abizenak agertzen dabenez, euskalduna da, Yoldy Mauleon'go erkian yayoa, 57 urte ditu. Onen auñeko Nagosia be euskalduna izan zan da Gariador Benedito. Beneditañak bost erkitan bananduta dagoz eta guttiz 2.000 dira. Dakusgunez euron artean euskaldunak azkenen dabizenak ez dira, eta ori guretzat pozgañia da.

### **Zorionak aizkide!** ❁

Erroma'n Eleiz Legedi irakasle dan Larakoetxea'tar Ipolitto aba karmeldar yakintsua, Sar-kalde-Eleizako Bazkun Guenaren aolkari (Consultor de la Sagrada Congregación) egin dabela irakufi dogu. Euskal idazle trebe ta Jaungoiko-Zale'ko bazkide da.

Zeanuri'tara da berau eta ondiño gastea, 35 urte inguruan dabiñena. Gorbeye'n oiñ-oñean yayoa da-ta, mendiak gora igoten lez yakiturian be goruntz igoten ez da makala!

Gure zorionik sutsuenak biotzez emoten dau-tsoguz. Eta auñera!

# YESUS'EN BIOTZA DEUNAGANAKO ZALETASUNA

---

## Aita Santuaren itzak.

**K**RISTIÑAUOK aldi bakoitzean, betetea dagokiguzan eginbeñak zeintzuk diran yakiteko, buruauste andirik ez dogu bear. Eleiza ta bere buru dan Aita Santuaren irakatsi goitañak gogoz eta aretaz entzun eta zintzoro betetan alegintzea dagokigu. Auxe da egin geinken gauzarik onena. Seme onak aitaren aginduak entzun eta gogoz betetako gertu egon bear daben lez, kristiñau onak, Aita Santuaren itzak gogoz entzun eta maitasunez betetan alegindu bear dau.

Auxe dala-ta emen idatzi dogunean, beñi arduratu gara geure eretxiak alde batera itxita, Eleizaren gogoa azaltzen; *Yaungoiko - Zale'n* zeregiñ berarizkoa orixe da-ta.

Bide zuzen oneri yaraituaz, igaro dan Ofila'ren 8'an Aita Santu agurgarí XI'n Pio'k argitaldu daben «Miserentissimus Redemptor» idazkiaren unaalbait laburén eta argien, azaltzea deritxogu.

Onango laburpenak sailak izaten dirala ondo dakigu baña, besterik ezin danean, aldana egitea bidezkoa da.

## Itzarpenez beteko itzak.

Yesu-Kristo gure beñerosle Erukioñak,

bere bialdu eta ikasleai, zeruratu baño len, itz pozgaríok esan eutsezan: «Ara, ni zeuekaz nago egun gustietan ludi munduaren azkenerarte» (MAT, 28, 20).

Eta XI'n Pio agurgaríak diño: «Toki garai onetatik gizadia ainbeste gaitz eta zoritxarpean ikusirik, eta baita Eleiza bera eten barik yasarpenez inguratuta eta maltzurkeriz zapaldua dakusgunean, itxaropen eta eskiertasun gustiko itz gozoak beñi gogoratzen yakuz».

Eskintza onek ikasleen gogo alduak adoretu zituan eta baita sutu be, zerutar irakatsiak bazter gustietan zabalizeko. Eleiza Gaiztokiaren kaltez garailari urteteko oneixek indartu eben, Gure Yau-nak ba, gatxori ta naigabe latzez inguratuta aurkitu izan danean, aldi ta beañizan bakoitza-zegokion laguntza emon eutson yaungoikozko Yakituriar, «ertz batetik besteraño sendotasunez ikutu ta leunki gauza gustiak atorduten zituarlarik». (Sap. 8, 1).

Eta auxe egin dau oraintsuagoko aldietan be, batez be Yaungoikoagazko artu-emonetatik ta maitasunetik gizadia aldendu ta kistar bizitzako iturria agortu bear ebala zirudien guzuzeko bildur-ikara oparo zabaldu zanean,



## Idazkiaren gaya.

«Baña Yesus gustiz maitagañiak, Alakoke'tar Margarite Maria'ri agertu yakonean agertu eutsozan espak, eta gizonakandik, euren onerako nai eta itxaroten ebana, batsuk bear ba'da, ez ezagutu ta ezetsiten dituelako, Yesus'en Biotz guztiz Deunari zor dautsogun ordaintz egokiatzaz zerbait esatea, Anai Agurgañiok, deritxogu, guk diñoguna zeueta-

riko bakoitzak bere artaldeari azaldu eta eragitera bultzatu dayozuen».

Gure beñerosle maitagañiaren otzantasunaren agerkayen artean geyen argi egiten dabena auxe da: Kistañen artean yaunmaitasuna epeltzen yoyalako, Yaungoikoa'ren maitasun berbera, berarizko gurtzaz goraldia izateko agertu zan, eta Yesus'en Biotz deun-deuna, Beragan Yaungoikoa'ren yakintza gus-

fiaren ondasunetgia dabenen gurtzakeraz ondasun gustian agertu ziran. (Kol., 2, 3).

Noe'n aldian ortzadarañaren antzera, yanseniotaren ziñauskeri maltzurak, Yaungoikoa Aita maitati baño, epaikari bildurgarí lez geyago artu bear gendula irakasien eben aldian, Yesus otzanak bere Biotza bake ta maitasunezko ikuñin lez agertu eban, burukaldian garailari urteteko ziurtasuna emonaz.

Auxe argiro XIII'n Leon agurgariak bere idazki baten azaldu eban.

### Yaungoiko zaletasun gustia ortxe dago.

Yesus'en Biotzaganako maitasunean, gure gurtza edo erlejiño gustia sartzen da, eta beraz Kristo gure Yauna sakonki ezagutzeko biderik onena, eta sus-tsuago, maitatu, eta zeatzago bere antzeko egiten bultzatzen gaituana, Biotz au ganako maitasuna da.

Oríxe dala-ta, beti zaletasun au gorraldu dabe eta guzurzaleak beronen kaltez esan dabenari erantzun dautse, eta aldi bakoitzan dagokion neuriz, sutsu zaletasun au zabaltzen alegindu dira.

Olantxe egunerik-egunera, Yesus'en Biotz maitagaríaganako zaletasuna zabalduaz yoan da, eta bazter gustietan zaletasun au zabaltzeko bazkunak sortu dira, baita bere guraria dan lez, lenengo barikuetan yaunartzeko oitura lurbira gustian zabaldu da.

Baña Yesus'eu Biotz maitagaríagana-ko zaletasunak berariz eskatzen dabena, geure izate ta gauza gustiakaz berari eskintzea da, era onefan bere betiko maitasunaren artu ditugula aitortuaz.

Eta onefan lenen izan ziran Margarite Maria deuna ta bere zuzendari Kolonbiere abari yaraituaz, alkartasun, sendi

agintari uri ta lateñiak, berberau egiten ikusi dira.

### Etsayen irañari eran-tzunik onena. ❀ ❀

Lengo gizaldian eta oingoan gaiztoen etlenbako lanez Kristo'ren bakalduntza (eregetza) agirian ukatzen asartu dira, eta goi eta beko eskubide gustien aurka, lege bidez, agirian «Oñen aginpiderik gure gain ez dogu nai» (Luk, 19, 14) esaten asartu dira.

Eta eskintza oñen bidez bere maitale zintzoak kementsu bere eskubideen alde didar egin dabe: «Kristo'n nagositza bear'ekoa da» (I ad Kor, 15, 25) «Betorkigu bere ereñua». Eta gustien izenean gizaldiaren asieran, XIII'gn. Leon'ek gizadia Yesus'en Biotz deun-deunari eskiñi eutson.

Ortxe bere asiera euki eban, eskintza ososluteko, yubileoko urtea amaitzean, mundu gustian ospatzeko agindu gendun Kristo gauza gustien Eregearen yayak.

Yai au ipiñiaz Yesu - Kristo'k gauza gustien gain eta gizarte, sendi ta bakoitzaren gain dauken eskubidea aitortuaz, gizadi gustia bere alde, Kristo Erege bustari bigunaren azpian yariko zan egun pozgariaz be gogoratu zala, diño Aita Santuak.

Urtero bariztatzen dan eskintza au, kistar maitasunean eta bakean Erege gustien Eregeren Biotzean eñi gustiak alkarizko bide izango da.

Baña bearkun onez gañera beste bearkun bat da gogoan euki bear doguna; Yesus'en Biotz maitagaríari, egiten yakozan irañakaitik zor dautsogun eta eskiñi bear dautsogun ordaintzea.

**GAMA**

(yaraitezko)

# KATOLIKO IZPARAK

## Mexiko'ko Yasarpena.

Kristoren etsai amofatuak, Mexiko'tar katolikoan kaltezko yasarpén lotsagañian auñera doaz. amaitzeko surumufuak gora-bera. Bitartean «gizabideen» alde lan egiten daben gizatalde askok eta izpafingiak euren ixiltasunaz batsuetan eta baita etsayen aldez yafiaz, ankerkeriok ontzat emoten dabez. Olangoak epaituta dagoz!

Katolikoak euren aldetik zintzo yokatzen dabe, eta garailari urtengo daben uste osoaz. Eta izan be zñeste aldez ixuriten daben odola alpeñekoa ez dala izango zñez uste dogu

Ango gora-berén bafi emoteko toki askotxo barko genduke ta, yazokun bat edo beste bakafik emen ipiñiko dogu

Zakatekas'en gexo bateri Gure Yauna eroaten aba Koñea yoyala, gudari talde batek bidera urten, eta ixekaz asi yakon, eta Oteuna kendu gura izan eutsoen.

«Nai ba'dozue il nagizue, baña donaste orñ egiten ez dautzuet lagako» erantzun eutson abade adoretzu onek.

Eta apurbat auferatuta, Gure Yauna berak artu eban.

Gudariak bere gain yausi ziran eta, irañez bete ondoren, euren etsayekaz alkartuta egoala-ta, gudalburuagana eroan eban.

«Lenen—esan eutson—bereala su-izkiñuz edo tiroz il bear ditugun nazpiñtzale gaiztook aitortu egizuz, gero ikusiko dogu zeugaz zer egin».

Sinesteen aldez ilteko gertu egozan katoliko zintzoak autortu ta adoretu zituan, aba onak.

Amaitu ebenean, gudalburuak esan eutson: «Orain ofek autortu dautzuen gustia esan bear daustazu».—Minduta erantzun eutson: «Olangorik inoz ez dot egingo» —«Ezet? Bereala *fusiñeu* zayela aginduko dot».—«Nai dozuna egin zeinke, baña yakin bear dozu. abade batek autorkuntzan entzundako gauzarik ezin leikela esan. Ilteko gertu nago».

Gudalburuak asafetuta bereala erailteko agindu eban eta alantxe egin eban.

Ara or aitortzako ixiltasunaren aldezko zñopá bafi bat.

¡Aintzaldú daigun!

## Sidney'ko Eukaristi batzara.

Irañ'n egingo dan Eukaristi Batzar au gustiz edefa izango da. Lenago be aitatu dogu, bertako agintariak, Ikastetxe Nagosietako buruak eta protestanteak eurak be, itzalez begiratu eta anai agufa eraltzaleai bialdu eutsiela. Eta bertako yudafen buruak be, gixiango ez izateafen, abegirik onenaz ikusten dabela asmo ori, adirazo dau.

Euron itzak beste zenbaki baten ipiñi genduzan, eta aitatu beafik ez dago.

Batzordeak lanean diardue. Piliñieta'tik bizkúnde bat gertatzeko batzorde bat lanean dabil. Piladelpia'tik berarizko ontzi baten asko yoango dira eta beste asko beste ontzietan yoango dira. Kanada'tik eta Anjeles, Texas eta New York'tik be taldeka yoango dira. Europa'tik ain urññera talde andirik ezin yoan leiteke, baña ordelariak lateñi gustietatik elduko dira. España'ko gotzañen izenean Irazortza yaun agurgafia yoango da.

Gaya edefenetarikoa da: «Maria ta Eukaristi deu-deuna» oso egokia izango da, batez be ango protestanteak gai oneitzaz euki leikezan iñuntasanak argitzeko. Katolikoak adoretu ta protestanteak argitzeko aukerakoa izango da.

## Suiza'ko Gotzañak eta izpafingiak.

Lengo zenbakian izpafingi onetzaz Segura kardenal agurgafiaren itzak ipiñi genduzan, eta emengo gaitza bakafik nonbait ez da-ta, gai onetzaz egi gogofak idatzi dabez:

«Eleizaren etsayen izpafingira arpidetuta dagoanak, beste barik, euren egite gaisto gustietan aldele dira.

«Bai; zuek arpidetzeko emoten dozuen diru ori. Eleiza'ren etsayai emoten dautsezuen laguntza da, eta zeafetara berari guda egiteko lagunizen dautsezue, eta bitartean Eleizaren alde z nekatzen diran izpafingiak, erkin bizi dira, zeuen itxikeriz».

Katoliko askok egiok gogoan artuko ba'lebez!...

### Asis'tar Txiroaren goral-

benez.    ◉    ◉◉    ◉

Apaltzen dana goraldua izaten da-ta, Asis'tar Prantzizko deuna gitxi lez goraldua izan da, apaltasunean be gitxi langoa izan zalako. Ara agerbide bat.

Maurizio Banda'le'k «Saint François et ses interpretes dans l'art» izenaz argitaldu daben idaztian diñonez 1.400 ertilari Prantzizko deuna irudiz goraltzen alegindu dira.

Gai onetzaz idazten daben idaztiak ugariak dira. Idazti onek 3.600 idaztiin izenak aitatzen ditu.

Onen antzeko bezte bat aurkitzen ez da efez.

### Kardenal baten eriotza.

Bagi'la'ren 30'n Tazzi kardenal ospetsua il zan. 64 urte euki ditu. XI'n Pio'k 1921'n kardenal autu eban. Onen eriotzeagaz, 65 kardenal gel-ditzen dira; 32 ialitafak, eta 33 beste latefieta-koak.

### Izpartxoak.

Igaro dan ori'la'n Luis de Leon aba ospetsu, et'erdal-idazle ta olerkari bikañaren goralben- ez yai andiak egin dira. Bere anai agustindafak bere laureungafen urte onetan itzaldi edefet- arikoak egin dabez, bere yakituri, trebetasun eta zuzenzaletasuna goralduaz.

Terese deunaren goralbenez. batutako diruz. eleiz ede'ra iragi dabe. Eleiz au Madrid'en egi- teko asmoa 1.923'n artu zan. eta onetsita dago. 50 metro luze ta 22 zabal ditu ta egingo dan tofeak 95 anei-neurkin (metro) izango ditu ta bere gañean Terese deunaren irudi eder bat ipiñiko da.

Yapon'dar abots zoli (tenor) ospetsu bat ka- toliko eginda. Okuda da bere izena, eta Efo- ma'ko Eresi - lkastolan bere ikasteak osatuten egoala, katoliko egiteko argitasuna etofi yako. Wan Rossum kardenal ospetsuak ugu- tzau dau.

Garagi'la'ko 20'n XIII'n Leon Aita Santu go- ragañiaren eriotzatik 25'n urtea bete da. Berak ainbeste irakatsi eder gai gustietzaz emon eba- zan eta, Aita Santu ospetsu onen gomutea ka- tolikotafan artean bizi dirau.

Ipar Amerika'n lenengoz argitaldu zan izpa- fingi katolikotafa «Egia diñoana» izenduna izan zan. Bere iraslea Wilian Deuman izan zan eta ango Izpafingi Batzak Boston'en bere irudi bat ira'itea erabagi dau.

Epa'ila'ren 14 Aita Santuak, Umezurtz eta zain- tza'lebako gazteen zaindari Jeronimo Emiliano deuna izentau dau.

España'ko lutelizti inkeñieruak be euren zain- dafitzat Isidor deuna, Sebi'la'ko Gongotzain os- petsua autu dabe.

Tutikoris (Indietan) bertako Gotzaña daben goterkian, urte bakoitzean, 50 000 katoliko biur- tzen dira.

Alemania'n katolikoak 20.785 300 dira; aba- deak 19.000, eta 3.100 lekaide dagoz.



# YESUS'EN BIOTZ DEUNAGANAKO ZALETASUNA

## Eskintzat ik sortzen diran bearkunak.

**E**ZIN BA, eskintzan gauzarik lenen eta garayena, izakiaren maitasunak Egilearen maitasunari erantzutea ba'da; orlik berenez beste bearkun bat sortzen da; betiko maitasunari edozelan egindako irañekaitik ordaña eskintzea da, az-tutzez ezetsia eta irañez laidotua danean. Bearkun oneri eriak ordainketa deitzen daitso».

Eta zio bardiñak batera ta bestera bul-tzatzen gaituan a'ren, zuzentasun eta maitasunak gogorkiroago beartzen gaituez obenen ordaña eskiñi eta iraingetuteko: zuzentasunak, geure obenez Yaungoikoa'ri egindako iraña ordaindu ta naspildu doguna bere tokian ipinteko; maitasunak, Kristo nekaldu ta «laidoz asetuz» geu be nekaltzeko, eta, geure ezereastasunari dagokionez, zerbait poz-kari eskintzeko. Gustiok ba, obendari garean ezkerro, eta gaiztakeri asko geure gain daroaguzanak, naikotzat ez dogu

euki bear, Yaungoiko Anditasunari, zor yakozan oparien bidez guriza eskiñi eta Yaungoikoa'ri dedu izatea, eta otoi bi-dez bere yabetasun osoa autortzea, ala eskerak egiñaz bere neu'ri bako esku zabaltasuna aintzaltzea. Orez gañera, Yaungoiko Epaikari zuzen-zuzenari «geure zenbatu ezin ala oben, irain eta nagikerien ordeaz bear dogun ordaintza eskiñi bear dautsogu».

Yaungoikoa'ren deun izenen duin egi-ten gaituen eskintza oso onez gañera, geure obenak ezereztuteko, oparien bi-dez ordaña eskiñi bear dautsogu; Yaun-goiko zuzentasun deunak, geure lotsa-gabekeriaren, abegi onez gure eskintzak artu bearean, geure eskintza gofotogar-itizat euki ez dayen, Eta au,

Gizon gustiok zor  
doguna, ✕ ✕

dala ziñezteak irakasten dauskuna da. Ziñestek irakasten dausku, Adan 'en oben negargari ondoren gustiok yatoriz-ko obenaz kutsututa gagozala, girña

txañez ondatuta eta betiko zoritxarpera yaurtiak izan bear genduala.

Eta gaurko yakinzale afoak, pelagitar-en guzuria bariztauta, gure izateak bere indañez gero ta goragoko gauzetara yoten dabela esaten daben aŕen, au afo-keritik sortutako guzuria dala, Paul deun-ak argiro irakasten dausku. (Epes. 2, 3).

Au asieratik gizonak zelanbait ezagutu ebelako, gizonak, sentzunak berak irakatsita, Yaungoikoaren asarea otzanduteko eskintzak egifen asi ziran. Baña gizonen eskintza gustiok ez ziran gauza, euren gaiztakerien ordez Yaungoikoa'ri zor eutsena ordaintzeko, Yaungoikoa'ren Semeak ordaintze au egiteko Gizon egin ezpalitz.

Gure gaiztakerien zorak ordaintzeko ba,

### Yaungoikoa'ren Se- mearen Gizakundea beaŕekoa izan zan.

Eta Berak iragarle bidez esan eban lez, gizonen opariak gogoko etzitalako, gure gexoak bere gain artu zituan; gure miñak igaro zituan eta gure gaiztakeria-ŕen zauritua izan zan» (Isai., 53, 4-5); gure kaltez emonda egoan epaya, kurutzan yosita ezereztu eban (Kolos., 2, 24) obenerako ilda, zuzentzarako bizi gaitzezan (I Kep., 2, 24).

«Baña, Kristo'ren beŕeroskunde uga-riak, oparo gure obenak parkatu eusku-zan aŕen, Yaungoiko - Yakituriaren era-bagi aŕigariz, Kistoren Nekaldiaren on-dakiñak, bere gorputz Eleizaren bidez, gure aragi osotu bear ditugulako, (Kol., 1-24), «obendarien izenean Kris-to'k, Yaungoikoa'ri» eskiñi eutsozan go-raltza eta ordaintzaz gañera, guk geu-reak geinkioz eta eskiñi bear dautso-guz.

Baña beti gogoan euki bear doguna

da, ordaintza oneri bere indar gustia, gure altaretan eten barik odola izurtze-ke, bariztatzen dan, Kristo'ren odolezko eskintzatik bakar - bakaŕik datorkiola; ba, «Osti edo opari bakar eta berbera da; eta kurutzean eskiñi zan berbera, orain abadeen bidez eskintzen dana be: bar-diña ez dan gauza bakaŕa, eskintzeko era da». (Conc. Trident, ses, 22, c. 2).

Auxe dala-ta, bere ordezeko ta beste eleiztaŕen eskintza, eukaristiako eskintza agurgaŕiagaz batu bear da, eurek be «opari bizi, deun eta Yaungoikoa'ren gogoko» lez eskiñi daitezcan (Rom., 12, 1).

### Kristo'ren nekeak geuregantzeko beaŕi- zan eta bidea. ✠

Auxe dala - ta Paul deunak diñosku «geure gorputz inguruan Yesus'en lazta-suna eroanaz (II Cor., 4, 10), eta bere eriotza antzez, Kristo'gaz obiratu ta lan-datuta, ez bakaŕik gure aragia bere gaiztakeri ta zalekeriakaz kurutzaldu daigun (Gal., 5, 24) munduan zalekerien ustelkeria danagandik aldenduaz (II Petr., I, 4), baita be, «gure gorputzetan Yesus'en bizitza agertu daitela» (II, Kor.-4, 10) eta bere betiko yauparitzaren al, dele egiñaz «emaitz eta eskintzak obe-nakaitik eskiñi dayoguzala», (Ibert., 5, 1).

Eta zeregin au gustiona da; onetan gustiok tarteko izan bear gara; ez ba-kaŕik, Yesu Kristo gure Yaunak, sorkal-detik sarkalderaño alde gustietan, Yaun-goikoa'ri opari orbangea eskintzeko aukeratu dituan bere ordezekoena; bai-ta, kristiñau batzak, ia era bardiñean bera eta gizadi gustiaren alde, oben edo pekatuen ordez opariak egin bear ditu.

## Eskintzaren onurak eta mañak.   ✂   ✂

Eta gure opa ta eskintzak, Yaunaren eskintzaren antzeko diran neuriz, au da; geure maitekeri eta zalekeriak aspiratu ta geure aragia kurutzalduten dogun neuriz, geureganduko doguzan onurak eta besteentzat irabazten doguzanak be ugariagoak izango dira; eta au, Kristo ta bere yaraitzaleen artean gorputzeko atal eta buruaren artean dagoan antzeko arigañizko alkartasuna dagolako, eta baita ziñesteak irakasten dauskun santuen alkartasuna bide, gizonak eta eriak euren artean alkartuez gañera, gustion buru dan Kristo'gaz alkartzen garalako. Eta Beragandik, datorkigu gustioi, maitasunezko bizitza, eta Berak il auretik Aita'ri eskatzen eutson batasuna. (Yon. 17, 23).

Batasun oretarako mañak onexek dira: «Eskintzak, Kristo'gazko batasuna aurtortu ta bayezten daben lez, oben - ordaintzak, obenak kenduta batze ori asi egiten dau, Kristo 'ren nekeen aldele (participé) eginda, osotu, eta anai aldez opariak eskiñita, amaitu. Eta egi-egiz, Yesus gustiz Erukitsuaren asmoa auxe izan zan, bere Biotza bere nekaldiko ikurdiak eroyazala, eta maitasun-garéz agirian dituala, agertu gura izan eusku-nean: obenaren neuribako gaiztakeria alde batetik ezaguturik, eta bestetik Bereroslearen neuribako maitasunaz ariturik, oldar geyagoz obena gorotau eta maitasun sutsuagoz bere maitasunari erantzun geinkiogula».

**GAMA**

*(ama tuko da)*

## X'n Pio agurgariaren go- mutaz. ○ ○ ○

Aita Santu agurgari onen gomutea, Eleiz edestian iraunkofenetarikoak izango da. Bere izakera sutu ta kementsua, euki leiken ozantasan eta biozperatasunik andienagaz neufirik egokienean, beregan alkartzen ziralaa esan geinke. Bere ardura gustia Kristo'gan gauza gustiak bafiztatzea izan zan, eta onetarako emon zituari legeak, ugari ta edefenetarikoak izan ziran; eta lege oneik osoro bete eragiteko adore iraupen afigafia agertu eban. Beste gauza eder askoren artean safi yaunartzeaz, umeen yaunartzeaz eta eleiz eresiatzaz emondako agindu ederaf gomutatzea naiko da.

Eta bafiztatze zuzena maite eban neufiz, *beñizalekeria* kristiñauen artetik bastertzen alegin gustiak egin zituari. *Modernista* izenaz guzur gustiak batera zabaldu gura zituari ziñauslekeria (herejia) sendoki garaitu eban.

Prantzi'ko agintarien lege galgafiai gaitzetsi zituanean, norbaitek. eleizaren ondasunak galduko ziralaa esan eutsoenean, auxe erantzun eban: «Nonbait, eleizaren ondasunak» ardura andia emoten dautse eta Eleizaren «onak» gitxi. Ain adoretu izan afen, bere biozperatasuna arifafia izan zan. Oraintsu, bere idazkari amai-ka urtean izan zan Meñy del Val'ek esan dabenez, biotz samur eta aitakofagorik ez dau eza-gutu. Bere menpekoen samiñak, naiz umeenak izan, biotza samintzen eutsen eta aitarik onena lez, gozatzen alegintzen zan. Auxe dala-ta, Europa gustia ondatu dabenez, guda galgafia asi zanean, ainbeste anai alkafen gofotoz ondaturko ziralaa ikusirik, kalte au ufintzeko e in zituari alegiñak gauza ez ziralaa oartuta, biotza ufatuta, iru aste bafu il zan.

Meñy del Val yanzkordun yaunak diño, guda galgafia au safitan berari iragafi eutsola. Beragaz lanean ziardualaa gauza negargafien bat aitatzen eutsoan, safitan erantzuten eutson: Au gusti au ez da ezer, laster sortuko dan guda izugafiaren ondoan. Eta guda au 1914'n asiko da. Zelan yakin eikian guda galgafia 1914'n asiko zala?...

Batikano'n Brasil'ek eukon ordelarieri auxe berberau 1914'ko Ofiñla'n esan eutson. Bere erira yoan bear izan eban eta agur egitean auxe esan eutson: «Zorioneko zagoz, une onetan Europa'tik aldendu beafa daukozulako. Zuk dotozen yasokun ikaragafiai ez dozuz ikusiko...»

Brasil'go ordelariak zer zala ta itzok esan eutsozan ulertu eziñik ebiñen, baña andik laster sortu zan guda ikaragafiai adirazi eutson, Aita Santuak esandako gustia.

Dagoniñla'ren 4'an, X'n Pio Aita Santu autu ebenetik XXV'n urtea bete da, eta auxe dala-ta, beretzaz zerbait esatea egoki eretxi dautsogu.

## Sydney'ko Eukaristi Ba- tzaña. ○ ○ ○

Eukaristi Batzar ospetsu onetarako, Aita Santuak, Zefetti kardenala bere ordezkotzat baldu dau, eta bere inguruko lagunakaz Garagafiñla'ko 29'n Efoma'tik urten eban.

Urten aufetik Aita Santua ikertu dabe, eta itzalditxo aitakofaren ondoren, Sydney'ko gozain-eleizarako ufezko kaliz edefa bere oparizat eroateko emon dautse; kaliz ofegaz Aita Santuak mesa edo yaupa emon dau. Baiia Brisbane'ko Gongotzañen eskariz, Katakunbetako ari eta luf zofotoxo bat daroe, gotzain-eleiza bafiaren lenengo ariari sartzeko. Biok Aita Santuak onetsi ditu.

Ordelariok Sydney'ra Dagoniñla'ren 30'n elduko dira. Irañla'ren 2'n Batzaña gertatzeko iruufen bat asiko da. Iñla'ren 5'n eguaztenez andikiro, Eukaristi batzaña Andra Maria'ko gotzain eleizan asiko da.

Iñla'ren 6'n, eleiza onetan yaupa nagosia izango da, eta bai gure Yauna agirian ipiñi, gau ta egun Batzaña amaitu arte egon daiten. Iñen 7'n agirian mesa nagosi bat izango da 20.000 neska-mutiko inguruk abestuta. Batzaña ufengo igandean bidezkunde ondoren amaituko da. Bidezkunde au Manly'tik Sydney'ra itxasoz yoango da, eta Gure Yauna Zefetti yaunak, ufeziutako ontzi baten, eroango dau. Kaira eldu daitenean, bidezkundeak kaleak zear yafaituko dau eta oneskundeaz amaituko da.



Zefetti yauna, egun batsuk igarota Brisbane' ko gotzain-eleiza bafiko lenengo afia onetsiko dau, eta Melbourne'ko Wefibee ikastetxe bafia onetsi ondoren, Urñila'ko 16'n Ipar-Amerikaruntz urtengo dau.

### Italia'tar emakume kato-

likoak. ○ ○ ○ ○

Italia'tar emakume katolikoak talde bitan eralduta dagoz. Talde bata emakume katolikoena da, eta orain ogei urte eraldu zan, eta bere asma auxe da: «Eleiza Ama'ren babespean, Kristo'ren ikasbide arauz bizi ta bizi eragin».

Alkartasun onek 4 000 pafokitan bere bazkunak ditu. Lan asko egiten dau; igesko urtean bakañik 5.205 bazkidek zabalkunde lanean ekin dautse. Idazti asko argitaltzen dabez, eta onez gañera, ileroke izpafingiri bat ta *Il Solco* deritxon aldizkingi edefa.

«Italia'tar neskatñle katolikoan alkarte» da bigařena. Orain amar urte sortu zan eta 7.554 pafokitan eralduta dago, eta 500.000 bazkide dagoz batzar onetan.

Garagañila'ren 15'n Efoma'n batzar orokofa egin dabe, eta bertan bildu ziran emakume batzařekoak 2 000 eta 8.000 neskatñila. Batzařok amaitzeko, 500 ikufin ebezela, gustiak zuriz yantzita edo estalki zuriaz. Batikano'ra Aita Santuari menpetasuna agertzen eldu ziran, eta euren artean Lourdes'ko Andra Mariaren bidez osatutako neskatñila taldetxo bat.

Aita Santuak abegi onenaz artu ta itzaldñ edefa egin eutsen euren bearkunak azaldu ta lanak goraldudaz. Azkenengo egunean, Batikano'n Aita Santuak, Bazkide gustiak bertan zirala, mesa emon eban Pozgañia ainbeste neskatñila Kristo alde lan egiteko eralduta ikustia, eta baita egiz tamalgañia, emen beste ainbeste egin al izan eta ez egitea. dantza nastu galgañiaz gasteri gustia ondatzen doan bitartean...

### Eleiza ta yantzi nabar-

menak. ○ ○ ○ ○

Onetzaz Eleizak argi itz egin daben ařen, Eba'ren alabak esangiñak dirala ez da asko ezagutzen. Katolikotafentzat Eleiza'k esaten da-

vena egitea beařeko da, zintzo izateko, eta gai onetan zintsotasunetik ufin xamar dabizela igariteko begiak asko zabaldu beařik ez dago.

Lotsagañikeri au baztertze ko Gotzañiak aginduta zeatzak emon dabez, baña entzun da gor egiten oitu dirala esan leike. Oraintsu Messina'ko Gongotzañiak bere menpeko abadeai gogor egiteko agindu dautse, eta erabagi be bai, autoritzen eraz yantzi barik datozenari azkitza ukatzeko; bardin yaunartzera ba'datoz, eta ama-bitxi izan gura ba'dabe.

*L'Osservatore Romano*'k erabagi au txalotzen dau, eta onen antze ko aginduak beste toki askotan be emonda dagozan ezker o, abadeak gustiok batera yo bear genduke. zintsoro bete eragiteko. Gustiok benetan eta eten barik yokatuz ezker o, kristiñauat yanzkeran be, kristiñau sentzuna agertu bear dabela irakatsi geinkiola uste dot. Bakoitzak bere aldetik aldabentxo egingo ba'leu!..

### Aita Santua ta Txina.

Naspil ta guda luze ta gogofen ondoren. bertako eskubidean alde ekin dautsenak, garailari urten dira, eta ereti onetan zer egin bear daben yakiteko, Aita Santuak bertako Gotzañia uñitdattez, bere ordelari bidez itz egin dautse.

Aita Santuak diño, ardura andiz ango yasokunei yañaitu dautsela, eta bera izan dala txinař eña bardintasan arauz aintzat artuez gañera, bertako semeak gotzain, bere eskuz, egin zituna. Eta orain anai arteko guda amaitu dan ez kero, bafuko atako bakea, kistar maitasun eta zuzentza oñañitatz dauken bakea opa dau tsola. Bake au lortuteko, Aita Santuak diñotse, munduko latefi ugarien onen gurari legezko ta eskubide gustiak aintzat artu dayezela.

Eta beste onu edefen ondoren, Bake ta zuzentza bidez etorkizun andiko eña izango dala diño, eta katolikoei diñotse alegin gustiz arduratu daitezala, otoi, itz eta egitez, euren abeñaren onerako bake au iraunkofa izan daiten.

Txina'tafak euren izpafingietatik agertzen danez, oso pozik Aita Santuaren itzak entzun dituez. eta ango katolikotar eta mixiolariantzat gustiiz onuratsua izango dala. eřez igarten dan gauza da.

# YESUS'EN BIOTZ DEUNAGANAKO ZALETASUNA

A M A Y A (1)

## Yesus'en Biotzaganako Gurtzaren una. ❀ ❀

**Y**ESUS'EN Biotzaganako maitasunean, obenen ordezkintzak egitea eta egindako okerak zuzentzea, gauza lenen eta mamiñekoenak dirala, zaletasun onen asiera, izakera, edestiak eta Aita Santuak irakatsiak argiro irakasten dauskue.

Eta izan be Yosu-Kristo, Margarite Maria Alakoke deunari agertu yakonean, bere maitasun neuribakoa azalduz gafiñera, gizon eskartxarekoak egiten eutsioezan ainbeste ta ain irain andiakaitik bere samintasuna agertu eutson, gogozintsoetan beti yosita gelditu bear eben itz onein bidez:

«Ara emen—diño—gizonak ainbeste maite izan eta ainbeste ondasunez asetu dituan Biotza, eta bere neuribako maitasun ordañez, ez dau bape eskar onik aurkitzen, ezetzi ta irañak baño, eta batsuetan berarizko maitasunez maitatzeko beartuak dagozanagandik be bai».

Obenen ordañez bere gogoko diran gauzen artean Ordaintzeko Yaunartza, eta Ordu Deuna egiteko eskatu eban.

oretarako aukerakoak eta Eleizak ainbeste irabaziz aberastu dituanak.

## Yesus'en Biotza zelan poztu ❀ ❀ ❀

«Baña, obenak ordaintzeko eskintzen yakozan egite oneik, zeruko atsegintegian bakaldun dan Kristo zelan poztu ete leikie? Itaun oneri, Agustin deunaren itzakaz erantzungo dautsogu. «Maitatzen daben biotz bat emon egidazu, eta diñodana somauko dau» (In Joan, evang. XXVI, 4).

Ba, Yaungoikoa maite daben edonok, igarotako aldieri begiratuta oldozten ba dau, Yesu-Kristo gizon naigabetuaren aldez lanean ikusten dau, «gu gizonakaitik eta gu gaizkatzearen» neke gogor-gogorak igaroten, itun, lañitasun eta laidoz kuzkurtuta, eta baita; «gure gaiztakeriaren birinduta» (Isai. 53, 5), bere zauriakaz gu osatzen.

Au gusti au gogo yaunzaleak sakonkiroago gogaltzen dabe, edozein alditan egindako gizonen obenak, Yaungoikoa'ren Semea eriotzara eskintzeko zio izan zirala, argiroago agertzen dan gauza dalako, eta oraintxe bertan erailgo leukie neke ta lañitasun berberakaz,

oben bakoitzak zelanbait Yauna'ren Nekaldia bariztatzen dau ba, Paul deunak esan eban lez: «Barien-bari Yaungoikoa'ren Semea kurutzaldu ta laido zorian yarten dabe» (Ibert., 6, 6). Eta baita, guk egingo genduzan pekatuak aur-zetik ikusita, Kristo Yesus'en gogoa eriotzarañoko laritasunaz laritu ba'eben, ezpai barik, guk egingo geuntsozan ordainketak aur-zetik ikusita, zerbait poz artuko eban, zeruko aingeruak bere Biotz iguin eta laritasunez zapaldua, poz-tuteko agertu yakonean. (Luk., 22, 43). Eta olantxe, ointxe be era arigariz, baña egiz, gizon eskertxarekoean pekatuz, etenbarik zaurituan dan Biotz Deun-Deuna poztu geinke eta poztu bear dogu». Eta au Kristo Gure Yaunak, agertu daben guraria dala Igarleen itzetan argiro ikusi geinkena da. (Ps., 69, 21).

### Gure nekeak Yesus'ena-kaz alkartu bear doguz

«Onez gañera, Kristo'ren ordainketa-nekaldia, bariztau egiten da, eta zelanbait yaraitzen eta osotu be, bere gorputz yaunkor (mistico) dan Eleizan. Bañero Agustin deunaren itzez esango dogu: (In Ps. 86): Kristo'k yasan (sufridu) bear eban gustia yasan eban: bere nekaldia-ren neuria beterik dago. Nekaldia ba osotuta dago, baña buruan; ondiño baña, Kristo'ren nekeak bere gorputzean bete bear ziran». Eta auxe da, gure Yaun Yesus'ek adierazi ebana «ikasleen kalte-z zema eta eriotz gurariz sutsu ebile-la» (Act., 9, 1) Saulo'ri esan eutsozan itz oneitan: «Zuk yasartzen dozun Yesus, Neu naz». (Act., 9, 5); Eleiza'ren kalte-z yasarpentean, Eleiza onen Buru yaungoikozkoa, yasartua izaten dala argiro adiraziaz. Bidez ba, bere gorputzean ondiño yasarten daben Yesu-Kris-

to, bere ordaintz neketan bere bide iza-tea gura dau, geure beragazko senita-sunak auxe eskatzen dabelako; ba, ga-rean lez, «Kristo-gorputz, eta bere gorputz atalkideak» izan ezkerro, beareko da burua nekatzen danean, gorputz-atalak be nekatzea. (I Kor., 12-27).

### Nekaltza au gaur berariz bearekoa da. ✠

Obenen ordañez nekatze au, Aita Santuak diñonez, gaur bearekoago dala edonok igari leiken gauza da, gizadia gaiz-takeripean dago-ta.

Erietako agintariak ikusten dira, gure Yaun eta bere Eleiza'ren kalte-z gogor egiteko alkartuta. Goiko ta giza-lege gustiak ostikopetuta, eleizak ondatu, lekaima ta lekideak euren etxeetatik yaurti, eta irain eta neke artean gosez espetxeratzen dituez; Eleiza Ama'ren magal gozotik indañez atarata, ume ga-xoi birao ta gaiztakeria irakasten dau-tsoez eta kistar eria, ala ziñestea ukatu, ala eriotza gogora igaro bearean ipinten dabe.

Eta ondiño tamalgariago dala, diño Aita Santuak, bateo deunaren bidez Bil-dotz garbiaren odolaz garbituak, eta goiko bizitzaz aberastuak izan diranen artean, ainbeste ikustea, goiko gauzen ez yakin izugariaz, burua guzuzeko irakatsiz beterik, biotza gaiztakeriz, Aita'ren etxetik urinduta, ziñeste argi barik, betiko zorionen itxaropen barik eta goi-maitasunaren bero barik, eriotzako itzalpean ezarita. Onez gañera, eleiz-legeak betetako ardurarik eza, eskontza-ren deuntasunaren esiak uratzea, umeen aziera bidegabekoa, gazteria menduteko, Eleizak daukazan eskubideak ostikopetutea; emakume yanzkeraz, batez be, kistar-lotsea galtzea, luferko ondasunen

zalekeri neurigabea, legezko agintarien-  
tzat, menpetasunik-eza, eta Yaungoi-  
koa'ren itzari yaramonik ez egitea, zi-  
ñestea bere ondatzeko ainbeste alegin  
egiten dalarik.

Onez gañera, dator, ikasleen antzez  
lo egin ala iges egiten dabenen alperkeri  
eta ardurarik ezaz, erdizkako ziñesteaz  
Kristo Satanas'en gudarien erdian, ba-  
karik itxiten dabenen gaiztakeria, eta  
Yudas'en antzera gaizki jaunartu ala  
etsayen artera igaroten diranen saltzale-  
keria. Gaiztakeriaren ugaritasunaz, as-  
koren maitasuna otzitu egin dala egiz  
esan leike ba. (Mat., 24 12).

**Au ikusirik zer egin**  
**bear dogun?** ❀ ❀

Ara Aita Santuaren erantzuna: «Esan

dogun au, maitekiro gogorutzen daben  
kistar zintso gustiak, Kristo samindua-  
ren maitasunean sututa, gurari sutsuz,  
euren eta besteen obenakaitik, ordaña  
eskiñi barik ezin leitekez egon, ez da  
Kristo'ri zor yakon aintza biurtu barik  
eta gogoak betiko gaizkatzeko alegiñik  
egin barik be. Eta egiz, Beldu edo Apos-  
toluaren itzok: «Gaiztakeri ugaria izan  
zan» (Erom., 5, 10) zelanbait gaurko al-  
diai begiratuta esan geinke. Gizonen  
gaiztakeria oparo ugaritu danean, Go-  
teun edo Espiritu Santuaren argi ari-  
gariz, Yaungoikozko Biotzari egiten ya-  
kozan irañakaitik ordaintza eskintzeko,  
gogo osoz eta baita orotarako euren  
buruak eskiñita be, alegin gustiak egi-  
ten dituezan gizon eta emakume kristi-  
ñauak, gero ta ugariagoak dira. Ba



maitasunez orain arte esan doguna olostoen dabenak, eta biotzean irarten ba'dau, nai ta ez obena gofotau eta urinduez gañera, Yaungoikoa'ren guraripean yafiko da, eta baita, Yaungoikoa'ri ostu yakon aintza biurtzen, bai eten barik otoi egiñaz, baita gogozko laztasun egin eta datorkiozan, naigabeak eroapenez artuaz, baita azkenez, bere bizi gustia ordaintze oretarako eskiñiaz».

Ortixik sortu dira ainbeste ta ainbeste gizon eta emakumezkoen, anaitasun eder eta bazkunak, Aita Santuaren baipe eta irabazi ugariz zeregin ori euren gain artu dabenak. Eta mundu gustian zabaldu dan, asmo eder au sendatu zabaldu ta iraunkorago egiteko, XI' Pio agurgariak, Yesus'en Biotz maitagarriaren yaya, goyenetariko malara yasoaz eleiza gustietan berarizko eskintza egiteko agindu dau.

### Eraspen edo deboziño onen onurak \* \* \*

Ugariak izango dirala ezpai barik diño, bai bakoitzarentzat, sendientzat eta latefientzat be, bere Abintzaz «Biotz maitagarri au goraltzen alegintzen diranak goiko eskañez asetuak izango dirata».

Obendariak, Eleiza'ren negar eta samianak ikusirik, gustion Ereege danari

egindako irañakaz erukituta, euren okera autortuko dabe. Zuzenak, egunerik egunera zuzenago egingo dira, eta Yesus'en tamal-itzak entzunaz, gogoak gaizkartzeko alegin gustiak egiteko sutu egingo dira. Eta euron ontasunaren, gizadiaren gaiztakerien gain goiko Yaun onak, parkaziño ta erukizko laguntzak bialduko ditu.

Auxe da Aita Santuak zaletasun on au zabaltzetik itxoten dabena, Yesus'en Ama maitagarria bitarteko dala.

\* \* \*

*Miserentissimus Redemptor* deritxon idazki ederearen «laburpena» egiteko asmotan asi nintzan, eta ainbeste gauza ederen artean, zer itxi ez nenkiala «ia» itzez-itzez euskeraldu dot. Baña ez yat damutu. Gai batzuk sakon samarak diralako, ulerkaitzat norbaitek etsi leiz, baña tira, nozbait ainbeste lelokeri ikasten nekatzen dogun buru au, euskeraz zeruko irakatsiak ikasteko apur bat nekatu bear dogula uste dot, neke barik gauza andirik ez da ikasten-eta.

Ez yakiñez, naiz oartzeko zerbait ain egokiro euskeraldu ezpadot, parkatuko daustela uste dot, okerik ba'dago zuzentzeko gertu nago-ta.

GAMA

## Sydney'ko Eukaristi Batzaia.

Etsayan zemakuntzak gora bera. bakerik andienan eta gustiz andikiro Sydney'n, XXIX'n Eukaristi-Batzar orokofa ospatu da Batzaioak beti izan oi dira bata baño bestea edefagoak, eta ile onetan egin dana edefenatarikoa izan da la egiz esan leike. Ara onezaz ogetabost urte onetan Batzar onein lendakari dan, Heylen, Namur'ko Gotzain agurgariak esan dabena: «Ni amasei Eukaristi Batzar orokofetan izan naz, eta Sydney'ko batzar onegaz bardiindu leikenik ez da izan». Ortik igafi geinke zelangoa izan dan.

Irala'ren 3'n Zefetti kardenal agurgafia Aita Santuaren ordelari Batzar onetan izan danari Udaletxean agintariak aferea egin eutsoen. Egun onetan Batzaiafaren aldez otoi egiteko Sydney'ko eleiza gustietan irufen bat asi zan. Irala'ren 5'n afatsaldean, asierako batzaia egin eben. Ufin egon afen, lurbira gustitik ordelariak eldu ziran. Bazkide geyen bialdu dituana Ipar Amerika izan da New York'eko Gongotzañak 70 abade beragaz eroan ditu. «Kanada'tik be ugari izan dira, eta euron artean William Bary, Hobart'eko Gongotzaña, beste iru anai abadegaz eldu zan. Boskafan anaya, abadea au be, gexoak artu dabelako ezin yoan izan zan.

Irala'ren 6'n Zefetti yaunak, Andra Maria'ko Gotzain-eleizan Gotzain-mesa esan eban, 60 gotzain inguruan zituala. 9.000 lagun baruan ziran eta tokirik ezagaitik beste 40.000 eleiz inguruan egon ziran. Batzaieko egun gustietan gau ia egun Gure Yauna agirian euki eben.

Iralaren 6'n afatsaldez gizonen batzaia izan zan; Txikago'ko Batzaiean izan ezik ainbeste ez ei da bildu. Egun onetan itzaldiak ingalanderaz, italerez eta panteraz egin ziran.

Iralaren 7'n, barikuan, umeen eguna Agirian yaupa (mesa) esan zan, eta 20 000 neska-mutikok yaupa abestu eben. Mutikoak baltzez yantzita eta neskatoak zuriz.

Itzaldia Tuam (Irlanda)'ko Gotzaiñak egin eban. 100.000 lagunetik gora eldu ziran mesa onetara.

Egun onetan egin ziran batzaiefatik aipagarrenak izan ziran; irlandafena, bertara Zefetti agurgafia eldu zalako. Kardenalax irlanderez iz egin eutsen eta yo eutsiezan txaloak zueken amairik. Bigafena Mannix agurgafia buru ebala 1.200 lekaimak egin ebena. gustiz goragafia izan zan.

Iralaren 8'n umeen Yaunartzea. 30 000'k Yaunartu eben.

Amafetan emakumeu mesa izan zan. 150 000 emakume bildu ziran eta oneiz gañera beste 100 000 lagun baño geyago.

Igande goizean eleiza gustietan Yaunartzeak izan ziran eta amafetan yaupa nagosia, eta ondoren itxasoaz ibildeunik zofagafiena. *Palioa* australitañ gudaririk onenak eroan eben eta ontzi baten 1.000 gudari apain yantzita Yaunari omen egiteko yoan ziran. Bidezkundeak ontzietatik urtenda, kaleak-zear yafaitu eban, eta Yauna'ren oneskundeaz Enkaristi Batzar ospetsu au amaitu zan Azkenengo eleizkizun onetan 350.000 lagun inguru batu ziran. Gauza benetan zoragafia izango zan ainbeste lagun gustion Yaubadan Yaun onaren afean burua makurtuta ikustea..!

Poztu gaitezana ba, garaitza au gustiona da-ta, Australia'tar katoliko zintsoen yafabideaz poz-tuta. geuk be Kisto'ren Agintza zabaltzeko zintso yokatu daigun...!

## Lourdes'ko gizosteak eta gertaera arigariak.

Lurbira gustitik, urtero bidezti talde izugariak, Lourdes'ko Ama'ren onetan auspeztuten dira. Gure eusko-goterki onetatik bakarik, milaka asko yoaten dirala, gustiok dakiguna da. Baña bidezkunde onein artean ospetsuena Prantzi gustitik urtero egiten dana da. Aurten 56.<sup>a</sup> izan da Dagonila'ren erdian asita, talde izugariak eldu dira, eta ila 19'rako eleiz afeko zelai edefean 30.000 bidezti bildu ziran. Euron artean 1 250 gexo, 62 osagile eta euroi lagun 470 «praktikante». Irala'ren 3'tik 6'ra biartean beste 70.000 bidezti eldu dira. Berau da naiko miraririk, baña, beti lez, osatze arigariak be izan dira. Lenengo taldean bakarik 10 osatu dira bapatean, eta euron artean adigariena aitakuo dogu.

Laure Dupon, Bourdeaux'tafa, 48 urtedun emakumea, aspaldi ondo este ertzeko biziñ ikaragafiaz egoan. Osagileak etsita, Ama Lourdes'koagana ia il aginean Dagonila'ren 18'n eldu zan. Zoratzeranoako onazeakaz ibildeunera eroan eben. Onetan gure Yauna afean egoala, bapatean ondo yafi zala i afe eban, eta oexoan zutindu zan. Bere onez erietxera yoan zan. Gexo bildurgariaren lofatzik be ez yakon gelditu.

Biyamonean 30 osagilek aztertu eben, eta danak ao batez autortu be, zearo osatuta egoala.

Ara emen lufeko osagilek osatu ezin leiken gexo bat, bapatean zearo osatuta. Osagileak eurak autorizen dabe ori goi-indarez bakarik gertatu leikela. Yaungoiko eta bere Amaren efuki ta altasunaren ezaugafi edefa osatze arigafi au.

Begiak euki ta ikusi gura ez daben osagile zinesgeak or daukie euren yakituria (?) non agertu. la zelan azaltzen daben.

Eta gauza argia izan afen, osagile katolikoak

zurtaisunez, oi daben lez, yasokun au obeto aztertuko dabe azken itza esan baño len.

Eta Lourdes 'tzaz diardugun ezkerro, izpar baltz bat ipiñi bear dogu. Dagoniñaren azken egunetan urte bete egiña bete daben egunean, bertako Gotzain Poirier yauna il dala. (G. B.) Eta gauza bakana. Onen aurfeko Gotzain Schoeper yauna Dagoniñaren 29'n obiratu izan zan, eta bere aurfekoa be, Biliere yauna. 1899'ko Dagoniñaren 29'n obiratu eben; Benetan gauza bakana!

## Batzar begikoak eta bea- fekoak.    ◊    ◊◊◊    ◊

Katolikoak egiten ditugun lanak, egin diran alegiñen neufiz onuratsuak izan ezpadira, ba-koitzak bere aldetik, alkartu barik lan egiten izan dogulako izan da. Guk zñeste bat, asmo bat eta Aita Santuagan Buru bakar bat daukagunok, alkartu barik lan egitea, ia alpefeko lana egitea izango litzake Geure *relatupeko* asmofoak Eleiz Buru diranenakaz alkartuta ezpadoaz, zer onura atara geinke? Eta tamalez auxe sariegitan gertatu da. Baña nozbait esnaitzen asi gara. eta beste ezer baño lenago katoliko gareala, eta izan bear dogula igariten be bai. Orixe dala-ta, gaur katolikoan artean egiten diran batzarai «katoliko» usain geyago artzen dautso, eta eurotan bilizen diranak. Aita Santuaren gudari zintso lez. eretxiak alde batera itxita. goiko egiaren alde zintso yokatzeko gertu ikusten dituguz. Eta au gauzarik pozgarriena da.

Auxe oartu dau oraintsu, Dagoniñaren Paris'en, eta Irala'ren lenengoetan Milan'en egin diran batzarfetan. Paris'en aste beteko batzar eta izaldietan «Goi-maitasuna» gaitzat artu dabe. Eta izlaririk bikañenak ain beafokoa dan goi-maitasun onek, egizko katolikoari ezarten dautsozan bearkunak ederto azaldu be bai. Gizonak ain bardiñak izan afen, ain «bardingeak» garealako, alkartuko ba'gara goiko indafa bear dogu, eta goiko indar au kristiñau gustion bearkunik nagosiñean aurkituko dogu; «Goi-maitasunean». Milatik gora izan ziran bertan bildutako gizon yakintsuak, eta gauza zoragarria izan zan, gaur bazter danetan gofotoa ta ikusi ezina zabal dabilakoa, osakai bakartzat «Goi-maitasuna»ren edertasuna eta beaifazana goraltzen ainbeste yakitun ikustea.

Bigafen batzara Milan'en izan da Gaitzat «Egizko Eleiz batasuna, *Mortalium animos* Aita

Deunaren idazki ederean azaltzen danez» adiralteza izan da. Eta ederto erantzun dautse, zñeste-batasun barik, guzufeeko batasuna izango litzakenen alde, lanean diardu en protestante ta antzekoai.

2.000 bazkide bildu ziran eta izlaririk bikañenak itz egin eben. Euron artean pozez irakuri dogu Azpiazu Aba yosulaun, euskal eta erdel idazle bikañak itzaldi eder eta gustiz txalogañi bat egin ebala.

Aita Santuak adirazi dau batzar oneik pozez biotza bete dautsela. Eta bere seme gareanok be, Aita'ren pozaz poztu egin bear gara, eta bere irakatsiak aintzat artu ta zintsoro bete, katoliko zintsoen bearkuna orixe da-ta.

Batera yo daigun, batasuna garaitzarako bide bakara da-ta!

## Gudearen aurka.    ◊

Gudearen aurka egiten dana, datofen tokitik datofela txalogañi da; gudeak ekafi leikezan onurak, egiten dituzan kalteen orpora be ez dira eltzen eta.

Orixe dala-ta Keñog itunbena abegi onez ikusi bear dogu. Itunben onen asmoa gudea legezko-tzat ez eukiteko alkartutea da. Egia esateko berez be, gudea legezkoa *gixitan* izan oi da, baña aintzat ez da artuta, ondorenak ikaragañiak izan dira.

Itunben onetan ogetaka latefiak euren izena emon dabe, eurak gudea legezko bidetzat ez dabela artzen autortzen dabelarik. Ederto dago ori, eta ofek eskatzen dabena. Aita Santuak ainbeste bider esan daben, iskilu (armak) eta gudarosteak uritzea da. Eta izan be aginka egiteko asmorik ez daukanak, agiñik ez dau zorostu bear. Baña gizonak «gizon» dira-ta. .

Batsuk onango itunbenari ifibare egiten dautsie, baña iira, uste osoa ipiñi ezin leiken afen. *L'Osservatore Romano*'k esan daben, lez, «latefi-ietako agintariak alkar ezagutu eta itz egiteak, erien arteko anaitasuna geyagotzera daroaz, eta ortik bakera efezagoo yoten da».

Egia esateko, biderik egokiena auxe izango litzake: Girñak ezi eta Yaungoikoaren legea bete, egizko bake iraunkoia ortixik bakarik etofi leiteke-ta

Baña besterik ezin danean, aldana be ez da txarto!



## ◆ ◆ ◆ Lourdes' ko alatz edo mirariak

Lourdes'en Ama Erukiofaren bitartez alatz asko egiten dirala, begiak ikusteko dituanak ezin leikeu katu. Alan da be, osagileak safi esan dogu nez, osatze argi ta garbi bapatekoak ikusi afen, zurtasun txalogafiaz, itxaron egiten dabe, osatzeok iraukiofak diran ala ez argiro ikusi arteano. Beste askoren artean ara onetariko osatze afigafi bat, 1927'n geriatua, eta aurten osagileak gustiz ontzat emon dabena.

Maria Laphaud. Limo es'koa, 1925'gna ezkerotik urdaleko zauriaz egoan, eta gexo onek gustiz aulduta itxi eban. Neurkin edo metro bat eta 48 zentimetro luzeran euki afen, 25 kiloraño bere pixuan yatsi zan.

Igesko Dagoniã'ren 30'n asita Lourdes'en iru egun egin zituan eta oberik ez ebala, azkenegango uretan sartu ebenean, ufetatik gustiz osatuta urten eban, zaurien aziefenen barik eta gafiãra, azuf-gaitza, eta urdail sareko gaitza euki afen, zearo osatuta gelditu zan. Aurten bafiro Lourdes'era yoan danean, osagileak autortu dabe, aitatutako gexoen aziefenik be ez yakola gelditu, eta pixuan be 19 kilo irabazi dituala. Emakume au oso sendo dago ta Maitasunezko Afebak ditzen yaken lekaimen lan gustiak egiten ditu.

Onango bapateko osatzeok goi indafa bitartean dabiãela argiro agertzen dabela esan leike, naiz ta argiari begiak itxiten dautsiezanak beste gauza bat uste.

## ◆ ◆ ◆ Asmo polita

Alantxe deritxogu oraintsu, Santander'eko aldizkingi «Ciencia y Verdad»k euki dabean asmo begioari: Berau antzerkiak zeinduteko era

baña edo da, onen antzekoak beste lateri bapatean ezagutu diran afen. Umeetarañoکو gustiak ikusi leikiezan antzerki on-garbiai *zurien* izena emoten dautse. *Urdiñak*, txafak izan ez afen, nozik bein gogo ekar tolesgabeetan oldoskun txafen bat erein leikienari. *Goriak*, gordiñak diranai eta atal gafatzen bat daukenai. *Orlegi* edo berdeak inorentzat onak ez diranai eta *baltzak*, ziñestean kaltetko, gaizto ta agirian narbarmenai Ori ederto deritxogu, baña edertoago eretxiko geunskio, antzerki onetara baño ez yoateko erabagia artu ta onen alde lan egiteko asmoaz sortu bear litzakẽan katolikofaten bazkun onuratsu bati.

## ◆ ◆ ◆ Beljika'ko katoliko'tar gaztedia

Oin urte bete, Beljika'ko Katolikotar Gaztediak batzar eder edefa Lieja'ko urian egin eben. Eralguntzak eta indafa etsai afean agertzeko asmoz batu ziran, eta euren ziñeste zintsotasuna ederto agertu eben, azkenengo egunean egokiro eralduta kaleak zear ibili ziran 50 000 gaztek. Komunistak eurak be, ao batez katolikotar gazteen indar eta eralguntza autortu eben.

Baña Beljika'n alderdi bat dago flamendafena, eta aide aretako gotzañak, euren menpeko gazteakaz beste ainbeste egin bear ebela erabagi eben; eztabaida barik katoliko ikufinpean, dagozanen indafa agertzeko Oretarako Walondafen antzera Anberes'en euren batzafa egin dabe Lenen, Van Roey kardenalen aginduz flamendar gotzañak, euren izkuntzan «Jeugd bond voor Katholieke Actie» deritxon bazkura sortu eben. Batzar edefak egin eta yaupa nagosia esan eta ondoren, 2.000 ikufinẽen inguruan 100 000 katoliko gaztek euren ziñestea kaleak



zear autortu eben. Ondoren Van Roey kardenal-ak itz egin eutsen katoliko ekintzaz, katolikoak euren lanetan maitasunez beterik alderdi gustien gañetiko agertu bear ebela azalduaz, Aita Santuak argiro ta sãritan esan dabean lez. Aita Santuak bialdu dautsen idazki baten, berberau diñotse, eta beafeko dala au, gustientzat lan onurakor eta iraunkoãa egingo ba'da.

Pozgãfia da ziñez ainbeste gazte ain asmo edefaz alkartuta ikustea, batez be *pelotoyen* inguruan bakafik bilduta ainbeste ta ainbeste ikusten ditugun aldi oneitan.

### Eukaristi Batzarak

Ungaria'ko Uri-buru dan Budapest'en orain-itsu Eukaristi batzafa ospatu da. Latefi gustitik gizoste andiak bildu ziran eta ibildeun edefaz amaitu eben. Seredi kardenal yauna Aita Santuaren ordelaria, bere inguruan amar bat gotzain ebazala eta efiko agintariak be bai. Ibildeun ofetan yoan zan gizoztea 100.000'ra eldu zan. Baugha aba yosulaunaren itzaldi eder ondoren, Gure Yaunaren oneskunde, eta Aita Santuarenagaz amaitu zan, gustiak ao batez «Ni pekataria» esanaz.

—Baita Indo-Txina'n, Phatdiem'go urian lengo Eukaristi batzafa egin da. 60.000 lagun bildu ziran eta azkenengo ibildeunean 120.000 kristiñau, bost Gotzain buru ebezela. Batzaf egunetan 50.000 yaunartze izan ziran.

### Katoliko irakastetxe bafia Ipar Amerika'n

Ipar Amerika'n lendik be yosulaunak eta Irakastetxe katolikotar edefak dituez, baña oin daukien asmoa aufera eroan dayenean, txapeldun izango dirala esan geinke. Los Angeles-Loyo-

la'ko (Kalifornia'n) yosulaun edo yesuitak Irakastetxe bafi bat eta dirudienez munduko andienetarikoa egiteko asmoa dauke. Irakastetxe onetan 10.000 ikaslentzat tokia izango da. Etxe au 18 *miloi* ogerleko kostako da. Bere ondoan egingo dabean eleiza be Amerika'n danik andienetarikoa izango ei da.

Amerikafak andi-zaleak dira-ta onetan be atzean ez dabe gelditu gura. ¡Ederto! .

### ❖ ❖ Ipar-txortea

Bregentz (Tirol'en) igaro dan Dagonilean Katoliko Batzar edefa eginda, Alemania, Austria, España, Txina, Prantzia ta Txekoeslobakia'ko ordelariak maipuruan zirala. Azkenengo batzafean Mexiko'ko bidegabeko yasarpnaren aurka euren asafea agertzea erabagi dabe. Ufengo iru urteetarako lendakiritzat autu dabena, Ildeponso Montero «Ora et Labora»n zuzendaria auke-raztea erabagi eben.

—Kanbridge (Ingalanda'n) Latefi danetako lkasle Katolikotafan batzafa ospatu da. Oso edefa izan ei da, eta bertan eskatu dabena, bazkintza artezkariak aintzat artzen ba'dau, ufengo batzar orokaãa Barzelona'n izango da.

—Brasil'dar yakintsu ta aldun Barbosa Lima yauna katoliko biurtu da, eta brasildar beneditafan lekaretxean gogo-iñarkunak egin ditu. ¡Yauna'ri eskefak!

—Kayetano De Lai kardenal-yauna, gexo luze ondoren Eroma'n il da (G. B.) 1853'n yayo zan eta 1907'n X'n Pio'k kardenal autu eban. Ospatsu ta yakintsua izan da eta idazti eder batsuk argitaldu ditu.

**M'taf G.**

# MUNDU-ZALEKERIA DALA-TA

## ❖ ❖ ❖ Katoliko gusti- tiak egin bear dabena.

Aita Santua katoliko gustion Aita dala-ko, seme zintso izan gura daben edonok, bere irakatsiak entzun eta gogo osoz betetako gertu egon bear dau. Bestela, gurasoak asaré egiten dautsienean bakarik, esanak egiten dautsiezan se-meen antzekoak izango dira. *Bestelakoak!*

Eta zer dan katoliko gustiak egin bear dogun ori?... Ara Aita Santuaren eran-tzuna. Igaro dan Irala'n, Milan'en egin zan, katoliko italitar batzaréko lendakari Kolombo yaunari, Aita Santuak, idazki eder bat zuzendu eutson, eta beste gauza eder askoren artean auxe inotson: Kato-likotar gustiak kistar bizitza osotasu-nera eltzeko alegindu bear dirala. Eleiza'ko buru diranai zabalkundea egi-ten lagundu egin bear deusiela eta be-raz aldi bakoitzean gizartean sortzen di-ran bearizanetan euren bearikuna ondo yakiteko, Aita Santuaren agirietan azal-tzen diran arauak gogoan artu ta bete bear dabezala.

Agindu au gogoan artuta, Aita Santu-ak, Dagonila'ko Andra Mari egunez egin

eban itzaldiaren laburpen bat ipiñiko do-gu, gaya egoki datořena da-ta.

## ❖ ❖ ❖ Aita Santua'ren itzaldi garantzitsu bat.

Norbait deun ospeagaz ilten danean, deunen izendegian ipiñi aurretik azterketa gogořa egiten da. Ildakoen onbideak zearo aztertzen dituez, eta lenen emoten dan erabagia, deun ospez il danaren onbideen gurentasunatzaz izaten da. Ořetarako gauzak me arilduten dituez, akatzak ipinteko beste zeregin barik gi-zon yakintsu ta zuřa aukeratuaz.

Aztertze onetan onbideok garailari ur-teten ba'dabe, azterlariak, Aita Santua buru dabela, biltzen dira, eta deun ospe-az il danaren onbideak gurenak izan di-rala erabagiten da. Eta batzar onetan Aita Santuak deun-gayaren onbideatzaz itzaldi egoki bat egiten dau.

Igaro dan Andra Mari egunean, one-tariko batzara egin zan, Konrad Parzhan, buruñurdun legoa, eta Frassinetti Paule, Dorote deunaren emakume bazkunaren iraslearen onbideatzaz erabagia emote-ko. Eta ara egun onetan Aita Santuak egin eban itzaldiaren atal batzuk,

## Gizonen aurka eta atsegin zalekeriaren aurka.

«Gaur dakusguna zer da?—diño Aita Santuak — *Mundua*, eta gauza bildurgaria gomutatzeke, *Jesus*'ek aren alde otoitzik egin ez eban *mundua*. *Non pro mundo rogo*. *Jesus*'ek bera gurutzean yosi ebenen alde eta yosten inarduen bitartean, euren alde otoi egin eban *Jesus*'ek, *munduaren* alde ez eban otoitzik egin gura izan. *Mundua* bariz *Apostoluak* ikusi ebanean lakoa izan da beti: *Aragi-zalekeria*, *txindi-zalekeria*, eta *bizitzako arokeria*, au da *lizunkeri*, *zikoizkeri* ta *arokeria*. *Mundua* gaiztakeriz be-

terik dago. *Mundua* beti olantxe izan da, eta beti olantxe izango da *Jesus*'en ototza eltzen ez dan tokietan.

Baña esan leike une batzuk dirala, munduzalekeriak bere mugetatik gañezka egin da letxe, *mundutar* izan gura ez dabenak be kutsutu egiten dituala, eta ori *Jesus*'ek gaiztetsepean ez yaustearen, *mundutar* gura izan ez dabenak, *baña* urean dabizenak, eta bere zalekeri ta gogoagaz bat eginda lez dagozanak. ¡A! *Aberastasunak* gizonak liluratu egiten ditu; eta eskuratu egin gura dituez, yolas egin eta agintzeko. *Liluratze* bildurgaria eta asko, *baña* asko, beragantzen dituana! Au edestiko beste aldi ba-

tzuetan ikusten dana da; baña geure inguruan gertatzen danari asko begiratu barik be, igari geinke, aldi onetan gaitz onek sustrai zakonak bota dituala, eta ain zabal dabilen zalekeri onek, gizona, gizonen aurka, gizarteak gizarteak gizarte aurka eta eriak eta erien aurka bulztatzen dituala. Eta egiñean be, luřeko ondasunak berez dakaře, batak geyago ba'dauko besteak gitxiago eukitea. *Inde iræ*. Ortik asareak. Eta atsegin-zalekerien yoranak, agindu gurea, aspiratu gurea dakar».

Gaitz onei eutsiteko, Konrad Parzhan' en txirotasun, apaltasun eta menpetasun ibasbideak begi aurrean ipinten dauskuz.

### ◆ ◆ ◆ ◆ ◆ Emakume kristiñaua ta modak.

«Bestetik bariz — Aita Santuak darai — emakumeen ariean onen antzeko gaiztakeria ikusten dogu. Zelako naibagea emoten daben emakumeak ikusteak, bere burua lořindu ta ondatuteko bide bila eta beti lanean bere nofintasuna deuseztuteko, eta beragan bakanena eta bere *apaingari berezkoa* dana ondaizeko. ¡Egiz tamalgaria, Yaungoikoaren eskuak beragan ipiñi dituan leřo leunak kentzeko gertu ikustea! Eta au zertarako? Ain goyan bera ipinten dabena apurtzearen, berenenak diran emaitzak ezerezteko; iñoz zearo kenduko ez dituan Yaungoikoak eta izateak emondako emaitzak; itz baten gustia galdu eta ezer ez irazbaste.

Au be, ez da gauza baria. Beste aldi batzuetan be lařegikeri negargariak ikusi di-

ra. Baña edestia eltzen dan aldietan, gaur bestean gitxitan. Oldozten dakienak, onexek ařitzen ditu. Egiz eruki emoten dabe, mundutar diranak, Yesus'ek ain gogor gaiztetsi eban mundukoak diranak. Baña oneik baña bakarrik ba'lira, aitzen da.

Baña zoritxarez, beste gogo asko dira, mundutar etsitea gura ez dabenak, ori esatea iraintzat artuko leukienak, kristiñau burua egin, izen onegaz deitzea nai izan eta atakotzat dagozanak, katoliko, au da kristautasunaren osotasuna, ziñestea zaindu gura dabenak, eleizan sariu eta yaunarizera yoan gura dabenak; gogoan euki barik, Yaungoikoa'ren etxean sartzen dirala, aingernak euren garbitasun osoaz be ikaraz gurtzen daben Deunen deuna danaren altarara urratzen dirala.

Eta ori zelan izan leiteken azaldu ondoren diño:

Gutziz tamalgaria da, uskeri ta arinkeriaren sarietan arapauta ikustea ez bakarrik gazteri ugaria, baita ainbeste emazte eta ama, ainbeste emakume, sendian eta gizartean, kristiñau bizitzan eredu izan bear leukienak».

\* \* \*

Aita Santua'ren itz garatzok gogoan artuko ba'leukiez, ugarituez doazan *gonamotz* eta *kaskariñok* euren bizitza, yolas, eta yanzkeran «kristiñau sentzun eta benetasun geyago» agertuko leukie.

Eta diran baño katoliko zintso ta Aita Santuaren menpeko obeak izango litza-kez, euren on eta Eleizaren aintzarako.

Aditzale onari itz gitxi!...



# AUTORKUNTZAKO IXILTASUNA

Nepomuzeno'tar Yon deunak, autorkuntza ixiltasuna zaintzearen, bizitza galdu ebala, gauza ezaguna da. Baña ez ainbeste emen ipiñko dogun yazokun tamalgaría.

Urte asko da, Oraton, Kiew ondoko txauburua (parokoa) Kivylowies yauna, gizon bat erail ebala-ta, espetxeratu ebela.

Fusil izendun su-izkiluz ilda gizon bat agertu zan. Eríko irakasle ta txau neskindariak (organistek), sakristia aztertzeko, epaikariari (juezari) eskatu eutson. Anxe ustu bari *fusiła* idoro eben. Gizon erailtea abade gaxoari leporatu eutsen eta Gotzañak doibazkatu eban, eta auzitegian betiko lan neketsuetara zigortu eben Boronski, Zitomir'ko gotzañak zigortu ebanean eta auzitegian be, bera erubako zala beñ esaten eban. Alan da be, epai gogorpean yausi zan eta espetxeratu eben. Eta neke andiak igarota, bertan il zan.

Orain aste batsuk dirala, bera zalatu eban organistea be il da. Gaizki yañi

zanean, eríko endore ta epaikariari deitu eutsen eta autortu, gizona berak il edo erail ebala, bere alargunaz eskontzearen. Bere kaltez suzmo txarik euki ez eyen, abadeen su-izkilua artu ebala, eta ixilik sakristian itxi ebala, epaikariak erudun abadea egin eikian.

Eta abadeari, bere alde zez egin ezinda ipinteko, organistek bere gaiztakeria autortu eutson, zer egin eban zearo esanaz.

Abadeak autorkuntzako ixiltasun-legea zaintzearen, eruduna nor zan yakinda-be, bere bearkuna zintso betetako neke asko igaro ta bizitza galdu dau.

Organistek esandakoa entzun ebanean, epaikariak San Petersburgo'ra urutidatzez iragari eban, Kovylowies yauna azke ipinteko, erubakoa zala-ta. Baña, erantzun eutseen orain ile batsuk gizajoa il zala.

Autorkuntza ixiltasuna zaintzearen bizia galdu eban, Nepomuzeno deunaren yañaitzale zintso onek.

# KATOLIKO IZPARAK

•••••

## Mexiko'ko yasarpena.

Aspaldiko katolikotafen kalteko yasarpenean losagariak amaitzeko antzik ez dauko. Obregon, katolikotafen etsaya, bere antzeko batzuk, eraileben ezkerotik, amaikatxo bidar katolikotafai eraillte au leporatu dautse. Eurak dakie inok baño obeto guzuzaz dabizela, *baña Yaungoikoa' ren bildurik ez daukanak guzuzari bildur gixi-*ago dautso ta,, aufera!...

Kales'en ondorengo Portes Gil lendakari autu dabe, ta, abi bateko txoria da-ta, bardin abestu bear...

Ara beste askoren artean *ale* bat. Bera-Kruz ondoko geltoki baten, gudariak erbestutako aupari bat *pusi*leu dabe, iltzer egoan bateri launtzen yoan dalako beste barik. Beste ainbeste egin dabe, gexoaren anai bigaz, abadea etxean artu dabelako.

Obregon'en erailea? Toral, egunokaz eriotzako payaz zigortu dabe. Alan da be. Ama Konzeon lekaimeari be zigoña ezari gurarik dabiliz. Erudun dalako? Bai'zera! Bifiteko aldiz ziñalari (testigu) gustien eretxiz erubako dala-ta, azte ipiñi eben; eta orain bafiro epaipetu dabe, eta gei urteko espetxea beretzat eskatzen dabe.

Ori Toral eraileak? (1) berak, lekaime gaxoak eretako efurik eraillte ofetan ez daukala argiro anda gero. Bere kaltez ezer egiztu ba'eben r izango ete zan? Baña, indafa ta gofotoa usi diran erian zuzentasuna umezurtz egon ar!...

Mexiko'tar katoliko zintsoen alde otoi dagin, inoz baño adoretuago, orain arte lez, yafu dayen.

## Eusko-neskatila baten

### osatze arigaria : : :

Lourdes'en, Andra Maria Sortzez Garbiaren artez, gexo astundunen bat osatu dala yakikobedadetzat» ez dogu artzen, ainbeste ta

) Au egiztuta dago; Toral egun atarako espetxean dala, beraz ezin zeinkean Obregon il, baita Mardones estera erailltzaren erudun izan zala. Baña, norbaiteri aratu bear eutsien eta Toral'eri ezari ta kitu.

ainbeste osatzen dirala dakigu-ta. Gaur gure arteko bat aitatuko dogu. Eta ez lenengo. Orain urte bi, Gofiti Yakobe Aronako alabea, iltzer yoanda txoria baño bizkoñago etxera biurtu zan, eta alantxe dirau. Iges Pasajes'ko umetxo bat bapatean osatu zan. Eta aurten egin dan Eusko-bidezkundean be Felizitas Ufuria Belaunzaran, *Berobi'ko alabea gustiz osatuta etxera biurtu* zan. Donostia'ko euskal-asteroko eder «Argia»k diñonez; ila ala bizia zegoan ezin zeinkion igafi, ez kemen, ez sentzun, ez itz, ez begi, bestela eroateko gauza ez zala auto-burdian zefaldo eroan eben, sendagilean eretxiz ilgo zala etsila, *Eleizakoak artuta, azken otoizak eginda eta...* Lourdes'ko uraskan sartuta... gustiz osatuta urten ebala 22 urte dituan neskatila zoriontsu ofek.

Bere efiko eleizan egunokaz eleizkizun edefa egin da, Yaungoiko ta bere Ama efukitsuari eskafona agertzeko.

Ara or, Ama maite onen efuki eta almenaren agerbide edefa!

## Rotary bazkuna dala-ta.

Ez uste ene irakurle «efotarien» bazkun bari-en batzatzaz diardugunik. Oneik *beste rotary* batzuk dira. Izen au dauko Amerika'n sortu eta ludi gustian sustafak bota nairik dabilen *santu-santu* ez dirudien bazkun batek. Ze asmo ete daben? Eurak diñonez gizartearentzat «onuratsusak» izateko sortu dira, eta bada-ezpadako asmo oneik atzipetuta, katoliko asko bazkun onetan sartu dira. Euron on izatea eta zilegi-legea, bakan xamañak izan bear dabe, euren arautegiak, Yaungoikoa ta Yesu-Kisto'ren irakatsiak aintzat be ez dauz artzen-eta. Rotary kayolan, txori gustiak sartu leitekez, katolikotatik asi ta masoyetaraño. Eta egin-eginean be, *sur oneko* katolikoai, onexek susmo txafa emon dautse. Eta zuzen egon dira.

Bazkun au *masoyen* antzeko bazkuri bat da. Beraz katolikoak, *izenez* bakafik izan gura ez dabenak beintzat, bazkun onetan ezin leitekez sartu. Eta ezpairik euki dabenak auxe gogoan artu beye: *Palentzi eta Orense'ko Gotzañak euren menpeko katolikoai bazkun oneitan sar-*

*tzea zearo debekau dautsie...* Eta katoliko zinoaren zatitzaileak auzoak, bestela etsaen suari txingafa ezartea izango litzake-ta.

Ainbeste *ale naste* sartuten dituan *eroteak* urun onik ezin leike eyo. ¿Ez deritxozu irakurle?...

### Aita Santuaren Abadegintza ospatzeko : :

Gure Aita Santu gurgafiak, 1879'ko Lotaziila'ren 20'n abadegintza artu eban. Yazokun onen 50'n. urtea ospatzeko oi danez, yai andiak egingo dira, eta katoliko gustiak andikiro ospatzen alegindu bear gara. Yubileo antzera bidezkundek eta ludi gustitiek Efoma'ra yoango dira. Lenengotan iragafi zan, yayon asiarea 1929'ko Lotaziila'ren 20'an asiko zirala, baña, azkenez, aurtengo Lotaziila'ren 20'an astea erabagi da, ufengo urte gustian yafaitzeko. Prantzitafak, onetan aufenen agertu gurarik, oinxegandik datofen udabafirako gasteen bidezkunde edefa iragafi dabe. Amalau urtetik ogetabostera bitartekoak euren maitasuna agertuko dautse, bertan diran «L'Action Francaise»ren alegiñak eta guzufak gora-bera, eurak bere menpeko zintsoak dirala agertuaz.

Bidezkunde ofetan al bait geyen yoan daitezkan, 100.000 pranko sarian emongo dabez, Aita Santua'ren alde idaztirik onenak aurkezten dituen gasteak saritzeko. Sariok bidezkunde txartel edo txarteletan erdi bananduko dira. Asmo begikoa benetan emen be txarto etofiko ez litzakena, Aita Santuaganako zaletasuna gasteen artean zabaltzeko aukerakoa da-ta. **M'iaf G.**

## ERRETAKO IZPARAK

### GAZTEIZ

Eguraldi txafa zan azen, urriña 30'n iradakitua (inaugurar) zan Gazteiz'ko notin-pil-ikastolatza arakoturiko (destinado) ikastola edefa. Bertaratuak ziran Gazteiz'ko jaurleri (gobernadore) Amezola yauna, Montoya endore yauna, aldundiko ordezkaria, efi-nagusiak, deituriko ugari ta beste asko eta asko. Baita begozan lekaidi askotako ordezkariak be.

Yaupea gure Gotzain agurgafia dan Muxika'

tar Mateo yaunak egin eban, eta berak onestu ebazan ikastola-tokiak be.

Ikastola onetako tresnak ederenetarikoak dira, beintzat alan inoen bertaratuta eurari begiratu eutson guztiak.

Karmel'dar lekaidiak emoniko Praga'ko ume Yosubakaulkiratukeran, (entronizar) itzaldi mamin eta entzungari bat egin eban Gotzain yaunak, bere itz samur eta biotzetietan nabaritutuen ebalafiaren esku-zabaltasuna. Aberatsari, euren biotzetara leunkiro eta gozo-gozo eltzeko eran dei anaikor bat egin eutsoen, txiro biartsuari ta lagun egioela esanagaz, euren eskar-onaren duin izatera eldu daitezkan.

Gotzain yaunaren itzaldia, zinez txalogafia izan zan.

### ZORNOTZA

Iñonen 16'an il ta 17'an (1) iñobiratua izan da Beñojalbiz'tar Josebe Eramone 100 urteko atso-txu on-ona ta zoli-zolia zana.

Ondiño anxiaña ez dala zar-saritu eban emengo udal-etxian Bilbo'ko Udala'ren «Aurezki-Kutxa»k, eta egun aretan eban bizkortasuna ikusita, ezieukien esan olan arin bere iñobiratza izango zanik. Goyan bego ba Eramone zanaren gogoa, ludi onetan naiko urterik igasita yoan da-ta.

Eun urtek igasi ta

Ludiari agur

Egin deutso Ramonak

Biozti ta samur.

¿Guk noz ingo dautsegu?

Ez dakigu ziur;

¿Eun urte baño lenau?...

Bildur izan bildur!... **GARBI-NAI.**

### GETXO - NEGUR!

*Udea.* - Igaro da gure artetik ta orain ija neguan sartuak gara. Joan dira udea igaroten etofita geure artean egon diranak. Eztabie us-te, emen bere ederto igaroten dala negua. Eguraldi onak diranian, eztago Algorta'ko *Mirador* esaten jakon tokira joan baño, ta an itxasora begira, ederto artuten da eguzkia.

*Geure txistulariak.* - Oneik bai dirala bikañal. Igande goixetan, ederto igaroten dira eriko kaleetatik, euren txistu soñua jotzen. Bijotza asko poztuten dasku, entzuten doguzanean, euzko usaña baño besterik ezpada bere, beintzat zabalduten daudielako. Txaloak eureri.

**Alango'ko bat.**

## GUSTIA NAI DABENAK...

Bein zeken batek bere txindi-sakela galdu eban, eta iragarri eban baruan eukazan «800 lauerlekogaz» biurtzen eutsonari 100 lauerleko saritzat emongo eutsozala.

Zizkuan 700 lauerleko baño ez egozan, baño aserikeri au asmau eban, berak eskintzen ebana, bere zizkua biurtzen eutsonari ez emotearen.

Gizon zintzo batek zizkua aurkitu eban eta baruan zenbat diru egoan begiratu barik, bere yaubeari eroan eutson.

Idigi ta 700 lauerleko bakañik egozala ikusirik, esan eutson an 700 lauerleko baño ez egozala ta, bape ez yoyala emoten, aurreztiik, berak, palta ziran 100 lauerlekoak gorde zituala-ta.

Gizon zintsoak gogor bere burua aldeztzen eban, eta ezer ez ebala lortzen

ikusirik, auzia epaikariagana eroan eban.

Epaikariak bieri entzun ondoren, epai auxe emon eban: «Zizkuaren yaubeak diñoanez, zizku onetan 800 lauerleko egon ziran ezkeru, eta nik egia diñoala uste dot; eta zizkua aurkitu dabena ikturik egin barik osorik biurtu eutsola sendo aldeztzen dabena ezkeru, onek be egia diñoala ziñesten dot.

Argi dago ba batorék aurkitu dabena zizkua beste orék galdu dabena ez dala. Beraz, aurkitu dabena, zizku orén yaubea agertzen dan ikusteko, iru ilabetean gorde dayela, eta agertzen ezipada, aldi ori igarota, beretzat gorde dayela».

Epaikariak edera sakatu eutson baño ondo irabazita eukan.

Gustia nai dabena galdu gustia, esakun zara baño beti baria.



## KRUSELUA OBE ETE?...

---

*Īunabar baten neu-gelatxoan  
ludi zabalari  
adi nengoan;  
eta gizaldiau ikusten neban  
argiz inguraurik  
ta guzurpean.*

*Azaleko argiz inguraturik,  
adimenekoa  
gustiz nasturik;  
eta neurekautan esaten neban:  
«Ain argi askogaz  
Īluna zelan?  
Azalez ugari argitasuna,  
gogoetan bañiz  
naspil ĩluna?  
Begiz ikusten dan argi bizia,  
gogo argiaren  
etsai garbia?...  
Azaltzeko beintzat ori zelan dan  
ustez bai yeukat nik  
ointxe naiko lan»...*

*Onetan bapatez ixetu yatan  
tximistargia ta  
argitan nintzan.  
Ta gogalpen danak laster asturik  
auxe esan neban  
neuk, ixuturik:*

*«Begi-argia adimenaren  
etsai andia dirudi,  
oldoskun danak beingo batean  
kendu yaustazak ba neuri.  
Tximistargia gaur egunean  
zabal da toki danetan;  
sentzuna bañiz, ostatu barik  
sañi dager bazteretan.  
Kruzelu zaña nausi zanean  
sentzun andia buruan,  
tximist argia sortu danetik  
naspil andia munduan...»*

GABIREL.

# KATOLIKO IZPARAK

•••••

## Goi-maitasuna katolikoen artean : : :

Friburgo'ko «Charitas Catholica» bazkunak, katolikoen arteko erukizko egintzen zenbakunzia argitaldu dau.

Erukizko egintzetan geidearen aldez lan egiten dabena onexek dira:

1.<sup>o</sup>—Eri-etxetan:

a) Gexoi laguntzeko, eta gauza ez diran eta arden ardurak daukien etxeak 15.700 dira, 752.000 egaz, eta lan oneitan diarduenak 125.000'raño lizen dira.

b) Gaztetxoaren asiera arduradun etxeak 13.400 dira; oyak 668.000 eta onçitan arduratzen diranak 70.600 lagun.

2.<sup>n</sup>.—Erdi erietxe antzera.—Katolikotafak oneko 96.300 etxen ardurea dauke, eta bertan diranak egunoro 2.289.600 gexo ikertu ta zaintzen dituez.

3.<sup>n</sup>.—Gexo zain, etxerik - etxe, dabizanak. onetan arduratzen diran bazkun etxeak 140.000 dira.

4.<sup>n</sup>.—Euren bizikeraz, maitasun - egintzetan arduenak, 502.000'ra eltzen dira, eurotatik leimeak (monjak) 350.000, lekaideak 32.000 eta star lauak 120.000.

5.<sup>n</sup>.—Lan-sari barik eruki egintzetan diardukatolikoak, 6.500.000 dira.

galietatik zugatza ezagutzen ba'da, ziñesge, testante eta sozialistak eta, zenbaki oneitan dauke zer ikasi, eta euren begiz ikusi be ain ari ederafak emoten dituan Eleiza gizonak nautakoa ez dala. Ori ikusteko yakiña! begibaldu bear dira, eta egiñean be orixe dago onen lora, egia begien afeiik kendu ezinda ean.

## Abade yakitun baten eriotza : : :

abide ta yakituria alkartuta safitan ikusten gauza da, baita, abadetza be yakituriagaz, askok uste daben baño safiagotan. Asmaki-

zun eta afebide asko abade ta lekaideai zor yakezala, zerbait edesti irakuri dabenari aitatu bearik be ez dago. Onetariko bat izan da, oraintsu Italia'n il dan, larogei urtedun, *Zerbotani* abade yakintsu eta onbidetsua.

Beronek tresna asko ta onuratsuak asmau ditu eta euron artean ara batsuk:

1.<sup>a</sup>—*Teletopómetro*, edo ufiñera ufintasuna neurtzeko fresnea.

2.<sup>n</sup>.—*Neplómetro*, lañoen ufintasuna ta goitasuna neurtzekoa.

3.<sup>n</sup>.—*Quiquolibet*, ufutidazkiak, irafita biletzekoa, iñor artzeko tramankuluan egon barik.

4.<sup>n</sup>.—*Teletypógrafo*, idazkiñ eta ufutizkiña alkartuta, ufiñera izparafak irarteko.

5.<sup>n</sup>.—*Teleautógrafo*, ufiñera idatzi al izateko.

Abade ospetsu onek, ikasle artean yakintsu asko izan ditu, eta gaur Belgika'ko bakaldun-emazte dana be, Babiera'n izan zanean, bere ikasle izandakoa da.

## Aita Santua'ri eskar ona agertzen : : :

Aita Santuak, beste iñok baño lenago Txina'ko eskubideak aintzat arizen bialdu eutsen idazkiak sartada andia eragin eban. Txinafak poz-pozik artu eban eta baita eskar ona agertu be. Agintariak eurak, Aita Santua'ren Ordalaria'ri euren eskar ona agertu eutsen, eta orixe egin dabe oraintsu bertoko seme diran sei Gotzañak be. Idazki ederean Aita Santua'ri eskefak egiten dautsez, bai euren izenean, txiñar kistañen izenean eta txiñar gustien izenean be bai, bertoko eskubideak aintzat artu bear dirala esan ebalako, eta zuzentza ta eratasun bidetik yafaitu ba'dagi, txiñar efiari etorkizun edera opa dautsolako.

Uste izan lei, len be aitatu gendunez, txiñar katolikoentzat egun zorionsu ta onuratsuagoak uferatzen dirala.

Auxe idaztean irakuri dogu txiñar Gotzañetik Odoricus Tch'eng bere goterkian il dala. Iges Tchoa yauna, eta orain au, seitatik bi urte bien bafuan il dira. Oin Tchoa yaunaren ordezkioz bost Gotzain txiñar gelditzen dira.

## Katolikotar idazle ba- ti Nobel saria : :

Nobel saria, ospetsua da, ta ez ain efeza be irabazten. Elerti-saria aurten, emakume katolikotar batek irabazi dau. *Sigrid Undset* noruegatar emakume idazlari bikañak. Ointxe urte bi toki onetan azaldu gendun emakume bikain au zer zala-ta zelan katoliko egin zan. Orain baño len katoliko egite au, saria irabazteko eragozpen izan yakola esan leike, nonbait berau katoliko egiteak noruegar protestante artean sartada andia eragin eban eta. Baña azkenean be zuzentzak garailari urten dau, eta uste izan leike ondo irabazita daukela, bestela iñondik al izan ba-eben akatzen batsuk aurkituko eutsiezan eta. Au guretzat izpar pozgafia da, eta ezaugafi ona be bai, Noruega'n katolikoak goroago ta itzal geyago sartzen dabela igarteko.

## Andra Maria 'ren go- ralbenez : : : :

Gustiok dakigu egunorokoetatik-eta, Begoña'ko Andra Maria'ren goralbenez egin diran yai edefak, gure Gotzain agurgafia buru dala. Bizkai'ko Zaindari maitagafiari Burezuna andikiro ipiñi eutsoela 25 urte bete diralako eleizkizun edefok. Mutiko giñala, zelako pozaz bertara eldu giñan gomutatzen gara, baita orduan bidez-kunde baten ikusi genduzan yazoera negargafiaz, eta igaro genduzan esturakaz, baita zelango pozaz Begoña'ra eldu giñan, etsayak ara eltze-ko egin euskuezan izenbako gaiztakeri ta eragozpen gustiak aspirafuta. ¡Yauna'ri eskefak gaur beste aldi batsuetan bizi gara.

Yayok bakerik edefenean egin dira, Bizkai gustiak bere Amari dautson maitasuna agertze-ko eragozpenik bidian aurkitu barik. Yayok dirala-ta, zerizelada bat bakafik ipiñiko dogu.

Bizkai'ko Aldundiak gertaera onen 25'n urtea ospatzeko Begoña'ko Ama'ri Bizkai gustiaren izenean ezko-lodi edo zirio eder bat eskifit dautso. Metro bi ta bost zentimetro luze ditu, eta 90 kilo astuna. Sasp metxa ditu eta igande ta yai gustietan goizetik gaubera biztuta euki ez-kero, urteterdi inguru iraungo leuke. Erdian Begoña, Bizkai eta XIII'n Leon agurgafiaren ikurdi (eskudo) ez gañera, idazkun auxe daroa: «Bizkayak bere Andre Gurenari»—1903-1928».

Baita Guadalupe'ko Ama deunaren Burezun-

tzea, igaro dan ilean Extremadura'n ospatu da. Aita Santua'ren Odelaria, Erege ta agintariak bertan zirala, burestunik edefenatarikoa ezafi dautsoe. Lau kilo urte ta platino ditu eta 30.000 aribitxi baño geyago. Egun atan 25.000 lagun inguru bildu ei ziran, eta eleizkizunik zoragafienak egin ziran Andra Maria'ren burestutze au ospatzeko. Poztu gaitezkan gustion Ama ain gotartua ikustez.

## Izpar txorta : : : :

Kekek, Kanada'ko epaikariak eurenez erabagi dabe, auzitegi gustietan Kurutzeen irudia ipintea. Ederto! Izan be. Kurutzeagandik urindu ez-kero, noren izenean epayak emon ete leikez?

Ipar Amerikan bizi diran ypondar katolikoak, lenengo egunoroko izpafingi katoliko atara dabe. Beronen zuzendari Sakuta Bingen ointsu katoliku egin dana da.

Wurzburg, Babiera'n Mixio katoliko batzar orokofa egin da. Batzar aurfetik Yakidi batzar bat egin da Schmidlin abak ederto gertaua, eta Lowestein Luis bakaldun sendikoa buru zala.

Beneditafak daukien lekaretzerik ugariera Minnesora, Ipar-Amerika'n dauke. Bertan 160 lekaide dagoz eta Irakastetxe nagusi bat zuzentzen dabe, 800 ikaslegaz

250 txiñel irlandafak, Aita Santua'gana bidezkundez yoan dira, euren gudalburu Duffi ta iru kapelauk zuzenduta. Txineelok euren zifieste zintzoa agertu dabe, amabiak emotean txapela erantzi, eta gustien aurfian Agur Maria'k otoiztuaz. Emengo txinelak, beste ainbeste egingo ete dabe? Aita Santuak irlandafen zifieste zintsoa goraldue eban.

Mery del Val yanzkordunak bere kardenalitzako, 25'n urtea azila'ren 9'an ospatu dau. Pio X'nak bere idazkaritzat autu ta ondiño 38 urte baño ezeukazala kardenal egin eban.

Belgrado'tik iragafi dabenez Zogú eregea katoliko egin da. Baita, Bruno Rotschil, osakigile alemandafa, yudar zifeskera itxi ta katoliko egin da. Bere asmoa teologia ikasi ta abade egitea da. ¡Ederto!